



eitb

Memoria Integratua 2020

Enpresaren Gizarte Erantzukizuna
Memoria eta Informazio
Ez-finantzarioaren Egoera.

Zuzendari nagusiaren gutuna

2020. urtea historikoa izango da, covid-19a gure bizitzetara iritsi zelako. Garai honetako lehen pandemia global honek aldaketa ustekabekoa eragin du gure bizitzetan. Horregatik, 2020ko Memoria Integratuak agerian utzi nahi du EITBk bere jardunean eta gizarte-konpromisoan hilabete hauetan guztietan euskal herritarren artean izan duen eragin handia.

EITBk sozialki arduratsua den kudeaketa baterantz bideratzen du bere estrategia, eta garapen jasagarriaren alde lan egiten du, bai erakunde mailan eta bai euskal gizarte osoaren mailan. Horregatik, ezinbesteko komunikazio- eta entretenimendu-tresna bihurtu da herritar askorentzat, eta, gainera, zuzenean lagundu du EITBrentzat garrantzitsuenetakoa den Garapen Jasangarrirako Helburu bat zabaltzen eta azpimarratzen: osasuna eta ongizatea.

Horrela, EITBk funtsezko zeregina izan du 2020an Euskadin otsailaren 28an hasi zen pandemiak informatzeko orduan eta herritarrek munduko osasun-larrialdi horri aurre egiteko hartu behar zituzten neurriez informatzeko orduan. Urte osoan lortutako audientzia-indize altuak eta gizarte-babesak agerian utzi dute EITBk euskal gizartearen zerbitzura dagoen herri-erakunde gisa herritarrei egindako ekarpena.

Memoria berri honetan, EITBk bere gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-jardunaren kontu-errendapena egin du berriro, eta dokumentu berean informazio ez-finantzarioaren egoera jaso du, kudeaketa-txostenaren zati gisa. Halaber, alderdi estrategikoak eta helburuak lortzeko dugun ikuspegia islatu dira. Global Reporting Initiative erreferentzia-esparrua erabili dugu berriro, tresnarik erabilgarrienetako bat delako gure kudeaketa-sistema jasagarria egokia ote den eta erakunde gisa ezarri ditugun helburuak lortzeko aukera ematen ari ote zaigun ebaluatzeko.

Memoria honek 2020ko mugarri bat ere jasotzen du erakunde osoaren transformazioak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko: etorkizunari aurre egiteko beharrezkoa den prozesu-aldaketa sakona dela-eta, EITBk sozietate-integratioko prozesuari ekin dio, egitura berri batekin eta antolamendu-eredu berri batekin. Horrela, Eusko Irratiak, Radio Vitoriak eta Eitbnetek Euskal Telebistarekin bat eginez gauzatu da sozietate-integrazio hori, eta emaitza sozietate anonimo bakar bat da, hemendik aurrera EITB Media izena izango duena.

Azkenik, aipatu behar da Memoria Integratu hau enpresa independente batek egiaztatzen duela eta gure azken helburua dela EITBn egiten dugun kudeaketan sakontzeko interesa duen orori ikuspegi erreala, objektiboa, kontrastatua, gardena eta pertsonen zerbitzuarekiko arduratsua aurkeztea.



**Andoni Aldekoa
de la Torre**

Aurkibidea

1

**EITBren
aurkezpena**

2

**Jasangarritasuna
EITBn**

3

Enpresa

4

**Gobernu
korporatiboa**

5

Pertsonen

6

Herritarren

7

Euskararen

8

**Euskadi
munduan**

9

Ingurumena

10

**Memoriaren
arauzko
alderdiak**

Joan aurkibidera

1. EITBren aurkezpena

- Negozio-eredua
- Enpresa-egitura
- Eskaintza eta zabalkundea
- Enpresa-partaidetzak



1. EITBren aurkezpena

Negozio-eredua

EITBk informatzea eta gizartean espirtu kritikoa sustatzea ditu helburu. Horretarako, informazio-, dibulgazio- eta entretenimendu-aukera erakargarria eta kalitatezkoa eskaintzen du, eta, aldi berean, euskal kultura eta euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen ditu.

EITB (Euskal Irrati Telebista) Eusko Jaurlaritzaren komunikazio-talde multimedia da. [Eusko Legebiltzarrak 1982an sortu zuen](#), euskal gizarteak eskatzen zuen ikus-entzunezko komunikaziorako erakunde propio gisa, publikoa, eta Autonomia Estatutuaren 19. artikulua babesean¹.

Enpresa publiko eta komunikabide gisa, EITBren zeregina da bere zerbitzuak euskal gizarteari eskaintzea; horregatik, oso gogoan du eragin handia izatea dagokiola eta rol garrantzitsua bete behar duela maila sozialean nahiz instituzionalean.

Hori dela-eta, gizarte demokratiko baten eskakizunen arabera eta bere oinarritzko printzipioen arabera, EITBk bereziki zaintzen ditu bizikidetzaren balio zibikoen defentsa eta sustapena, berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua, euskal kulturaren eta hizkuntzaren sustapena eta gazteen eta haurren babesa eta sustapena.

Gaur egun (2020), EITBk 149 milioi euroko aurrekontuarekin kudeatzen ditu telebista-, irrati- eta Interneteko hedabideak, eta bere jarduera hiru egoitzetatik garatzen du: Bilbotik (bertan dago egoitza nagusia), Donostiatik eta Gasteiztik. Gainera, hainbat ordezkaritza ditu Iruñean, Baionan, Bartzelonan eta Madrilen, eta korrespontsalia-sarea du Amerikan, Asian, Europan eta Ekialde Hurbilean.

Audientzia- eta prestigio-mailatik harago, EITBk informazioan eta gaurkotasunean duen lidergoari eusteko jarduten du, profesionaltasun- eta deontologia-printzipioak zorroztasunez betez, sinesgarritasunean oinarritutako informazio-erreferentzia izateko. Horrez gain, lehen mailako konpromisotzat ditu euskaldunei euskarazko eduki-aukera guztiak eskaintzea eta halakoen erabileraren normalizazioa sustatzea.

EITBko plantilla osatzen duten 1.178 pertsonari baino gehiagori dagokienez, eta etengabe aldatzen ari den gizarte hiperkonektatu baten testuinguruan, komunikazio-talde multimediak transformazioaren, ongizatearen eta prestakuntzaren aldeko apustuarekin jarraitu du 2020an. Gainera, covid-19aren pandemia dela eta, EITBk dagozkion prebentzio-, egokitzapen- eta babes-neurriak ezarri ditu erakundean kutsatzeko arriskua minimizatzeke, bere profesionalen osasuna zainduz eta osasun-agintariekin lankidetzan birusaren transmisioa kontrolatzeko.

1. 19.-1 art. Euskadiri dagokio gizarte-hedabideen arloan Estatuaren oinarritzko arauen lege-garapena, betiere Konstituzioaren 20. artikulua xedatzen duena errespetatuz. 2. Aurreko paragrafoak aipatzen dituen gaiotan betearaztea Estatuarenarekin koordinatuko da, Estatuaren titularitasuneko hedabideei ezargarri zaien araudi bereziari dagokionez. 5. Artikulu honen lehen paragrafoan xedatutakoarekin bat, Euskadik bere telebista, irrati eta prentsa arautu, sortu eta mantendu ahal izango ditu eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen gizarte-hedabide guztiak.


1. EITBren aurkezpena

Enpresa-egitura

2019an, herri-erakundeak eta edukiak ekoizteko lau sozietate anonimo unipertsonalek osatzen zuten EITB, laurak % 100ean partaidetuak: Euskal Telebista, S.A.U.k (telebista); Eusko Irratia, S.A.U.k eta Radio Vitoria, S.A.U.k (irratia); eta Eitbnet, S.A.U.k (Internet). 2019an hasitako transformazio digitaleko prozesua dela-eta, erakundeak zeharkakotasunaren eta prozesuen bateratzearen aldeko apustua egin du, gizarte konektatu eta gero eta zorrotzago batek eskatzen dituen edukiak eta euskarriak eskaini ahal izateko.

Testuinguru horretan, eta 2017-2020ko lldo Estrategikoak betetzeko asmoz, EITBk sozietate-integraziorako eragiketa bati ekitea erabaki zuen 2019an. Eragiketa 2020ko urtarrilaren 1ean gauzatu zen ondore guztietarako, enpresa-egitura antolaketa-eredu berrira egokitzeko. Horretarako, EITBk erabaki du herri-erakundea mantentzea eta Eusko Irratia, S.A.U., Radio Vitoria, S.A.U. eta Eitbnet, S.A.U. sozietateak Euskal Telebista S.A.U.n integratzea, hori baitzen enplegatu, aktibo eta kontratu gehien zituen guztien artean.

Horrenbestez, EITBren gaur egungo sozietate-egitura osatzen dute, alde batetik, herri-erakundeak -kudeaketa korporatiboko prozesuak bertan kokatzen dira-, eta, bestetik, EITB Media izen soziala hartu duen sozietate anonimo bakarrak -herri-erakundearen % 100eko partaidetzarekin-. Azken horretan kokatzen dira hiru negozio-unitateak: telebista, irratia eta Internet (lehen lau sozietatetan banatuta zeuden).



1. EITBren aurkezpena


Eskaintza eta zabalkundea

EITBren eskaintzan, euskal gizartean bertan sortutako edukiak dira azpimarragarri. Horien bidez, euskararen erabileraren normalizazioa bultzatzen da; hurbilekoari ematen zaio garrantzia, ikuspegi bereziarekin tratatuz, eta gizarte-kohesioari laguntzen zaio.

Eduki guztiak sortzeko eta zabaltzeko, eduki-aukera zabala eskaintzen du telebistako, irratiko eta Interneteko bere hedabideen bidez. Eduki horiek sormenaren eta gizarte-kohesioa bultzatzen duten balioen arteko oreka mantentzen dute. Hona horietako batzuk:

- Demokraziaren, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen defentsa.
- Berdintasunarekiko eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoarekiko errespetua.
- Elkartasuna eta gizarte-garapena.
- Ingurumenarekiko errespetua eta ingurumenaren zaintza.
- Duintasuna eta pertsonen ohorearekiko eta izen onarekiko errespetua.
- Prestakuntza, esfortzua eta norbera hobetzeko grina.

Beraz, EITBk konpromiso sendoa hartu du kalitatezko informazio multimediaren eskaintza lortzeko, eta eskaintza horren ezaugarriak sinesgarritasuna, objektibotasuna eta aniztasuna izango dira. Erakundearen funtsezko zeregina da EITBk albistegietan korporazio multimedia lider gisa duen posizioari eustea, mundu mailan presente dagoen lehen mailako eskaintza profesionalarekin.



1. EITBren aurkezpena

Enpresa-partaidetzak

2020an, EITBk presentzia mantendu du merkataritza-sozietate batean eta 2019an partaidetza zuen irabazi-asmorik gabeko bi erakundetan:



Expressive, S.L.: publizitate-merkatuan eta komunikazio-enpresekin lotutako produktu eta zerbitzuetan espezializaturiko merkaturatze-enpresa. Bilbon du egoitza. EITBk bazkide minoritarioaren % 25eko akzio-partaidetza du. Gainerako % 75a akziodun pribatuena da.



Euskadi Kirola Fundazioa: Basque Team kudeatzen du. Basque Team-en egitekoa, hain zuzen ere, goi-mailako euskal kirola sustatzea da, kirolariei ordezkaritza eskainiz nazioarteko lehiaketa gorenetan. EITBk eta EAEko Administrazio Orokorrak % 50ean parte hartzen dute Fundazioaren kudeaketan.



Vicomtech: Donostiako Miramon Parke Teknologikoan dago. Ikerketa-fundazio honek adimen artifizialean eta konputazio eta interakzio bisualeko sistemetan espezializatutako zentro teknologiko bat dauka. Basque Research & Technology Alliance sarean dago. EITBk eta Alemaniako INI GraphicsNet taldeak eratu zuten. Gaur egun, patronatuaren parte da EITB.

EITB, gainera, Guggenheim-Bilbao Museoaren, Bilboko Arte Ederren Museoaren, Donostiako San Telmo Museoaren eta Euskalit, Kudeaketa Aurreratuaren patroia da. Era berean, Gasteizko Artium Museoaren enpresa ongilea da.



EITB, komunikabide-zerbitzu publikoa den aldetik, Irrati Telebista Autonomikoen Erakundearen Federazioko (**FORTA**) kide da, eta, erakunde horretatik, komunikazio- eta harreman-jarduerak lantzen ditu Estatuko erregulazio-sistemako komunikabideekin eta erakundeekin.



Horrez gain, eskualdeko telebisten Europako Elkarteko (**CIRCOM**) kide da, zeina, beste funtzio batzuez gain, ikus-entzunezko gaietarako Europako Batzordearen erakunde aholku-emailea baita.

2. Jasangarritasuna EITBn

- Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketa integratua
- Materialtasuna eta interes-taldeekiko harremana
- Balioa sortzeko prozesua



2. Jasangarritasuna EITBn

Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketa integratua

EITBk sozialki arduratsua den kudeaketa baterantz bideratzen ditu bere estrategiak eta helburuak, eta garapen jasangarriaren alde lan egiten du, bai erakundeari eta bai gizarte osoari begira. Ikuspegi hori zeharkako errealitate gisa aplikatzen da erakundearen prozesu guztietan.

Gobernantza arduratsuaren printzipioak aplikatuz eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikak garatuz, EITBk entzute aktiboko harremana izan dezake bere interes-taldeekin. Ildo horretatik, Taldearen GEKaren ikuspegiak alderdi hauek hartu ditu ardatz:

GEK ikuspegia

1. Herritarrak

Euskal gizartearekiko hurbileko harremana eta konplizitatea.

2. Euskadi Munduan

Euskadiren irudia munduan proiektatzea.

3. Euskara

Euskararen balioa sustatu eta zaintzeko konpromisoa.

4. Jasangarritasuna, Enpresa, Gizartea eta lana, Ingurumena

Oreka erakundearekin, langileekin, gizartearekin eta ingurumenarekin duen harremanean.

2. Jasangarritasuna EITBn | Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketa integratua

2020an, GEK taldeak alderdi komunak arakatu zituen Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 programako, Nazio Batuen 2030 Agendako eta zegozkien plan estrategikoetako herrialde helburuetan, eta, ondoren, alderdiok EITBren jasangarritasun-ahaleginekin lerrokatzeak zer erronka planteatzen zituen aztertu zuen.

Ariketa horrek EITBren jasangarritasun-adierazleak eta -helburuak Eusko Jaurlaritzaren 2030 Agendarekin lerrokatzeko balio izan du. 2021ean, asmoa da sistema eraginkorragoa bilatzea GJHei egindako ekarpenak neurtzeko, inpaktuen ikuspegia hartuta.

2020rako, identifikatuta dago EITBk zein GJHtan izan dezakeen inpaktu handiagoa abian diren programen eta ekintzen arabera (ikus behean zerrenda). 2021ean ikuspegi xehatuagoa eta kontzentrazio handiagoa lortuko dira inpaktu handieneko GJHetan.

5 GENERO BERDINTASUNA



Genero-berdintasuna

EITBk berdintasunaren eta aniztasunaren integrazioa babesten du bere plantillari dagokionez, eta aukera berak eskaintzen dizkie pertsona guztiei, EITBren Etika eta Jokabide Kodean berretsita dagoenez. Era berean, konpromiso sendoa du arazoaz informatzeko eta emakumeei ikusgarritasuna emateko, desberdintasunak errotik kentzea helburu.

8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

EITBk kalitatezko enplegua sortu behar du, eta baldintzarik onenak eskaini behar ditu bere langileen garapenari dagokionez. Gazteen prestakuntzan inbertitzen du, eta babes sozialerako eta oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea eskaintzen du; prerrogatibarik gabeko baldintza-berdintasuna bermatzen du; eta gizarte-kohesioa ziurtatzen du kalitatezko informazioaren bidez eta euskal hizkuntza eta kultura sustatuz eta zabalduz.

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



Kalitatezko hezkuntza

Hasiera-hasieratik, EITBk balio sinboliko handia izan du, eta prestigioa eman dio euskarari; hori funtsezkoa izan da euskaraz informatu, hezi eta entretenitu daitekeela erakusteko. Ildo horretatik, EITB oso lagungarria izan da hizkuntzaren garapenean, euskararen normalizazioa sustatu eta bultzatu duelako gero eta elebidunagoa den gizarte batean.

2. Jasangarritasuna EITBn | Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketa integratua



Industria, berrikuntza eta azpiegitura

EITBk teknologia-produktuetan inbertitzen du eraginkortasuna areagotzeko eta zerbitzu digitalak hobetzeko, pertsonak hobeto konektatuta egon daitezen; bestalde, berrikuntza sustatzen du, estrategia digitala inplementatzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatuz. Horretarako, hain zuzen ere, bere azpiegitura digitalak baliatzen ditu edukiak argitaratzeko, herritarrek zerbitzuaz behar bezala gozatu ahal izan dezaten.



Helburuak lortzeko aliantzak

EITBk badaki beharrezkoa dela ezagutzak mobilizatu eta trukatu dituzten erakunde anitzen arteko aliantzak sortzea, garapen jasangarria sustatuko bada. Aliantza horiek bistaratzen dira, besteak beste, EITBk garapen jasangarriarekin dituen konpromisoetan, elkartzeko edo babesteko ekintzetan, fundazio eta erakundeei egindako ekarpenetan eta komunitatean egindako inbertsioan.



Klimaren aldeko ekintza

2019-2020 Ingurumena Hobetzeko Planari eta kudeaketa-sistema integratu bati esker, kudeaketa eta kontsumo arduratsurako ekintza zehatzak abian jarri ditu, eta energia-efizientziaren hobekuntzan eta karbono-isuriaren murrizketan inbertitu du. Komunikazio-talde gisa, EITBk konpromiso editoriala hartu du klima-larrialdia agenda informatiboan jartzeko.



Osasuna eta ongizatea

Bere langileen ongizate fisiko eta emozionala eta lan-bizitzaren kalitatea sustatzeko, EITBk Izan Ongi barne-plana abiarazi du. Alde horretatik, EITB funtsezkoa izan da 2020an bere ikus-entzuleak pandemiari buruz informatzeko, eta hori izan da gizarteko inpaktu nagusietako bat epe horretan zehar.

2. Jasangarritasuna EITBn

Materialtasuna eta interes-taldeekiko harremana

2019an, EITBk bere materialtasun-matrizea eguneratu egin zuen, oso garrantzitsutzat joz Legebiltzarrean EITBren erreforma integralerako osatu zen ponentziak ekarri zuen elkarrizketariketaren emaitza. Ponentzian, hainbat azterlan soziologiko, kuantitatibo eta kualitatibo aktibatu ziren hainbat interes-talderekin, euskal gizarteak EITBri buruz duen pertzepzioa zehatz-mehatz eta oso modu fidagarrian lortzeko.

Materialtasuna birpentsatzeak oso helburu argia izan zuen, Gizarte Erantzukizunaren Memoria Integratuan interes-taldeei benetan axola zaizkien eta EITBrentzat funtsezkoak diren gai guztiak azaltzea. Horretarako, design thinking prozesu bat egin zen, interes-taldeen ikuspegitik EGEaren Memoria Integratuan landu beharreko lehentasuneko alderdiak identifikatzeko. Prozesuan, EITBko hainbat arlotako arduradunek parte hartu zuten, denak barruko zein kanpoko interes-taldeekin harremanetan zeudenak.

2020an, aurrez definitutako gai materialen lehenespena legitimatzeko eta inklusioa balidatzeko asmoz², EITBk aurrez definitutako alderdi materialei buruzko inkesta egin zien bere interes-taldee. Inkestaren bidez, interes-taldeek aukera izan dute gai horiek Taldearen Memorian sartzeak duen garrantzia balioesteko, eta, aldi berean, duten garrantzia ebaluatzeko.

Inkestak Taldearen gai materialekin lotutako 28 galdera zituen, zazpi gai-arlotan banatuta: EITBren Jasangarritasun Memorian ere arlo horiek berak azaltzen dira. Inkestako parte-hartzaileek alderdi materialak ebaluatu behar zituzten 5 garrantzi-mailako eskala batean (*Garrantzi gutxikoa - Oso garrantzitsua*). Prozesuak 162 parte-hartzaile bildu ditu.

2. 2020rako "Sozietate-egitura sozietate publiko bat sortzeko" izeneko alderdia kanpoan utzi da, sozietate-integraziorako eragiketa 2020ko urtarriaren lehen gauzatu zelako ondore guztietarako eta ez dagoelako lotuta interes-taldeen lehentasunekin. Halaber, ekitaldi honetan *Euskara-Gazteria* alderdia sartu da. Alderdi hori azpigai gisa tratatu zen 2019ko Jasangarritasun Memorian. Nolanahi ere, egindako inkestan Taldearen interes-taldeen adierazi dute alderdi horrek garrantzi handia duela Taldearen jasangarritasunean.




2. Jasangarritasuna EITBn | Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketa integratua

Materialtasun-matrizea

Lortutako emaitzetan oinarrituta,

- Aurreko urteko balioespenak mantendu egin dira alderdi material horiek EITB Taldearen estrategiarekin duten harreman-mailari dagokionez.
- Alderdi materialaren garrantzi estrategikoaren eta interes-taldeentzako garrantziaren arteko harremanak materialtasun-matrize hau sortu du:



2. Jasangarritasuna EITBn | Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketa integratua

Materialtasun-matrizea

Halaber, beheko taulan ekitaldi honetarako identifikatutako EITBren alderdi materialak azaltzen dira. Alderdi horiek eguneratu egin dira interes-taldeek egindako materialtasunari buruzko inkestaren emaitzak kontuan hartuta.

Taldearen alderdi materialak Memoriaren dimentsioetan taldekatuta ikus daitezke. Eskuineko zutabea, Taldearen Memoriako edukietan erantzuna eman nahi zaien GRI eduki asoziatuak azaltzen dira.

Gobernu korporatiboa (Compliance)		
1	Arauk betetzea	419 - Betetze sozioekonomikoa
2	Gardentasuna eta gobernantza	205 - Ustelkeriaren aurkako borroka
Enpresaren ardatza		
3	Albistegien audientzia eta profesionaltasuna	417 - Marketina eta etiketatzea
4	Aniztasuna eta adierazpen-askatasuna	Adierazpen-askatasuna
5	Genero-ikuspegia	Edukien sorrera eta dibulgazioa
6	Aurrekontu-kudeaketa eta O defizita	201 - Ekonomia-jarduera
7	Audientzia (adierazle orokorrak)	417 - Marketina eta etiketatzea
7.1	Audientzia (adierazle orokorrak)	203 - Zeharkako inpaktu ekonomikoa
8	Autorregulazioa	Edukien sorrera
8.1	Autorregulazioa	Edukien dibulgazioa
8.2	Autorregulazioa	417 - Marketina eta etiketatzea
9	Ikus-entzunezkoen euskal sektorea	Edukien sorrera
10	Hornitzaileekiko harremana	204 - Erosteko praktikak
11	Transformazio digitala eta edukien modalitate berria	Berrikuntza eta edukien sorrera
Pertsonen ardatza		
12	Ordainsariak	405 - Aniztasuna eta aukera-berdintasuna
13	Langileekiko elkarriketa	402 - Langileen eta zuzendaritzaren arteko harremanak
14	Berdintasuna, aniztasuna eta diskriminaziorik eza	405 - Aniztasuna eta aukera-berdintasuna
14.1	Berdintasuna, aniztasuna eta diskriminaziorik eza	412 - Giza eskubideen ebaluazioa
15	Enplegua	401 - Enplegua
16	Prestakuntza eta gaikuntza	404 - Gaikuntza eta hezkuntza
17	Lan-ingurunea	401 - Enplegua
18	Lan-harremanak	402 - Langileen eta zuzendaritzaren arteko harremanak
19	Segurtasuna eta osasun okupazionala	403 - Laneko osasuna eta segurtasuna
21	Hezkuntza-harremanak	413 - Tokiko komunitateak
Herritarren ardatza		
20	Programa eta ekimen arrakastatsuak	413 - Tokiko komunitateak
22	Lekukotzak	413 - Tokiko komunitateak
23	Komunitatearekiko harremana	413 - Tokiko komunitateak
24	Sariak eta aintzatespenak	413 - Tokiko komunitateak
Ingurumena		
25	Energia	302 - Energia
26	Isuriak	305 - Isuriak
27.1	Ingurumen-edukiak	Edukien sorrera
27.2	Ingurumen-edukiak	Edukien dibulgazioa
Euskararen ardatza		
28	Euskara	
29	Euskara - Gazteria	
30	Kultura- eta hizkuntza-elkarteak	Kulturarako eskubidea
Euskadi Munduan ardatza		
31	Nazioarteko proiektzioa	102 - Erakundearen profila

2. Jasangarritasuna EITBn

Balioa sortzeko prozesua

Memoria hau hainbat kudeaketa-ardatzen inguruan antolatu da, eta EITBren egitura- eta gobernu-egiturari buruzko sarrera-kapitulu batzuk ditu.


Ardatz bakoitzean -Pertsonak, Herritarrak, Euskara, Euskadi Munduan eta Ingurumena- deskribatzen dugu nola kudeatzen dugun eta nolako emaitzak lortu ditugun. Horrela, memoria hau irakurtzean, EITBk egunez egun kudeatzen dituen erronkak eta aukerak uler daitezke, bai eta alderdi eta eduki horiek guztiak garapen jasangarriaren ikuspegitik nola aztertzen diren ere.

Kudeaketaren ikuspegia

Ardatz bakoitzean kudeaketaren ikuspegia ezartzen da, hau da, gai bakoitza nola kudeatzen den.

Emaitzak

Ardatz bakoitzerako, lortutako emaitzak eta dagozkion adierazleak eta edukiak adierazten dira.



Misioa, ikuspegia eta balioak

Jasangarritasun Eredua

Interes-taldeekiko lotura eta jasangarritasunaren eta gizarte-erantzukizunaren estrategia.

Enpresa

Plangintza estrategikoa, kudeaketa-sistemak eta enpresa-kudeaketa.

Gobernu korporatiboa

Gobernu- eta kudeaketa-organoak, arauak betetzeko mekanismoak.


Kontrola | Autorregulazioa | Gardentasuna

Arriskuen kontrola eta kudeaketa, gardentasuna eta osotasuna.

Joan aurkibidera

3. Enpresa

- Erakunde-cultura
- Audientzia
- Aniztasuna eta adierazpen-askatasuna
- Genero-ikuspegia
- Bezeroen babesa eta gogobetetzea
- Ekonomia-jarduera



Erakunde-kultura

Hau izan da Taldearen [2017-2020 Plan Estrategikoaren](#) inplementazioaren azken urtea. Aldi honetarako definitutako estrategia-lerroei eta helburuei esker, zerbitzu publikoaren eredua mantendu ahal izan da, ingurunea aldakorra izan arren eta covid-19arekin herrialdeak jasan duen aurrekaririk gabeko krisia gorabehera. Plan horri esker, Taldeak maila altuak bermatu ahal izan ditu audientziaren, gizarte-prestigioaren eta informazio-kalitatearen arloetan -azkena funtsezko alderdia izan da berrogeialdian-, pertsonen zerbitzurako bere kudeaketaren ikuspegi erreala, objektiboa, kontrastatua, gardena eta arduratsua bermatzeaz gain.

Eragiketei dagokienez, 2020an -pandemia gorabehera- Taldeak bere transformazio-planak ezartzen jarraitu ahal izan du bai prozesuen digitalizaziotik eta berrikuntzatik eta bai sozietate-integraziotik. Eusko Irratia, Radio Vitoria eta Eitbnet sozietateak Euskal Telebistan integratzeak ziklo bat itxi du EITBrentzat, eta aukera emango dio datozen urteei aurre egiteko izen sozial berridun sozietate anonimo bakar gisa: EITB Media.

Datozen urteetan, EITB Mediak egunez egun hobetzeko aginduari jarraituko dio bere eragiketen eraginkortasuna maximizatzeko, hainbat alderditan oinarrituta; esate baterako, kudeaketa aurreratu eta jasangarrian, transformazio digitalean eta gure gizarte gero eta konektatuago, informatuago eta zorrotzagoaren beharrak betetzean. Aurten, bai erakundeak eta bai bere interes-taldeek covid-19aren inpaktua eta ondorioak jasan dituzte, eta horrek oso irakaspen onak utzi dizkigu hurrengo plan estrategikoari begira.

3. Enpresa | Erakunde-kultura

Memoria honetarako eta 2017-2020 Plan Estrategikoarekin bat, EITBk bere printzipioak, ikuspegia, misioa eta balioak mantendu ditu.

Oinarrizko printzipioak

- Bizikidetzaren balio zibikoen defentsa eta sustapena.
- Berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua.
- Euskal kulturaren eta hizkuntzaren sustapena.
- Gazteen eta haurren babesa eta sustapena.

Ikuspegia


- Euskadin lider den korporazio multimedia gara, eta erreferentzia gara informazio-sinesgarritasunari dagokionez.
- Euskal ikuspegia duten edukiak eskaintzen ditugu, interakzio ona dugu herritarrekin, eta komunikaziorako euskal esparrua sortzen laguntzen dugu.
- Gure aldagetaren helburua da konektatutako pertsonak eta eduki-komunitateak EITBren misioaren jomuga bihurtzea.

Misioa

- Zerbitzu publiko bat gara.
- Interakzio ona dugu gure audientziekin.
- Informazioa, dibulgazioa eta entretenimendua eskaintzen ditugu; euskal kultura eta euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzen ditugu.

Balio korporatiboak

Orain aipatuko ditugun balioek aukera ematen diote EITBri talentu onenaren aldeko apustua egiten jarraitzeko eta balio horiek partekatzen dituzten eta Taldearen helburuekin konprometitu dauden benetako profesionalak izateko.



3. Enpresa


Audientzia

Zerbitzu publikoari eustea -bai informazioaren eta bai entretenimenduaren arloan- izan da EITBren helburu nagusia konfinamendu-hilabeteetan, eta une oro bete ditu osasun-agintarien gomendioak eta ezarritako prebentzio-protokoloak. Osasun-agintarien mezuak zabaltzeaz eta gizarteari transmititzeaz gain eta koronabirusaren krisiaren azken ordua albistegietan eta gaurkotasun-programetan eskaintzeaz eta aztertzeaz gain, taldeak mantendu egin zituen entretenimendu- eta dibulgazio-formatuak, bere zerbitzu publikoaren alderdi oso garrantzitsu gisa.

ETB1, ETB2, ETB3, ETB4 telebista-kanal guztiek; Euskadi Irratiak, Radio Euskadik, Radio Vitoriak, Gazteak, EITB Musikak eta EITB Euskal Kantak-ek osatutako irrati-taldeak; eta Interneteko eitb.eus plataformak informazio-eskaintzarik eta edukirik onenak eskaini dituzte egoera zailenetan.

Horri esker, EITB izan da ikus-entzule gehien dituzten komunikabide autonomikoetako bat, TV3ekin (Kataluniako telebista) eta CRTVGrekin (Galiziako Telebista) batera; hau da, merkatuan erreferente diren hiru erakunde. Telebistako merkatu-kuotaren neurketa komunikabideen arteko rankingak ezartzen duena da. Hona 2020ko rankinga:

Telebista-kontsumoa igo egin da autonomia-erkidego gehienetan pandemiaren ondorioz. Testuinguru horretan, ETBren audientzia-kuota nabarmen igo da.




3. Enpresa | Audientzia

Albistegiak

EITBrentzat albistegiak funtsezkoak dira, euskal herritarren informazio-iturririk hurbilena direlako, eta, gainera, audientzia handiena haiek lortzen dutelako Euskal Autonomia Erkidegoko beste kanal batzuekin alderatuta.

Aurten, ETBko albistegiek Euskadiko lidergoa sendotu dute 24,3ko audientzia-kuotarekin, lehiakide nagusia baino hamar puntu gorago, informazio-erreferentzia bihurtuz. Alde horretatik, barneratze-maila ere igo egin da. Albistegiak egunero kontsumitzen dituzten ikusleen % 58k Gaur Egun (ETB1) eta Teleberri (ETB2) aukeratzen dituzte uneraren batean.

Euskadin gehien ikusitako albistegien audientzien rankinga telebista-kanalaren arabera



Iturria: Kantar Media.


*Aurten ez da jakinarazi Noticias Cuatro albistegiaren datua aurreko memorian bezala, albistegia emateari utzi diotelako. Beheko grafikoko datuetan ETB1 eta ETB2 azaltzen dira EITB Mediaren bi albistegi-kanal gisa.



3. Enpresa | Audientzia

informatiboa

Eguneko audientzia-ratioa (kontsumo/kontaktuak) TB kanal autonomikoen arabera



Iturria: Geuk egina, datu propioetan eta Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.



	Eskualdeko albisteen eguneroko kontaktuak	Eguneroko berrien kontaktuak orokorrean
TV3 (Katalunia)	1.794.000	2.522.497
ETB	492.000	848.932
Aragón TV	248.000	526.459
Televisión Canaria	270.000	642.391
TVG (Galizia)	380.000	1.076.937
TPA7 (Asturias)	142.000	405.642
IB3 (Balear Uharteak)	110.000	387.404
Canal Sur (Andaluzia)	812.000	3.249.678
CMM TB (Gaztela-Mantxa)	194.000	856.139
7 TV (Murtzia)	120.000	549.839
Telemadrid	464.000	2.380.396

3. Enpresa | Audientzia


Programazio orokorra

Programazio orokorrak funtsezko alderdia izaten jarraitu du EITBrentzat, eta pandemian zehar programa gehienek euren formatua eta edukia egokitu behar izan dituzte osasun-errealitatearekin bat etortzeko. ETB1ek gaurkotasunari buruzko informazioa eman du bere eguneroko programazioan pandemian zehar, eta, aldi berean, ordutegi nagusiko programen aldeko apustua egiten jarraitu du. ETB2ri dagokionez, bere datuak hobetu ditu, bai eguneroko programetan, bai eguneroko gaurkotasun-programetan eta bai bere entretenimendu-eskaintzan.

EITB berezia da beste telebista-kanal batzuen aldean, euskarazko eta gaztelaniazko kanalak eskaintzen dituelako; bi hizkuntza ofizialetan programazio oso eta bereiziaren kasu bakarra da. Bigarren kanalak, gainera, entzunaldi-kuotarik altuena du Euskadiko audientziaren artean.


Telebista

Euskadiko TB audientzia-kuota



Iturria : Kantar Media.

EITBren audientzia-kuota TB kanalen arabera




Iturria: Kantar Media.

3. Enpresa | Audientzia

Irratia


Kontsumoa (al.-ig.) Euskadin taldearen arabera



Iturria: CIES.

(1) PRISA Radio: SER, C40, Dial, Los 40 Classic, Los 40 dance. (2) Grupo COPE: COPE, C100, Rock FM, MegaStar. (3) ATRESMEDIA Radio: Onda Cero Europa FM, Melodía FM. (4) Grupo RNE: RNE, R3, R5, Radio Clásica.

EITBren irratiak kontsumoa 2020an Euskadin eta Nafarroan (al.-or.)




Bi grafikoen iturria: CIES

3. Enpresa | Audientzia

Irratia

Eguneko audientzia-kuota hedabide autonomikoen arabera



Iturria: eguneroko batezbestekoa (CIESen eta EGMren datuetan oinarrituta).

EITB Taldeko irratiak nagusi dira gainerako irrati publikoen aldean Euskal Autonomia Erkidegoan. Euskal audientziaren % 39,5ek egunero entzuten ditu EITBren irrati orokorrak (Radio Euskadi, Euskadi Irratia eta Radio Vitoria) nahiz musikalak (Gaztea eta EITB Musika): 2019an lortutako kuota baino 2,3 puntu gorago.

	Eskualdeko estazioen entzule guztiak	Irrati entzuleak guztira
EITB Irratiak	389.000	984.000
CCMA Radios (Katalunia)	732.000	3.620.000
CRTVG (Galizia)	206.000	1.402.000
Canal Sur (Andaluzia)	531.000	3.929.000
Aragón Radio	34.000	634.000
CMM Radio (Gaztela-Mantxa)	23.000	892.000
RPA (Asturias)	12.000	553.000
IB3 Ràdio (Balear Uharteak)	13.000	611.000
Onda Regional (Murtzia)	14.000	664.000
Canarias Radio	18.000	1.061.000
Onda Madrid	13.000	3.200.000

3. Enpresa | Audientzia


eitb.eus plataformaren erabiltzaileen hazkundeari dagokionez, esan daiteke 2020. urtean ere azken urteetako goranzko joerari eutsi zaiola: hilean ia 5 milioi erabiltzaile bakar izatera iritsi da.

Grafikoko datuek urteko hazkundetasa handia duen webgune bat erakusten dute. Aurten ere, beraz, EITBk eskaintza sendoa eraikitzen jarraitu du Internet bidez informazioa eta entretenimendua eskuratzeko, eta horren ondorioz eitb.eus-ek hilean 7,6 milioi erabiltzailearen langa gainditu du.

Berriro ere, estatu mailan autonomia-erkidego bakoitzeko biztanleriarekin alderatuz gero, audientziek EITBren lidergoa are gehiago sendotzen dute Internet bidezko eskaintzari dagokionez.


Internet

eitb.eus-en erabiltzaile bakarrak



Iturria: OJD Interactiva eta Google Analytics

Eskualdeko hedabide taldeen webguneen erabiltzaileen ratioa



Iturria: geuk egina,
Comscore-ren
datuetan oinarrituta

Audientzia / hilabetea eskualdeko hedabide taldeek 2020an

EITB	2.043.000
Radio Televisión Madrid	3.376.000
CCMA (Katalunia)	3.262.000
CRTVG (Galizia)	430.000
CART (Aragoi)	173.000
CMM (Gaztela-Mantxa)	259.000
RTPA (Asturias)	130.000
RVTA (Andaluzia)	796.000
RTRM (Murtzia)	97.000
EPRTVIB (Balearrak)	72.000
APUNTMEDIA (Valentzia)	263.000
EPRTC (Kanariak)	114.000

3. Enpresa

Aniztasuna eta adierazpen-askatasuna

Filosofia eta ikuspegia

EITBk Estilo Liburuan berariaz aipatzen du hedabide guztietan beti onartuko, defendatuko eta sustatuko direla Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta ondorengo araudietan –eta bereziki UNESCOk landutako Kazetaritzako Etika Profesionalaren Nazioarteko Printzipioetan– jasotako eskubide guztiak.

Hauek dira EITBren oinarritzko printzipio horietako batzuk:

- Bizikidetzaren balio zibikoen defentsa eta sustapena.
- Berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua.
- Euskal kulturaren eta hizkuntzaren sustapena.
- Gazteen eta haurren babesa eta sustapena.

Lehenengo puntuek garapen zehatza dute Estilo Liburuan, gizartean dagoen aniztasunaren ikusgarritasuna, komunikabidearen akonfesionaltasunetik erlijio-adierazpenekiko errespetua eta kultura-aniztasunaren aberastasuna ziurtatuko dituen eredu publikoa babesteko. Halaber, EITBk sustatzen ditu parte-hartze demokratikoa, generoagatik, arrazagatik edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik ez egitea eta zuzentzeko eta kontra erantzuteko eskubidea.



3. Enpresa | Pluraltasuna eta adierazpen askatasuna

Aniztasunaren eta adierazpen-askatasunaren kudeaketa

EITB sortzeko 5/1982 Legearen arabera, herritarren informaziorako eta partaidetza politikorako tresna nagusi gisa erabili behar dira komunikabideak. Era berean, Legeak bere jarduketa-printzipio orokorrak ezartzen ditu, berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua bermatzeko.

EITBren Erredakzio Estatutua zuzenbide-estatu demokratikoaren prozedurekin arautzen da, adierazpen-askatasunerako eta egiazko informazioa jasotzeko eskubideak errespetatuz. Hala, informazio-zerbitzu publikoa den aldetik, Estatutuak ezartzen du EITBk herritarrei eskainiko dien informazioak oinarri hauek izan behar dituela: gertaerak egiazko izatea, iturri guztiak kontsultatzea, inolako manipulaziorik ez onartzea, eta UNESCOk, Europako Kontseiluak eta Kazetarien Nazioarteko Federazioak landutako kazetaritzako etika profesionalaren printzipioak errespetatzea.

Erredakzio Estatutuak aukera ematen du EITBko komunikazio-profesionalek eskubide horiek baliatzeko eta defendatzeko isilbidezko gizarte-agindua gauzatzeaz arduratzen direla ziurtatzeko, eta haien betebeharrak nagusia izango da askatasunez, independentziaz, zorroztasunez eta objektibotasunez informatzea, ezarritako printzipio editorial eta deontologikoak errespetatuz.

EITBk Erredakzio Kontseilua du, 2020ko irailaren 25eko hauteskundeetan bi urterako hautatutako 17 kazetarik osatua. Horiek dira Taldearen kanal desberdinetako ordezkariak. Kontseilua honela osatzen da: EITBko bost ordezkari; Euskadi Irratiko 3 ordezkari; Radio Euskadiren 3 ordezkari; Radio Vitoriaren 3 ordezkari; eta eitb.net webgunearen 3 ordezkari.

2020ko ekitaldian zehar, hauteskondeak egin dira Euskadin Eusko Legebiltzarrerako, covid-19a dela-eta hilabete batzuk lehenago bertan behera utzi ondoren. Izan ere, hauteskunde horiek erronka handia izan dira gizarte osoarentzat nahiz EITBko profesional guztientzat inguruko gorabeherak direla-eta, baina lortu da kontrol-organismoek arazorik gabe bermatzea neutraltasun-, aniztasun- eta adierazpen-askatasunaren printzipioak.



3. Enpresa

Genero-ikuspegia

EITBk funtsezko zeregina du genero-berdintasuna eraikitzeko beharrezkoa den gizarte-transformazioan. Ildo horretan, genero-ikuspegia gero eta garrantzitsuagoa da erakundearen hedabide eta eduki guztietan.

EITBren Estilo Liburuak, profesional guztiei zuzenduak, genero-berdintasunarekin zerikusia duten berri guztiei buruzko informazio-tratamendurako jarraibideak jasotzen ditu. Aukera-berdintasunarekiko konpromisoak informazio-ikuspegia eskatzen du, genero-estereotipoak zalantzan jartzeko eta desberdintasun-egoerak bistaratzeko eta salatzeko.

Kalitatezko kazetaritzak informazio-tratamendu eta hizkuntza ez-sexista baliatu behar ditu, eta gertakarien estaldura inklusiboa egin. Genero-ikuspegia gertakarien kontakizun inpartzialean oinarritzen da, eta, beraz, informazioan oinarritzen da gehiago iritzian baino.

Era berean, EITBren Aholkularitza Juridikoak klausula bat sartu du kanpoko enpresa ekoizleekin sinatutako kontratuetan EITBren Estilo Liburuan ezarritakoa betetzen dela jasotzeko. Liburuan, besteak beste, indarkeria matxistaren tratamendua eta, oro har, genero-ikuspegia tratatzen dira.

Prestakuntza-ekintzak

2020an EITBk berdintasunari buruzko prestakuntza-jardunaldi bat eman zien irratzi-profesionalei, programen arduradunei eta albistegi-editoreei zuzenduta. Jardunaldiaren helburua zen komunikabideetan genero-ikuspegiaren erabileran nola aurrera egin ezagutzea hainbat ikuspuntutatik begiratuta. Gainera, EITBko Berdintasun Arduraduna egon zen Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundeak) antolatutako UPV/EHUn "Nola irudikatzen da emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria?" ikastaroan, EITBren irratien zuzendariordearekin batera.

2020an, EITBk 639 albiste eman zituen genero-berdintasunarekin lotutako informazioari buruz.



3. Enpresa | Genero-ikuspegia

Edukiak

Kirolak

2020an, covid-19aren ondorioak ikusi ziren kirol-programazioan, lehiaketak bertan behera utzi baitziren. Testuinguru horretan, EITBk konpromiso editoriala mantendu zuen emakumeen kirolarekin – bai albistegietan eta bai emankizunetan –, emakumeen lehen mailako kirol-lehiaketei estaldura emanez, hala nola Emakume Master Cup esku-pilotako lehiaketari; emakumeen futbolaren Reto ligari; Endesa saskibalo-ligari; Guerreras Iberdrola eskubalo-ligari; traineruen Euskotren Ligari; edo emakumeak lehiatzen diren herri-kirolei. Gainera, 2020aren erdialdean EITBk Plazandreak programa estreinatu zuen, emakumeen pilota ezagutzera emateko esku-pilota lehiaketa bat, audientziarik goreneko ordutegian.

Hona emakumeen euskal kirolarekin zerikusia duten emankizunak modalitateen arabera:

- Emakumezkoen estropadak: 16
- Albisteak albistegietan: 1.986
- Programetako erreportajeak: 120
- Emankizunak: 108

Zinema

2019az geroztik, EITBk euskal ikus-entzunezko sektoreari proposatuta, EITBren Proiektuak balioesteko batzordeak genero-aldagaiak indartu zituen fikzio-zinema eta dokumentalak ekoizteko ekarpen ekonomikoak esleitzeko balioespenean. Horren ondorioz, diru-ekarpen gehiago egin dira sorkuntzaren esparruan (gidoia, muntaketa, musika, ekoizpena eta zuzendaritza) edo tradizioz gizona zkoenak ziren lantaldeen zuzendaritzan (soinuak, argazkigintza, etab.) emakumezkoak inplikatzeko dituzten proiektuetarako.

2020an hamasei film luze ekoitzi ziren guztira (bederatzi fikziozko film eta zazpi dokumental). Fikziozko bederatzi filmetatik bost emakumeek zuzendu dituzte: *El sueño de la sultana* (animazioa), Isabel Herguera; *García y García*, Ana Murugarren; *Nora*, Lara Izagirre; *5 Lobitos*, Alauda Ruiz de Azua; *Erlauntza*, Mireia Gabilondo. Dokumentalen kasuan, hirutan emakumeak zuzendariak edo zuzendarikideak ziren: *918 gau*, Arantza Santesteban; *Dónde está Mikel*, Amaia Merino eta Miguel Angel Llamas; *Urak aske*, Bego Zubia.



3. Enpresa | Genero-ikuspegia

Ficción

2020ko Aurrekontua prestatzeko azken fasean, genero-berdintasunaren arloko konpromiso espezifiko batzuk hartu ziren, 535.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin. Covid-19aren ondorioz, hasierako programa egokitu egin behar izan da, eta 2020rako aurreikusitako proiektuetako batzuk eten edo atzeratu egin behar izan dira.

Hala ere, EITBk ahalegin berezia egin du erakundearen edukien garrantzia eta ikusgarritasuna sustatzeko. Hala, aurrekontu-ahaleginak emaitza optimoa izan du.

Gainera, EITBk baliabide propioak erabili ditu hainbat ekimenetarako: 2020an genero-ekimenetara bideratutako zenbateko osoa milioi bat eurotik gorakoa da, aurreko paragrafoan aipatutako aurrekontu-zuzkidura barne:

- Itxi liburuak” programaren bost atal euskal emakumeekin lotutako historia-gertakariei buruz: Ikastolen sorrera, Saturrarango kartzela, Katalina Erauso, Gladys del Estal eta Zugarramurdiko sorginak.
- Fikziozko “Alardea” miniseriea, dagokion spin-offarekin eta eztabaida-programarekin.
- “Ur handitan”, “Vamos a hacer historia” eta “360 grados” programen bost atal berezi.
- Pikuak webseriea.
- Plazandreak.
- Podcast feminista www.eitb.eus webgunean (proiektu-fasean gaur egun).

Haur-publikoa

2018ko amaieran, EITBk HIRU3 (3Kluba) proiektua martxan jarri zuen, hurrei zuzendutako EITBren edukiak egokiak izatea eta gizarte gisa sustatu beharrekoekin bat datozela bermatzeko. 2019an, EITBk ETB3ko, webguneko, app-eko, hbbtv-ko eta smartTVko HIRU3ren eduki bakoitzaren balioak ebaluatzeko adierazleak definitu zituen; balioak euskararekin, hizkuntzarekin, genero-berdintasunarekin, pentsamendu kritikoarekin eta erantzukizunarekin lotutakoak ziren.

Publizitatea

EITB bere borondatez sartu zen Autocontrol elkartearen. Autocontrol irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta publizitate-arloko autorregulazio-sistema kudeatzeko sortu zen. 2020an zehar, EITBk ez du inolako erreklamaziorik jaso emandako publizitatean sexu-bereizkeria egiteagatik.

Bestelako ekintzak

EITBk programazio berezi bat eskaini zuen astean zehar martxoaren 8an ospatzen den Emakumearen Nazioarteko Eguna zela-eta. EITBren hedabide guztiek M8ari eskainitako programak eta edukiak jaso zituzten.



3. Enpresa

Bezeroen babesa eta gogobetetzea

EITBk harremanetarako bi kanal jartzen ditu herritarren eskura: ikus-entzuleentzako arreta-telefonoa (946 563 122) eta eitb.eus atariko [harremanetarako inprimakia](#). Jasotako komunikazioak Bilboko EITBren egoitzan (info@eitb.eus) aztertzen dira hasiera batean, eta handik ikus-entzuleentzako arreta-zerbitzuari (eitb@eitb.eus) edo dagozkion arduradunei banatzen zaizkie, gorabehera teknikoekin lotutako kasuetan.

Jasotako komunikazioen erregistroa eta sailkapena hiru irizpide nagusiren arabera egiten da:

- **Komunikazio-mota:** parte-hartzea (eskaera, eskaintza, esker-ematea, iradokizuna, iritzia, kontsulta, salaketa); kritika (kexa, kritika, zuzenketa); eta gorabehera (gorabehera teknikoa, arazoa);
- **Erreferentzia egiten dion hedabidea:** EITB; telebista; irratia; Internet; eta orokorra (EITBrekin zuzenean lotuta ez dauden komunikazioak);
- **Gaia:** albistegiak/albisteak, App/Nahieran/Streaming/Newsletter, eguraldia, EITB Maratoia, filmak/dokumentalak, 3Kluba, hizkuntza/azpidatziak/soinua, irratia, kirolak, EITBren programak eta beste batzuk (hainbat gai biltzen ditu). 2020ko martxoaz geroztik gai berri bat sartu da: koronabirusa.



3. Enpresa | Bezeroen babesa eta gogobetetzea

EITBren prentsa-bulegoak bere gain hartzen du ikus-entzuleentzako arreta-zerbitzura zuzentzen diren mezu elektronikoen kudeaketa, eta, oro har, jasotako komunikazioak ebatzteaz arduratzen da; batzuetan, dagokion sail edo arduradunari bidaltzen zaio mezua izapidetu dezaten.

2020an, EITBko ikus-entzuleentzako arreta-zerbitzuak 2.008 komunikazio kudeatu ditu guztira; horietatik 529 telefono-deiak izan dira, eta 1.479 mezu elektronikoak. 2019an erregistratutako datuekin alderatuta, azpimarratzekoa da komunikazioek gora egin dutela martxoan, apirilean eta maiatzean, covid-19aren agerraldiarekin eta ondorengo etxeko konfinamenduarekin batera.

Ikus-entzuleak babesteko beste mekanismo batzuk


318 gorabehera-erregistro
jaso eta kudeatu dira

53 kexa
Ikuslearen Defentsa Bulegora zuzenduta

67 eskaera SZA eskubideei buruz (sarbidea, zuzenketa, ezereztea, aurka egitea)

1 eskaera gardentasun-atariaren bidez informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko

2020an jasotako komunikazioak komunikazio-motaren arabera




Parte-hartzea: eskaerak, eskaintzak, esker-emateak, iradokizunak, iritzia, kontsultak, salaketak.

Kritika: kexak, zuzenketak, kritikak.

Gorabehera: arazoak, gorabehera teknikoak.

2020an jasotako komunikazioak gaiaren arabera



3. Enpresa

Ekonomia-jarduera

Zerbitzu publiko batentzat, ekonomia-jarduera funtsezko alderdia da kudeaketari dagokionez; izan ere, EITBren jarduera kontrolatzen duten erakunde guztiek gainbegiratzen dute alderdi hori. Atal honetan, sortutako eta banatutako balio ekonomikoaren deskribapena jaso da. Kontzeptu honek finantza-egoera tradizionalak osatzen ditu, interes-taldeekiko harremanetan balio ekonomikoa sortzeko eta banatzeko ikuspegiarekin.

sagarri gisa, hona hemen EITBk azken hiru urteetan egindako inbertsioak:

Egindako inbertsioak (eurotan)

	2018	2019	2020
Inbertsio arruntak	3.875.181	4.342.370	2.788.990
Zinema-inbertsioak	4.297.479	5.739.004	4.716.479
Guztira	8.172.660	10.081.374	7.588.457

Sortutako eta banatutako zuzeneko balio ekonomikoa

(milaka eurotan)

		2018	2019	2020
Sortutako zuzeneko balio ekonomikoa		137.301	144.557	149.234
Sarrerak	Salmenta garbiak, horniduren itzulketak eta merkataritza-eragiketengatiko narriadurak, finantza-inbertsioetatik lortutako sarrerak, aktiboen salmentengatiko sarrerak, ezohiko sarrerak eta ustiapenerako dirulaguntzak.	137.301	144.557	149.234
Banatutako balio ekonomikoa		(140.845)	(148.812)	(153.411)
Eragiketa-kostuak	Ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileei egindako ordainketak, merkataritza-eragiketengatiko hornidurak eta narriadurak, ibilgetuaren amortizazioa, ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzak eta bestelakoak, aktiboen salmentagatiko galerak eta ezohiko gastuak.	(79.227)	(82.709)	(84.911)
Langileen soldatak eta irabaziak	Langileen eta exekutiboek kostua.	(46.896)	(50.111)	(51.468)
Kapital-hornitzaileei egindako ordainketak	Finantza-gastuak.	(15)	40	(55)
Administrazio Publikoari egindako ordainketak	Ekitaldian sortutako zergen gastuak.	(14.706)	(16.031)	(16.977)
Atxikitako balio ekonomikoa		(3.544)	(4.254)	(4.177)

Oharra: Eragiketa-kostuek tributuak barne hartzen dituzte

3. Enpresa | Ekonomia-jarduera

Sarrera publikoak

Zerbitzu publikoek, oro har, euren funtzionamendua azaltzen duen zeharkako inpaktu ekonomikoa sortzen dute. 'Ondasun publiko' gehienek gobernuen finantza-euskarria jasotzen dute, etengabeko funtzionamenduari eusteko eta haiengandik eratorritako gizartearentzako balioa sortzeko.

Adibiderik argienak dira, besteak beste, garraio publikoa, irrat-difusio bidezko zerbitzuak, osasun-prestazioak, hezkuntza eta gizarte garapen normalari laguntzen dioten bestelako jardura-esparruak. Memoria honen Audientzia atalean, EITBk sortutako zeharkako inpaktuak deskribatzen dira.

Jasotako dirulaguntzak

Ekitaldiaren emaitzari gehitutako ustiapen-dirulaguntzak


(milioika eurotan)



Informazio gehiago nahi izanez gero, xehetasun gehiago daude EITBren urteko kontuetan.

Balio-katea

Bere ikuspegia betetzeko egituratuta dago EITBren balio-katea, aldi berean bere osagaiekin harremanetan dagoela balioa sortzeko prozesuan.



3. Enpresa | Ekonomia-jarduera

Enpresa hornitzaileak

EITBren zerbitzuen, horniduren eta obren erosketek bi erregulazio-eredu desberdin bete behar dituzte, kontratazio publikorako eta beste kontratazio-prozedura batzuetarako ezarritakoak.

Ondasun eta zerbitzu arrunten eskuratzeak kontratazio publikorako ezarritako baldintzen arabera arautzen dira; ikus-entzunezko edukien kasuan, berriz, merkataritza-legeria aplikatzen da, Europako ikus-entzunezko baliabide publikoen jardunbide orokor gisa. Kontratazioaren ardura duen arloak -lege-sailaren euskarriarekin- bere gain hartzen du kontratuak betetzen direla kontrolatzea.

Azken hiru urteetako kontratazioek EITBk tokiko kontratazioan duen garrantzia erakusten dute; hori da, izan ere, erakundearen jasangarritasun-politiken funtsezko alderdietako bat.

Kontratuak

Behean, eta politika jasangarriekin bat eginez, GEKaren irizpideekin lotutako klausulak dituzten eta 2020an formalizatu diren kontratuak erakusten dira. Etorkizunean, irizpide horiek gero eta leku handiagoa izango dute, EITBren jasangarritasun-politikak erakundearen balio-kate osora hedatu ahal izateko.

EITBren gizarte-balioa

(milaka eurotan)

	2018	2019	2020
Urteko gastu globala	82.361	87.848	94.396
Lizitazio-espedienteen fakturazioa	22.694	24.715	22.375
Espediente txikien fakturazioa	4.560	4.273	4.015
Sektore Publikoko Kontratuen Legea guztira	27.254	28.988	26.390
Lizitazio publikoari buruzko kontratazioa*			
Formalizatutako lizitazio-espedienteen balio zenbatetsia	41.803	38.757	21.834
Kontratu txikien eskaeren zenbatekoa	2.583	2.430	3.280
Fakturazioaren %, euskal enpresei dagokienez**	% 77,20	% 77,97	% 78,04
Euskal enpresen fakturazioa	63.581	68.498	73.667
Fakturazioaren %, ikus-entzunezkoen euskal sektoreko enpresei dagokienez***	% 47,18	% 49,87	% 44,48
Ikus-entzunezkoen euskal sektoreko enpresen fakturazioa	38.859	43.813	41.987
Fakturazioaren %, euskal ekoiztetxei dagokienez***	% 30,79	% 34,01	% 32,32
Euskal ekoiztetxeen fakturazioa	25.361	29.873	30.513


* Espedienteetakoak ez diren eskaerak + kontratuen balio zenbatetsiak barne (luzapenak ere bai)

** Euskal Autonomia Erkidegoan zerga-egoitza duten enpresei dagozkien fakturak barne

*** Kontabilitateko kontu jakin batzuetako eta zerga-egoitza EAEn duten enpresei dagozkien fakturak barne

Jasangarritasun-irizpideekin egindako kontratuak

2020an eginak



Ingurumen-irizpideekin, balio zenbatetsia: 4.850.366 € (% 22,21 guztizkoarekiko)

Berdintasun-irizpideekin, balio zenbatetsia: 455.520 € (% 2,09 guztizkoarekiko)

Jasangarritasun-irizpiderik gabe.

Joan aurkibidera

4. Gobernu korporatiboa

- Gobernu-organoak
- Erakunde-egitura
- Plangintza estrategikoa
- Transformazioa digitala
- Estilo-liburua
- Betetzearen kudeaketa



4. Gobernu korporatiboa

Gobernu-organoak

EITBk gobernu korporatiboko bi organo nagusi ditu:

- **Administrazio Kontseilua:** EITBren Administrazio Kontseilua, XII. legegintzaldiari dagokiona, Eusko Legebiltzarrak izendatu zuen 2020ko azaroaren 19an, EITB sortzeko 5/1982 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hemeretzi kide ditu, eta Zuzendari Nagusiaren partaidetza ere bai. Kontseiluaren % 36,8 emakumeek osatzen dute.
- **Zuzendaritza Nagusia:** administratzaile bakar batek osatzen du -EITBko zuzendari nagusiak-, eta hura da ingurumenaren, gizartearen eta gobernu korporatiboaren arloetako erabaki-organo goren.

Aurreko Kontseilua 2020ko azaroaren 30era arte egon zen jardunean. Parte-hartzaileak hauek ziren: Iñigo Iturrate Ibarra, Iker Merodio Urbaneja, Manu Allende Arias, Arantza Rica Alvarez, Garbiñe Mendizabal Mendizabal, Andoni Etxebeste Iraeta, Beatriz Narbaiza Amillategi, J. Antonio Campos Granados, Fermin Munarriz Olloqui, Andeka Larrea Larrondo, Aiala Elorrieta Aguirre, Óscar Torres Lavid (kargua 2020ko otsailaren 21ean utzi zuen), Concha Aretxaga Iturregi, Amaya Fernandez Angulo, Susana Ciaurriz Goñi, Rosa Miren Pagola Petrirena, Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria, Diego Gonzalez Moyano, J. Koldo Nabaskues Simón eta Maite Iturbe Mendialdua / Andoni Aldekoa de la Torre. Maite Iturbe Mendialduak EITBko zuzendari nagusi izateari utzi zion, eta Andoni Aldekoa EITBko zuzendari nagusi izendatu zuten 2020ko urriaren 29an.


EITBko Administrazio Kontseiluaren osaera:

- Manuel Allende Arias
- Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria
- Miren Gallastegi Oyarzabal
- Pazis Garcia Ortega
- Arantza Gutierrez Paz
- Iñigo Iturrate Ibarra
- Andeka Larrea Larrondo
- Imanol Lasa Zeberio
- Jose Luis López García
- Juan Bautista Mendizabal Juaristi
- Garbiñe Mendizabal Mendizabal
- Iker Merodio Urbaneja
- Rakel Molina Pérez
- Fermin Munarriz Olloki
- Oscar Torres Lavid
- Nagore Uriarte Gallarreta
- Unai Urruzuno Urresti
- Jose Ignacio Zabaleta Urquiola
- Saioa Zubizarreta Elgezabal
- Andoni Aldekoa de la Torre



4. Gobernu korporatiboa

Erakunde-egitura



4. Gobernu korporatiboa

Plangintza estrategikoa

EITBk zerbitzu publikoaren prestazioaren ardatzen ikuspegi eguneratua ezartzen du bere [2017-2020 Plan Estrategikoan](#), hamar misio eta konpromisoren bidez, bere jardueraren adierazle nagusiekin batera.

Misio horiek lortzeko, EITBk definitutako zortzi ildo estrategikoen aukera emango diote kalitatezko informazioa bermatzeko, euskara sustatzeko, euskal kultura eta kirola sustatu eta zabaltzeko, ikus-entzunezko industria bultzatzeko, gizarte-kohesioa indartzeko eta informazioaren gizartea sustatzeko.

Gainera, ildo horiek gidatzat hartuko dira erakundeak [Bizikidetzak eta Giza Eskubideen 2017-2020 Planarekin](#) konprometituta jardun dezan; plana euskal erakundeek onetsia da.

EITBren ildo estrategikoak



4. Gobernu korporatiboa

Transformazioa digitala

Konektatutako pertsonen kopuruaren hazkunde esponentzialaren aurrean, komunikabideek eboluzionatu egin behar dute horri egokitzeko. Paradigmaren aldaketak erabiltzailea erdigunean jartzen du: produktuetan baino gehiago zerbitzuetan pentsatzera behartzen du.

Prozesu horrek, tresna digitalak ezartzeaz gain, transformazio kulturala dakar. Transformazio hori lortzeko, EITBk prozesu integratuen aldeko apustua egiten du, negozio konbentzionalean (telebista eta irratia) presentzia handia izateko, baina,aldi berean, alderdi digitalerantz argi eta garbi lerratzeko.

Lerratze hori lortzeak erakundea berrasmatzea eragingo du, ingurune lehiakor berri batean, konponbide teknologiko eraginkorrekin eta erabiltzaile zorrotzentzako edukien esperientzia bereziarekin. Proiektuaren erdigunean, komunikabidearen eta pertsonen arteko harreman zuzena ezartzen da, komunitateen eta edukien bidez.

Era berean, prozesuak kontsumo-ereduetara egokitu behar dira; horretarako, portaerak eta joerak sakonki ezagutu behar dira, eta kontuan hartu behar da konektatutako pertsonak aktiboak eta sortzaileak direla, iritzia ematen dutela, partekatzea gustatzen zaiela, kritikatzeko dutela, aukeratzen dakitela eta komunitateetan mugitzen direla. Lantaldeek eta prozesuek analisi-mekanismoak eta -tresnak behar dituzte gure erabiltzaileen ohitura-aldaketak detektatzeko, ezagutzeko eta aztertzeko, eta haiek eskatzen dituzten produktuei eta zerbitzuei aurrea hartzeko.

Ikuspegi teknologikotik, EITBk apustu egiten du edukien plataforma propioak (eitb.eus – APPak) bizkortzearen alde, telefona eta gailu konektatuei (finko nahiz mugikorrei) begira. Bestalde, edukiak Interneteko plataforma masiboetan argitaratzeko audientzia maximizatzeko eta esperientzia digital berriak sortzeko estrategia bultzatzen du, betiere EITBren nortasuna gordez.

Komunikazio-plataformak integratzen dituen eredu baten bidez, modalitate berri bat eskaintzen da, gizartean eragiteaz gain harremanetan ere eragingo duena –bai Euskal Herri mailan eta bai euskal diaspora mailan–, baita balio handiko edukiak eskura ditzakeen publiko global batengan ere.

Digitalizazio-prozesuaren barruan, EITBren edukiak produzitzen dituzten lantalde guztiek –barnekoek zein kanpokoek– diseinatzen diren unetik aurrera eskaintza digitalean agertzen diren kontsumo-formatuak tratatu ahal izateko behar den ezagutza izan behar dute.


Gainera, transformazio digitalaren prozesuak lanbide- eta antolaketa-garapenari buruzko ikuspegi berriak eskatzen ditu, ingurune digitalera egokitutako prozesuetan oinarrituta, bai eta izaera digitaleko lanbide berriak ere.

4. Gobernu korporatiboa | Transformazioa digitala

Transformazio-prozesua jarraipen-talde bat esleitzean datza, transformazioari arreta eta esparrua eskaintzeko. Prozesu-talde bat arduratzen da ideien formulazioaz eta jarraipen-taldeak berrikusitako ekintza-planean jasotzen diren helburuak ezartzeaz. Azkenik, ezarpena egiten da, eta etengabeko hobekuntza-prozesua abian jartzen da.


2020. urtean zehar, urrats nagusiak izan dira, alde batetik, haur- eta kirol-edukiei buruzko prozesu berriak proposatzea eta edukiei lotutako metadatuak estandarizatzea ahalbidetzen duen gida bat sortzea. Bestetik, albistegiaren eta gazte-edukien prozesuetako ekintza-plana hastea, lehenengo kasuan aurreikuspenen arduradunaren zeharkako figura gehituz, eta bigarren kasuan egunerokoak ez bezalako gazte-eduki digitalen arduraduna sartuz, gazteentzat estrategia digital espezifikoa ezartzeko zereginarekin, Youtubeko kanala barne.

Transformazio-prozesua



Aurrerapena

2020an, eduki-mota bakoitzean lortutako aurrerapenak hauek dira:



4. Gobernu korporatiboa

Estilo-liburua

Kazetaritzarekin lotutako auzi batzuek eztabaida sortzen dute komunikabideetako erredakzioetan. Normalean, zalantzak eta eztabaidak sortzen dira, baina halakoak eguneroko berehalakotasunarekin eta presarekin kudeatu behar izateak beharrezkoa egiten du eskuliburu bat, kazetaritza-jardunbidearen arauak eta informazioa tratatzeko irizpideak jasotzen dituen.

EITBren estilo-liburuak jarraibideak ematen dizkie euskal kazetaritzako profesional guztiei, independentzia-, erantzukizun- eta profesionaltasun-parametroak kontuan hartuz. Liburu hau prestatzean, hainbat eztabaida egin dira, eta horietan ehun profesional bakoitzak gehiagok parte hartu dute gatazka eta zalantzak sortzen dituzten kazetaritza-auzi nagusiak aztertzeke. Lan-prozesua komunikazioari eta estiloari buruzko Euskal Herriko Unibertsitateko profesional adituekin garatu da.


Estilo-liburuak informazio-tratamendurako jarraibideak ematen ditu auzi konplexuei begira: giza eskubideak, biktimen aitortza eta bakea, genero-ikuspegia, tragediak, hondamendiak eta istripuak, gatazka armatuak, gerrak eta terrorismoa, indarkeria matxista, immigrazioa, arrazakeria eta xenofobia, droga-mendekotasunak eta adikzioak, desgaitasuna eta gaixotasuna, adingabeak eta gazteak, suizidioa, delinkuentzia, polizia- eta epai-informazioa, eta garrantzi handiko beste gai asko.

Liburu multimedia bat da, praktika profesionaleko berariazko jarraibideak eskaintzen dituen gai askoren inguruan: informazio politikoa, titularrak, kronikak, elkarrizketak, adierazpenen hizkuntza-tratamendua, sare sozialak, izen-abizenak, toponimia, irudi-grabazioa, azpidatzi bidezko itzulpena, telebista-kredituak eta kazetaritzaren tresnei lotutako beste hainbat gai. Informazio-misioaren barruan kokatzen den tresna da, kalitate-parametro hauen bidez:

- informazioaren eta iritziaren arteko bereizketa
- informazioaren egiazkotasuna eta egiaztapena
- informazio-oreka ikuspuntu guztiekin
- inpartzialtasuna desorekarik eta joerarik gabe
- neutraltasuna gertakarietan inplikatu gabe
- independentzia presiorik gabe

Sinesgarritasuna lehentasunezko helburu iraunkortzat hartuta, EITBren estilo-liburu komunikazio-profesionalei, mundu akademikoari eta unibertsitatearen munduari eta komunikabideetatik jasotzen duen informazioaren kalitatean interesa duen edonori zuzenduta dago.

[2020an Estilo Liburuaren 3.](#) edizioa berrikusi eta argitaratu da.



4. Gobernu korporatiboa

Betetzearen kudeaketa

Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoentzat ezarritako eskakizunak betetzen ditu EITBk. Horretarako, segurtasun juridikoko sistemak ditu bere esku, interes-taldeen ongizatea eta eskubideak bermatzeko eta arauzko ingurunean kokatzeko.

Arriskuak egoki kudeatzeko eta arauak betetzen direla ziurtatzeko, EITBk arriskuen kudeaketarako eta barne-kontrolerako sistema bat du, helburu hauek betetzen direla ziurtatzeko:

- Helburu estrategikoen garapena eta jarraipena.
- Eragiketen eraginkortasuna eta efizientzia.
- Finantzei eta eragiketei buruzko informazioaren fidagarritasuna.
- Aktiboen babesa.
- Aplikatzekoak diren politikak, prozedurak, legeak eta arauak betetzea eta horren berri ematea.
- Markaren irudia eta ospea.

Etika eta Jokabide Kodea

Etika eta Jokabide Kodeari esker, EITBk oinarri ona du betetze-sistemak eraikitzeke. Kode honek Delituak Prebenitzeko Planaren eraginkortasun osoa bermatzen du, eta erakundearen izen onaren balioa indartzen du. Horrela, Etika eta Jokabide Kodearen helburu nagusietako bat da EITBren etikan, balioetan eta jarduketa-printzipioetan oinarritutako betetze-kultura irakasten eta horri eusten lortzea.

[EITBren Etika eta Jokabide Kodea eta langileentzat gaitutako salaketa-kanalak EITB Taldearen Delituak Prebenitzeko Plana aplikatzeko Erregelamenduan arautzen dira, eta balio hauetan oinarritzen da: giza eskubideak, berdintasuna eta aniztasuna, legezketasuna, profesionaltasuna eta erantzukizuna.](#)

Delituak prebenitzeko sistema

2020ko ekitaldiko Delituak Prebenitzeko Planari buruzko prestakuntza eta kontzientziazioa

Ezarpen-prozesuan diseinatutako DPParen edukiari buruzko prestakuntzak organigramako zuzendaritza-taldera (goi-zuzendaritza, zuzendaritza eta kudeaketa-taldea) mugatzen zuen prestakuntza emateko betebeharra, eta etxeko gainerako langileentzat borondatezko prestakuntza-saioak ere aurreikusten zituen.

Prestakuntza jaso behar ez zuten pertsonen kopurua txikia izan zenez, erabaki zen bigarren prestakuntza-fase bat formatu irisgarrietan eta kontrolagarrietan (bideo-pilulak sarbide- eta jarraipen-kontrolekin, ezagutza-proba txikiak, etab.) diseinatzea, 2020an zehar prestakuntza-kanpaina berri bat egiteko.

Hala ere, covid-19ak eragindako krisiak izugarri zaildu du bigarren prestakuntza-fase hori kudeatzeko aukera, eta, beraz, ezin izan da egin ekitaldi honetan zehar. Prestakuntza-prozesu horri berriro ekin beharko zaio 2021eko ekitaldian zehar.

4. Gobernu korporatiboa | Betetze kudeaketa

2020an zehar, Kontrol Organo Independenteak (KOI)³ sustatuta eta Giza Baliabideen Sailaren Trebakuntza Arloak kudeatuta, jabetza intelektualeko eskubideei eta norberaren irudirako eskubideei buruzko prestakuntza-saio bat egin da (DBLOn jasotako araudiarekin lotuta). Kanpoko abokatu bat kontratatu da prestakuntza hori emateko. Ordu eta erdiko online saioa eman zuen (bideoa EITBren intranetean dago), informazio-pilulak landu zituen (intranetean eskuragarri), eta azalpen-dosier bat egin zuen, bi arlo horietan ez-betetzetik ez gertatzeko beharrezkoa den informazioarekin.

2021eko ekitalditik aurrera, KOIren kontrola areagotu egin beharko da horrelako ez-betetzeei dagokionez, eta zehapenak ezarri beharko dira (DPParen Erregelamenduaren arabera) ez-betetzeen kasuan. Txosten honetan azaldu den bezala, jabetza intelektualari buruzko araudia, DBLO eta pertsona guztien norberaren irudirako oinarritzko eskubidea betetzen direla bermatzeko prozedura bat ezartzeko aukera aztertzen ari da.

Hain garrantzitsuak diren gai horietan prestakuntza-arloan 2020k aurkeztu dituen erronken arabera, beharrezkoa da prestakuntza-ekintzak indartzea 2021eko ekitaldian, prestakuntza-plan bat diseinatzuz eta exekutatzuz.

2021eko ekitaldian Delituak Prebenitzeko Planean egin beharreko hobekuntzak planteatzea, EITB Taldean duten eraginkortasuna eta ezarpen-maila optimizatzeak.

DPP tresna bizia da, eta, beraz, etengabeko arreta eta eguneratzea behar ditu. Helburu horrekin, hainbat neurri planteatu dira 2021erako:

a) DPParen arloko prestakuntza/kontzientziazio-plan bat definitzea eta erakundean exekutatzeko (prestakuntza- eta kontzientziazio-planaren definizioa: 2021eko lehen hiruhilekoa / prestakuntza- eta kontzientziazio-planaren exekuzioa: urteko gainerako hilabeteak).

b) Nahitaezko prestakuntza zabaltzea eta Zuzendaritza Taldetik harago kontzientziazioa. Zuzendaritza-taldeko kide ez diren langile-taldearen planari atxikitzeak aukera (prestakuntza-planaren diseinua: 2021eko lehen hiruhilekoa / prestakuntza-planaren exekuzioa: 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoak).

c) Kontrol-mekanismo jakin batzuk ezartzea (adibidez, kontratazio publikoari lotutako fakturazioari – bereziki kontratu txikien kasuan– edo gardentasun-araudiarekiko legezkotasuna betetzeari dagokionez, etab.) eta betetzen direla monitorizatzea.

d) KOIren kontrol-eremuan prozedura berrien eta prozedura berrien ezarpenen hobekuntzak sartzea (adibidez, Giza Baliabideen eta Kontratazioaren arloetan), DPParen edukia egokitzeak.

e) KOIren kontrolaren/ezagutzaren esparruan barne-auditoretzako prozedurak sartzea eta prozedura jakin batzuei buruzko barne-auditoretzako kontrol espezifikoak diseinatzea.

f) AENOR ziurtagiria prestatzen hastea UNE 19601 (Delituen Prebentzioaren Kudeaketa) eta ISO 37001 (Eroskeriaren aurkako Kudeaketa) arauetan, 2022ko ekitaldian ziurtagiria lortzeko.

4. Gobernu korporatiboa | Betetze kudeaketa

Kontrol-organoak

EITBk kontrol-organo hauek ditu delituak prebenitzeko neurri gisa (besteak beste, ustelkeriaren eta eroskeriaren prebentzioa).

Kontrol-organoak:

- Ogasun Sailaren aurrekontu-kontrola.
- Legebiltzarreko EITBren Kontrol Batzordea.
- Administrazio Kontseilua.
- Programa-kontratuaren Jarraipen Batzordea.
- Funtzio Publikoaren Kontrola
- Negoziario Kolektiboari buruz.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- Urteko kontuen audiotretza eta informazio ez-finantzarioaren egoeraren egiaztapena.
- Kanpo-auditoretzak kudeaketa-sistemei (ISO ziurtagiriak eta beste batzuk).
- Kontrol Organo Independentea (KOI).

Horrez gain, EITBren Etika eta Jokabide Kodeak, erakundeak merkatuarekin eta hirugarrenekin dituen konpromisoak dagokienez, esplizituki gaitzesten du eroskeria mota oro, eta berariaz debekatzen die langileei hirugarrenen ordainketa edo opari bidegabeak jasotzea nahiz halakoak ematea.

Era berean, horren alde azaltzen dira opari-politika eta merkatu librearen eta lehiaren arauak urra ditzaketen egoerak prebenitzeko beste mekanismo batzuk.

Autorregulazioa

EITB bere borondatez dago Autocontrol elkartearen. Merkataritza Komunikazioaren Autorregulaziorako Elkartea (Autocontrol) 1995eko irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, eta Espainiako publizitate-autorregulaziorako sistema kudeatzeaz arduratzen da.

EITBk bermatzen du autorregulazio-akordioak beteko dituela, bere hedabide guztiei (telebista, irratia eta Internet) aplikatu beharreko arauen arabera, EBren gomendioei eta Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrari jarraituz publizitatea ematearekin zerikusia duen guztian.

2020an ez zen izan publizitate-arloko eztabaidak edo erreklamazioak ebazteko beharrik, ez eta datuen babesarekin eta pribatutasunarekin lotutako gorabeherarik ere. Iragarkien edo iragarki-proiektuen lege- eta deontologia-berrikuspenari dagokionez, aztertutako zazpi kasuetan ez zen aurkitu alderdi negatiborik, eta lau kasutan aldatzeko gomendioak egin ziren. Berdintasunaren arloan ez zen aurkeztu sexu-bereizkeriagatiko publizitateekin lotutako erreklamazio edo gorabeherarik.

AUTOCONTROL elkartearen EASaren (European Advertising Standards Alliance) eta ICASen (International Council for A Self-Regulation) partaidea da, eta, gainera, egiaztatu du Lehia Desleialaren Legeak autorregulazio-sistemarako ezarritako baldintzak betetzen dituela.


Joan aurkibidera

5. Pertsonen

- Jarduketa-ildoak
- Enplegua
- Lanaren antolamendua
- Segurtasuna eta Osasuna
- Elkarriketa soziala eta lan-harremanak
- Prestakuntza eta garapen profesionala
- Aniztasuna eta berdintasuna
- Desgaitasuna
- Hezkuntza-harremanak



5. Pertsonen



Pertsonen Ardatza EITBren Plan Estrategikoaren oinarrian dauden ildoetako bat da. Ardatz honen eginkizuna da erakundea osatzen duten pertsona guztien artean ikuspegi partekatua eraikitzea, enpresa-proiektua komunikatzea, urteko kudeaketa-planak ezartzea eta barne-antolaketa transformazio digitalaren aro berrira egokitzea.

Horrek ekarri du lan-prozesuen antolamendua aldatzea, EITBko lantaldea osatzen duten pertsonen mobilizazioaren eta motibazioaren bidez, horretarako behar diren bitartekoak eta gizarte-akordioak gaituz.

Izan ere, lan-ingurune osasungarria funtsezkoa da talentua behar bezala kudeatzeko eta atxikitzeko. EITBk lan egiten du bere lantaldeari bere garapen pertsonal eta profesionalerako baldintzarik onenak eskaintzeko, eta, horrela, proiektu partekatu bat duten pertsona trebeek osatutako lan-ingurunea lortzeko.

5. Pertsonen

Giza lantaldea

EITB erakunde heldua da, profesional trebeek osatua, eta ilusioz egiten dio aurre etorkizunari, ikus-entzunezko sektorean erreferente eta lider izaten jarraitzeko.

Jarduketa-ildoak

Covid-19aren kudeaketak markatu du 2020a. Bestalde, Lan Harremanen normalizazioak eta negoziazio kolektiboa berraktibatzeak fruituak eman dituzte eta akordioak eragin dituzte bake sozialeko une batetik. Hona hemen lortutako mugarri nagusiak:



Egitura

- 2019an egin zen Lan Deialdi Publikoaren ondorioz, 2020an arlo teknikoan eskainitako hamabost plazetatik hamabi esleitu ditu EITBk.
- EITB Media - TBn hainbat negoziazio abiatu dira egitura-plantillari buruz eta lan-denborak antolatzeari buruz. EITB Media - Irratian akordioa dago 2019az geroztik hainbat kategoria profesionaleko egiturazko plantilla negoziatzeko; akordio hori 2021eko abenduaren 31 baino lehen egingo da.



Sozietatea

- Sozietate-integrazioaren ondoren, bai EITB herri-erakundeak eta bai gaur egun EITB Media osatzen duten negozio-unitateek (TBk, irratiak eta Internetek) euren egitura eta antolakuntza mantendu dituzte, eta, beraz, bakoitzak bere hitzarmen kolektiboarekin eta langileen legezko ordezkaritzaarekin jarduten jarraitzen du.
- 2020an hainbat akordio lortu dira negoziazio kolektiboaren esparruaren barruan, ordaindutako lizentziei, lanaldi-murrizketen ordutegi-zehaztapenari, lan-ordutegiei eta lan-poltsari buruz.



Laneko arriskuen prebentzioa eta covid-19^a

- 2020an EITBk indartu eta berrantolatu du Segurtasun eta Osasun Taldea, teknikari koordinatzaile bat jarritz Miramongo lantokian.
- EITBn lan egiten duten pertsonentzako lan-baldintza onenak sortzeko asmoarekin, erakundeak ISO45000 ziurtagiria lortu du 2020an, laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemetarako nazioarteko araua.
- Covid-19aren pandemiaren hasieran, EITBk Jarraipen Batzorde bat eratu zuen, eta, horren ondorioz, gaur egun indarrean jarraitzen duen langile guztiei aplikatu beharreko prebentzio-, antolamendu- eta komunikazio-neurriak biltzen dituen ekintza-plan bat onartu zuen.

5. Pertsonen

Enplegua

2020ko abenduaren 31n, EITBk 1.178 langile zituen, eta plantilla egonkor mantendu da 2019arekiko.

2019an, EITBk berriro ekin zion sailkapenerako eta garapen profesionalerako proiektuari plantillaren antolamendua erakundea garatzen ari den integrazio-eragiketaren ondoren sortutako sozietate-egiturara eta transformazio digitaleko eredura egokitzeko. Horren ondorioz, 2019an akordio bat sinatu zen Enpresa Batzordeekin, eta lau talde profesional eta hiru arlo funtzional finkatu ziren sailkapen profesional berriari begira.

Gainera, 2019an EITB herri-erakundearen lanpostuen definizio berri bat prestatu zen, metodologia parte-hartzaile batekin, eta langileen legezko ordezkaritzak berretsi zuen. Era berean, 2020an EITBko Zuzendaritzak eta Buruzagitzek hiru negozio-unitateetako (TB, irratia eta Internet) lanpostuak birdefinitzeko prozesu bati ekin diote, zerbitzu profesionalen kanpoko enpresa baten laguntzarekin. Proposamenak negoziazio kolektiboko prozesu bat hasteko oinarriak jarriko ditu.




5. Pertsonen | Enplegua

Memoria honen ondorioetarako, kategoria profesionalak hiru taldetan egituratu dira. Lehenengoak goi-zuzendaritza eta arloko zuzendaritzak biltzen ditu (% 1,44); bigarrenak zuzendariordetzak eta buruzagitzak (% 4,41); eta hirugarrenak hitzarmen kolektibo desberdinei atxikitako erantzukizun profesionalak eta laguntza-taldeak (% 94,14).

Hona EITBren plantillak 2020ko abenduaren 31n zuen banaketa, generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera:

Modu osagarrian, sozietate bakoitzeko (EITB herri-erakundea eta EITB Media) langileen banaketa erakusten da beheko grafikoan, negozio-unitatearen arabera banakatuta (telebista, irratia eta Internet).



Plantillako langileen banaketa generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera

	Lang	18-30	31-50	>50	Zuzendaritza		Zuzendarior. / Buruzagitzak		Profesionalak	
	kop.	urte (%)	urte (%)	urte (%)	G (%)	E (%)	G (%)	E (%)	G (%)	E (%)
2019	1.182	10,49	41,96	47,55	0,93	0,51	3,05	1,52	50,34	43,65
2020	1.178	9,93	40,32	49,75	0,93	0,51	2,89	1,44	50,25	43,89
ald (%)	-0,34	-0,56	-1,64	2,20	0,00	0,00	-0,16	-0,08	-0,08	0,23

G: gizonak, E: emakumeak

5. Pertsonen | Enplegua

Kontratu-modalitateak

Plantilla kontratu-modalitateen arabera banatzeari dagokionez, EITBko langileen % 73,6k kontratu mugagabea zuen memoria hau ixtean, eta % 26,4k aldi baterako kontratua. Langile guztien % 10,4 lanaldi partzialeko kontratuarekin zegoen, eta % 89,6 lanaldi osoko kontratuarekin.

Indarrean dagoen legeriarekin eta Europako zuzentarauekin bat etorritik, plantillaren egonkortasuna sustatzeko eta behin-behinekotasuna murrizteko, eta lan-deialdi publikorik gabeko urteen ondoren, EITBk hamabost plaza eskaini zituen 2019an arlo teknikoan; horietatik, hamabi 2020an esleitu dira, eta gainerako hirurak hutsik geratu dira. Gainera, irratik eta TBko negozio-unitateen egiturazko plantilla negozio-azio-prozesuan dago gaur egun, dagokion lan-deialdi publikoa egiteko.

Era berean, adierazi behar da 2020an lan-poltsako araudi berri bat onartu dela EITB Media – Interneterako. EITB Media – TB eta EITB – Media negozio-unitateetan, dagokion araudia negozio-azio-prozesuan dago gaur egun.

Taula honetan, 2020ko abenduaren 31ko plantillaren banaketa adierazten da, kontratu-modalitatearen, generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera:

2020ko plantilla kontratu-modalitatearen, generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera

	18-30 urte		31-50 urte		>50 urte	
Lanaldi osoko kontratu mugagabea	G	E	G	E	G	E
Zuzendaritza	-	-	4	3	6	3
Zuzendarior. / Buruzagitza	1	-	9	8	25	9
Profesionalak	4	2	137	147	244	178
Guztira	5	2	150	158	275	190
Guztirasionalakrtzialeko kontratu mugagabea	G	E	G	E	G	E
Zuzendaritza	-	-	-	-	1	-
Profesionalak	1	1	2	6	59	17
Guztira	1	1	2	6	60	17
Lanaldi osoko aldi baterako kontratua	G	E	G	E	G	E
Profesionalak	47	45	67	75	20	21
Guztira	47	45	67	75	20	21
Guztirasionalakaleko aldi baterako kontratua	G	E	G	E	G	E
Profesionalak	5	11	5	12	1	2
Guztira	5	11	5	12	1	2

5. Pertsonen | Enplegua

Ordainsariak

Besteren konturako enplegatu guztiei aplikatu beharreko EITBren ordainsari-politika -plantilla finkoa osatzen duten erantzukizun-karguak barne- EITB herri-erakundean eta hiru negozio-unitateetan indarrean dauden lau hitzarmen kolektiboetan jasotako xedapenen arabera arautzen da. Hitzarmen horietan, halaber, soldata-osagarri jakin batzuk ezartzen dira, oinarrizko soldatari irizpide hauen arabera gehituta: antzinatasuna, erantzukizuna, ordutegi-prestasuna, txanda bereziak, aparteko orduak eta bestelakoak (jangela, etab.).

EITB herri-erakundean, 2019an sailkapen profesional berria eta lanpostuen definizioa onetsi ondoren, 2020an abian dauden eta gaur egun indarrean dauden lanbide hitzartuen ordainsari-sistemaren negoziazio kolektiboa hasi da.

Zuzendaritza-kideen ordainsariak

Aurrekoarekin lotuta, izendapen askeko zuzendaritza-kideak, Zuzendaritzak definitutako organigramaren arabera, aipatutako hitzarmen kolektiboen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira, salbu eta berriaz aplikazio-eremuaren barruan jarraitu nahi dutela adierazten duten plantillako pertsonen kasuan, ahal den neurrian.

Zuzendariei dagokienez, sinatutako kontratuek berriaz xedatzen dute izendapen askeko eta banantzeko akordioak direla, EITB sortzeko 5/1982 Legearen 40.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (martxoaren 27ko 8/1998 Legeak aldatu zuen lege hori), eta, beraz, hitzarmen aplikagarriaren irismenetik kanpo daudela.

EITBko zuzendaritza-taldearen soldata-politika bat dator EAEko gobernua sektore publiko osorako ezartzen duen soldata-politikarekin.

EITBko goi-zuzendaritzako karguen ordainsaria EAEko Administrazio Orokorraren mendeko erakunde eta sozietate publikoei aplikatu beharreko legezko araudian xedatutakoaren arabera arautuko da. Gainerako zuzendaritza-karguen (beste zuzendaritza batzuen, zuzendariordetzen eta buruzagitzen) ordainsaria goi-zuzendaritzarako ezarritako legezko mugen azpitik dago, eta egokia da EITBren eta haren sozietateen hitzarmen kolektiboetan hitzartutako soldata-mailei dagokienez buruzagitza horien erantzukizunpean eta agintepean dauden langileentzat.



5. Pertsonen | Enplegua


Plantillako ordainsariak

Behean, EITBren plantilla osoaren 2020ko batez besteko ordainsariaren datuak, generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera, hau da, jasotako soldata gordina zati lanaldi osoko batez besteko langile baliokideekin (LOB)⁴. Beheko grafikoak plantillaren batez besteko ordainsaria erakusten du, adinaren eta erantzukizun profesionalaren arabera, milaka eurotan adierazita⁵.

Goiko grafikoan emandako datuak osatzeko, EITBko plantillaren 2020ko batez besteko ordainsaria erantsi da, generoaren eta erantzukizun profesionalaren arabera, milaka eurotan adierazita.


Langileen batez besteko ordainsaria adinaren eta erantzukizun profesionalaren arabera

■ 18-30 urte ■ 31-50 urte ■ > 50 urte



Langileen batez besteko ordainsaria generoaren eta erantzukizun profesionalaren arabera

■ Emakumeak ■ Gizonak



4. 2020ko EITBko batez besteko langileak 1.059,3 LOB izan dira.

5. Zuzendaritza" kategorian ez dago 18tik 30era urte bitarteko profesionalik. "Zuzendariordetzak/Buruzagitza" kategorian adin-tarte horretan pertsona bakarra dago; beraz, ezin da jasotako ordainsariaren berri eman datu pertsonalen babesa urratu gabe.

5. Pertsonen | Enplegua

Soldata-arrakala

Generoaren arabera ordainsariaren analisis sakontzeko, Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundeak) berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko emandako kalkulu-jarraibideei jarraituz kalkulatu du soldata-arrakala EITBk.

(Gizonen urteko batez besteko ordainsari gordina – emakumeen urteko batez besteko ordainsari gordina) x 100

Gizonen urteko batez besteko ordainsari gordina

Aurrekoari dagokionez, adierazi behar da 2020an Emakunderen kalkulu-irizpideak zabaldu egin direla, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuari -enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrienari- egokitzeke.

EITBren soldata-arrakala -2020rako irizpide horren arabera egindako kalkuluaren emaitza- % 3,86koa da, eta ez da aldakuntza nabarmenik gertatu 2019ko soldata-arrakalarekiko (% 3,24). Erantzukizun profesionalengatik, Zuzendaritzak soldata-arrakala negatiboa du, -% 7,47rekin. Zuzendariordeztan eta buruzagitzetan eta profesioaletan soldata-arrakala positiboan mantendu da, % 3,81 eta % 2,26ko balioekin.

Aurrekoari dagokionez, aipatu behar da duela gutxi onetsitako EITBko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planeko (2019-2022) jarduketako ildoetan zenbait ekintza jasotzen direla Giza Baliabideen Zuzendaritzak EITBko gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasuna zaintzeko.

Administrazio Kontseiluaren ordainsaria

Lehen aipatutakoaren arabera, hemeretzi pertsonak osatzen zuten 2020ko abenduaren 31n EITBko Administrazio Kontseilua: zazpi emakumek eta hamabi gizonak, gehi zuzendari nagusiak. Urtean Administrazio Kontseiluak 96.242 euroko zenbatekoa sortu du, soldata, dieta eta bileretara joateagatik. Kontseilua osatzen duten pertsonen aplikatzen zaizkien baldintza ekonomikoak homogeneoak dira bi generoetarako:

- Ezarritako hileko ordainsari finko gordina, aplikatu behar denean, 467,39 eurokoa da.
- Saio bakoitzera joateagatik dieta 194,54 eurokoa da.
- 2020ko joan-etorrien gastuak 2.487,39 eurokoak izan dira.

%3,86

Soldata-
arrakala
2020

- Generoaren arabera bereizitako plantilla-datuen adierazleen kalkulua sistematizatzea eta automatizatzea Berdintasunerako Planaren agintetara elikatzeke eta txostenak egitea eta aldian-aldian informazioa ematea, indarrean dagoen legeriaren eta hartutako beste konpromiso batzuen arabera.
- Datu-baseetako informazioa egituratzeko baliatutako kategoriak berrelikatzea, datuak ustiatu ahal izateko indarrean dagoen legeria (soldata-arrakalari buruzkoa) betetzeko.
- Soldata-arrakalaren bilakaera monitorizatzea eta inpaktu-faktoreak sakonago aztertzea, neurri zuzentzaileak proposatu ahal izateko.



Berdintasun
Plana
2019-2022

5. Pertsonen | Enplegua

Laneko ongizatea

Izan Ongi ekimenaren helburua da EITBn ongizatea eta lan-bizitzaren kalitatea sustatzea. Lan-ongizateko barne-politikak aktibatzean eta lan-giro positiboa bultzatzeko praktika berritzaileak aplikatzean datza proiektua, erakundea osatzen duten pertsonak erdigunean jarritz beti. Zehazki, hamar jarduketa-lerrotan egituratzen da, eta hauek dira:



5. Pertsonen

Lanaren antolamendua

Urteko lanaldia eta lan-denboraren antolamendua EITBren herri-erakundean eta negozio-unitateetan indarrean dauden lau hitzarmen kolektiboetan jasotzen dira. Hitzarmen horietan, lan-txandak, ordu-tarteak eta lanaldiaren antolaketarekin lotutako gainerako gaiak egituratzen dira.

Ikus-entzunezko baliabideen izaera espezifiko delako eta, Zuzendaritzak zerbitzuaren beharrei erantzuteko aplikatzakeen zenbait malgutasun-neurri aurreikusten dira hitzarmenetan. Neurri horiek ordutegi-prestasunari, txanda irregularreko lanaldiei eta abarri dagozkien, eta bakoitzak bere soldata-osagarria dauka. Plangintzaren ataletik –Giza Baliabideen Sailaren mendeko atala da– pertsona bakoitzari lanaldirik egokiena esleitzen zaio, bere prestasunaren eta indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan horri buruz ezarritako baldintzen arabera. Lehen aipatutako neurriei esker, behin-behineko kontratazioa murriztea lortu da.

Erakundearen jardueren izaera kontuan hartuta, bereziki EITB Media - TBn, beharrezkoa da ordutegien antolamenduak, banaketak eta aplikazioak lan zehatzen arretak eskatzen duen malgutasuna eta mugikortasuna ahalbidetzea, lan horiek aldakorrak baitira, eta ez beti aurreikusteko modukoak. 2020an erabaki da, negozio-kolektiboaren bidez, negozio-unitate horren hitzarmen kolektiboan goizeko ordutegi berri bat sartzea, eta lan-denboraren antolamenduari buruzko negoziazio-prozesu bati ekin zaio.

Honako ordutegi-modalitate hauek ezarri dira EITBn:

- Lanaldi zatitua
- Lanaldi jarraitua
- Astebeteko lanaldi trinkoa
- Lau eguneko lanaldia (EITB Media - TBn bakarrik)
- Laneko ordu-tarteen lanaldia (EITB Media -TBn bakarrik)

EITB Media -TBn, ordutegien modalitateek aldaketak izaten dituzten kasuetan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren 18. artikuluan ezarritakoaren bidez arautzen da ordutegien eta lanaldien malgutasuna. Era berean, txanda irregularrak, lan bereziak eta abar dituzten pertsonentzat eta ordutegi-prestasunak dituztenentzat (1., 2. eta 3. mailakoak), lotutako osagarriak ezartzen dira, eta horiek denbora libre bihurtu daitezke, langileak hala eskatuz gero.

5. Pertsonen | Lanaren antolamendua

Covid-19a dela-eta hartutako antolamendu-neurriak

2020ko martxoaz geroztik, covid-19ak eragindako osasun-egoeraren aurrean, EITBk neurri berriak hartu ditu antolamenduari, mugikortasunari, ekoizpenari eta harremanei dagokienez bere profesionalen osasuna babesteko, eta erakundeak herritarrei eskaintzen dien zerbitzu publikoaren kalitatea ere bai.

Ezarritako antolamendu-neurriak bi premisatan oinarrituta definitu dira::

1. EITBko instalazioetan langileen presentzia minimizatzea:

- Ikusleak eta bisitak kentzea eta gonbidatuen eta kolaboratzaileen asistentzia ahalik eta gehien murriztea.
- Telelana aplikatzea, baldin eta lanpostuak horretarako aukera ematen badu, bereziki sentikorrak diren eta familia eta lana bateratzeko beharrak dituzten pertsonen lehentasunarekin.
- Kanpoan lan egiten duten langileek nahitaez itxaron behar dute instalazioetatik kanpo.

2. Lantaldeen estankotasuna ziurtatzea.

- Txandak, jardunaldiak eta lan-ordutegiak berrantolatzea, taldeak bat etor ez daitezen.
- Funtsezko lanpostuak identifikatzea eta ad hoc kontingentzia-planak egitea.

Ezarritako neurrien ondorioz, konfinamendu-aldian herri-erakundeak eta EITB Media - Interneten plantilla ia-ia osoak etxetik lan egin zuen, eta EITB Media - Irratian aurrez aurreko jarduera eta telelana uztartu ziren.

EITB Median - TBn, ekoizpenari eragin zion bereziki konfinamenduak. 2020ko martxoaren 26an, EITBk akordio bat lortu zuen langileen legezko ordezkariarekin: osasun-larrialdiko egoerak irauten duen bitartean, salbuespen gisa, eta denbora-tarte horretarako bakarrik, hitzarmen kolektiboaren aplikazio osoa ondorerik gabe geratuko da lanaldiak eta eskuragarritasunak aplikatzeari dagokionez.

Alde horretatik, berariaz adostu dira:

- Instalazioetan modu presentzialean zerbitzua eman behar duten lantaldeen ordutegiak.
- 50 ordu arteko online prestakuntza euren etxeetan konfinatutako langileentzat, jarduera-maila jaistearen ondorioz planifikatuta ez egoteagatik.
- Etxean konfinatutako pertsonentzako guardien sistema bat, behin prestakuntzako 50 orduak agortu ondoren. Sistema horrek ezartzen du pertsona hori zein ordutan egongo den eskuragarri, eta instalazioetan presentzialki lan egiteko planifikatu ahal izango zaio, zerbitzuak hala eskatzen duenean, inolako konpentsaziorik gabe, eta benetan lan egindako lanaldi gisa erabili ez den guardiako lanaldi bakoitzaren % 55 zenbatuko da.

Neurri horiek guztiak aplikatzera egokitzeko prozesuak ahalegin handia eskatu dio erakunde osoari, baina aberasgarria ere izan da, agerian utzi duelako pertsonen elkartasuna eta aukera eman digulako lan-metodologia, antolamendu-modu eta lan-malgutasunerako formula berriak esploratzeko.

5. Pertsonen | Lanaren antolamendua

Familia eta lana kontziliatzeko neurriak

EITBren negozio-unitate desberdinetan indarrean dauden hitzarmen kolektiboek hainbat neurri jasotzen dituzte, familia eta lana kontziliatzea errazteko eta bi gurasoen jardura erantzunkidea sustatzeko helburua dutenak. Ildo horretatik ezarritako neurriak antzekoak dira hitzarmen guztietan.

2020an, 144 pertsonak hartu zituzten kontziliazio-neurriak; 96 emakumeak izan ziren, hau da, guztizkoaren % 67. 2019an, 134 pertsonak hartu zituzten (93 emakumek, % 69). Beraz, egiazta daiteke EITBn kontziliazioak batez ere emakumeen esku egoten jarraitzen duela, gizartean oro har gertatzen den moduan.

Neurri ohikoenak hauek dira: seme-alabak zaintzeko lanaldia murriztea/eszedentzia hartzea, jaiotzagatiko bajak (amatasuna/aitatasuna) eta edoskitze-baimena. Aitzitik, mendekotasuna duten beste familiarteko batzuk zaintzeko eszedentziek eta lanaldi-murrizketek eragin txikiagoa dute; nolana ere, horietako gehienak ere emakumeek baliatzen dituzte.

Kontziliazio-neurriak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	Kop ^o	%	Kop ^o	%	Kop ^o	%
Bularreko haurra zaintzeko baimena	11	11,46	7	14,58	18	12,50
Jaiotzagatiko baja (amatasuna/aitatasuna)	15	15,63	13	27,08	28	19,44
Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	44	45,83	18	37,50	62	43,06
Familiartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa	2	2,08	2	4,17	4	2,78
Seme-alabak zaintzeko eszedentzia	17	17,71	5	10,42	22	15,28
Guztiraiartekoak zaintzeko eszedentzia	7	7,29	3	6,25	10	6,94
Guztira	96	100,00	48	100,00	144	100,00

5. Pertsonen

Segurtasuna eta Osasuna

EITBren lantokien kokapenak eta egindako eragiketen izaerak ez dakarte osasunerako arrisku nabarmenik, eta, beraz, ez dago gaixotasun profesionalen eragin edo arrisku handiko lanposturik. Bestalde, EITBk eremu geografiko jakin batzuei buruz arrisku handirik ez dakarten eremuetako korrespontsalia-zerbitzuen bidez informatzen du.

EITBk laneko arriskuen prebentziorako politika bat du, erakundean lan egiten duten pertsonen osasuna modu egokian babesten dela bermatzeko. Osasunaren eta Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak Giza Baliabideen Zuzendaritzatik kudeatzen du zuzenean, eta koordinazio-eginkizunak ditu egoitzetan eta korrespontsalietan.

Era berean, erakundeak modulu espezifiko bat du Zero Paper kudeaketa-sistemaren baitan 2019tik. Modulu horrek aukera ematen du laneko istripuak eta gorabeherak ikertzeko, norbera babesteko ekipamenduak entregatu eta kontrolatzeko, laneko arriskuei, produktu kimikoei, fitxa operatiboiei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa zabaltzeko, eta, Ikasguneren bidez -EITBrako plataforma birtuala-, aurrez egindako prebentzio-diagnostikoaren arabera beharrezkoa den laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prestakuntza kudeatzeko.

2020an, baja eragin duten hamar lan-istripu gertatu dira guztira, eta ez da laneko gaixotasunen kasurik erregistratu. Baja eragin duten lan-istripuen eta kontingentzia arrunten ondoriozko absentismo-orduak 151.214 izan dira; horietatik 80.976 emakumeei dagozkie, eta 70.238 gizonei. Halaber, beheko taulan 2018, 2019 eta 2020ko lan-istripuei buruzko kudeaketa-adierazle nagusiak agertzen dira, batez beste⁶:

	2018	2019	2020
Laneko gaixotasunen tasa	0,00	0,00	0,00
Baja eragin duten istripuen tasa ⁽¹⁾	1,13	1,09	1,18
Emakumeak	0,56	1,88	1,83
Gizonak	1,57	0,44	1,08
Galdutako egunen tasa⁽²⁾	19,88	23,71	48,80
Emakumeak	9,29	46,80	78,52
Gizonak	28,34	4,84	24,34
Hildakoak	0	0	0
Absentismo-tasa⁽³⁾	7.516	7.292	11.062
Emakumeak	9.121	8.940	13.123
Gizonak	10.068	9.602	15.127
Larritasun-indizea ⁽⁴⁾	0,10	0,12	0,24
Emakumeak	0,05	0,23	0,39
Gizonak	0,14	0,02	0,12
Maiztasun-indizea⁽⁵⁾	5,63	5,44	5,91
Gizonakak	2,82	9,41	9,16
Gizonak	7,87	2,20	5,38

6. Adierazleak kalkulatzeko, GRI G3.1 Adierazleen Protokoloan ezarritako irizpideak erabili dira:
(1) 200.000 x baja eragin duten istripuen kopurua/Plantillak lan egindako orduen kopurua.
(2) 200.000 x bajagatik (istripua edo gaixotasuna) galdutako egunen kopurua/Plantillak lan egindako orduen kopurua.
(3) 200.000 x bajagatik (istripua edo gaixotasuna) galdutako egunen kopurua/Plantillak lan egindako egunen kopurua.
(4) Bajadun lanaldian izandako istripuen kopurua/Plantillak lan egindako orduen kopurua x 1.000.000.
(5) Lanaldian izandako istripuak eragindako baja-egunen kopurua/Plantillak lan egindako orduen kopurua x 1.000.

Aurreko taulari dagokionez, aipatu behar da absentismo-tasaren igoera 2019tik 2020ra bitartean (+% 51,70) covid-19aren ondorio dela.

5. Pertsonen | Segurtasuna eta Osasuna

Covid-19a dela-eta hartutako prebentzio-neurriak

Koronabirusaren pandemiak eragindako osasun-krisia hasi zenean, EITBk Jarraipen Batzorde bat eratu zuen, segurtasun- eta osasun-taldea eta Zuzendaritza Nagusia buru zituela. 2020ko martxoaren 9tik eta deseskalatzea amaitu arte 2020ko ekainaren amaieran, Segurtasun Batzordeak eguneroko bilerak egin zituen, eta, ondoren, bileren maiztasuna pandemiaren bilakaeraren mende egon da.

Pandemiaren hasieratik EITBk plantillaren osasuna babesteko hartutako neurriei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira:

Neurri profilaktikoak

- Sarreretako tenperatura-kontrola.
- Igogailuen erabilera indibidualaren adierazpena eta Bilboko lantokian garajetik oinezkoentzako sarbidea gaitzea.
- Instalazioetan norabide-seinale horizontalak jartzea.
- Lanpostuetako, zona komunetako eta sarbideetako garbiketa-zerbitzua indartzea, bereziki txanden artean, eta desinfekzioa, beharrezkotzat jo denean.

- Aurrez identifikatutako hainbat puntutan higie-ne materiala eskuragarri jartzea material partekatua desinfektatzeko erabili aurretik eta ondoren eta autoak ozono bidez desinfektatzea.
- Langileei musuko garbigarriak hornitzea.
- Instalazioen barruan egiten diren joan-etorrietan musukoa nahitaez erabili beharra, dekretu bidez indarrean jarri aurretik.
- Segurtasun-distantzia: pertikak kanpoaldeetan elkarriketak egiten dituzten pertsonentzat, lan-espazioak berrantolatzea eta instalazioetan itxiturak jartzea, 1,5 metroko distantzia mantenduz. Distantzia hori betetzea bermatu ezin den kasuetan, Fpp2 musukoak hornitu dira.
- Salmenta-makinak konfinamendu-hilabeteetan ixtea. Gaur egun irekita daude, baina araudi murriztailea dute, aglomeraziorik onartzen ez duena.
- Distantzia-neurriak, itxiturak jartzea eta jantokietako elementu komunak kentzea.
- Tutorialak erabili eta botatzeko produktuekin automakillatzeari eta ile-apaintzeari buruz.

Komunikazio-neurriak

- Covid-19aren protokoloa prestatzea kanpoko instalazio eta guneetarako xehetasun guztiekin; arau-aldaketa bakoitzarekin berrikusten da.
- Asteko komunikazioa segurtasun- eta osasun-ordezkariekin.
- Covid-19ari buruzko albisteak eta metatutako kasu positiboak buruzko datuak argitaratzea EITBren barne-plataforman (Tortolika).
- Covid-19ari buruzko albisteak eta arriskuak prebenitzeko neurrien eguneratzeak langile guztiei posta elektronikoz bidaltzea.
- Posta elektronikoen coronavirus@eitb.eus postontzia plantillaren pandemiarekin lotutako edozein inguruabarri buruzko barne-komunikazioak bideratzeko.
- Kanpoko enpresekin koordinatzea eta protokoloak trukatzeko.
- “2 metro” kanpaina Tortolikan.
- EITBn lan egiten duten pertsonei zuzendutako informazio-hitzaldiak.

5. Pertsonen | Segurtasuna eta Osasuna

Osasunaren zaintza eta medikuntza asistentziala

EITBk osasuna zaintzeko aldizkako azterketa medikoak eskaintzen dizkio plantilla osoari hainbat arlotan.

2005. urteaz geroztik, Laneko Arriskuen eta Osasunaren Prebentzio Zerbitzuak osasun-zerbitzu asistentzialaren bidez koordinatzen ditu azterketa ginekologiko osagarriak, eta 40 urtetik gorako langileei eskatzen die azterketa horiek egiteko, Osakidetza (Euskal Osasun Zerbitzuak) estaltzen ez duen adin-tartea osatzeko. Gainera, 2020tik, EITBk azterketa urologikoa egiteko aukera eskaintzen die erakundean lan egiten duten 50 urtetik gorako gizonezko profesionali.

Halaber, EITBk beste laguntza mota batzuk ere eskaintzen ditu, hala nola azterketa otorrinolaringologikoak, esfortzu-probak eta kontsulta psikologikoa; Bilboko eta Miramongo zentroetan medikuntza asistentziala (medikua eta erizaina) ere eskaintzen du.

Gainera, 2020an, covid-19aren pandemia agertu ondoren, erakundeak postontzi elektronikoa bat dauka (coronavirus@eitb.eus), profesional guztiei zuzenduta, koronabirusarekin lotutako edozein gorabehera (positiboak, testa, kontaktu estuak, sintomatologiak, altak eta bajak...).

Giza Baliabideen Sailari jakinarazteko. Kasu positibo bat ezagutuz gero, Giza Baliabideen Sailean kontaktuen jarraipenarekin hasiko da, eta, ohiko kontaktu bat egonez gero, EITBren osasun-arloak prebentzio-test bat egiteko eskatuko dio zerbitzu medikoari.

Elkarrizketa soziala eta negozioazio kolektiboa laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan

Segurtasun eta Osasun Batzordeek⁷ Laneko Arriskuen Prebentzio Planak eta Laneko Arriskuen eta Osasunaren Prebentzio Zerbitzuak egindako memoriak aztertu eta partekatzen dituzte. Era berean, segurtasunaren eta osasunaren arloan ezarritako ekintza guztien berri ematen zaie Segurtasun eta Osasun Batzordeei, eta, hala dagokionean, prebentzio-ordezkariz izendatutako pertsonen ere bai (neurketak, ikuskapenak eta ikerketak eginez ekintzak ezartzen parte hartzen dutenei, hain zuzen). EITB herri-erakundean eta EITB Mediaren hiru negozio-unitateetan indarrean dauden hitzarmen kolektiboek segurtasunaren eta osasunaren arloan formalizatutako akordioetako batzuk jasotzen dituzte, Segurtasun eta Osasun Batzordearen aktez gain.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren 31/95 Legean xedatutakoa betez, Segurtasun eta Osasun Batzordeek deialdiak egiten dituzte hiru hilean behin. Deialdietan jorratutako eta adostutako gaiak jasotzen dituzten aktak erakunde independente batek egiaztatuko ditu urtero, dagokion urteko auditoretzaren esparruan (ISO45001), EITBren prebentzio-jardura osatzen duten gainerako elementuekin batera.

Koronabirusaren pandemiaren kudeaketarekin agerian geratu da EITBren Laneko Arriskuen Prebentziorako kudeaketa-sistema integratuak modu eraginkorrean funtzionatu duela. Izan ere, hori izan da EITBren lan-arriskuen prebentziorako sistemaren indarguneetako bat, kanpo-auditoretzaz arduratzen den enpresaren iritzia arabera.

EITBren lan-arriskuen prebentzio-sistemaren indarguneetako bat, auditoretza-enpresaren iritzia arabera, Zero Paper kudeaketa-sistemaren barruan garatutako prebentzio-modulua da, gardentasuna eta moldakortasuna eskaintzen dituen.

7. Gaur egun, EITBk lau Segurtasun eta Osasun Batzorde ditu. Horietako bat herri-erakundeari dagokio, eta gainerako hirurak EITB Media osatzen duten hiru negozio-unitateei (TB, irratia eta Internet). Batzorde bakoitzak bere sozietateko edo negozio-unitateko langileen % 100 ordezkatzen du.

5. Pertsonen

Elkarrizketa soziala eta lan-harremanak

Aurten ere elkarrizketa soziala eta negozioazio kolektiboa funtsezkoak izan dira akordio onak lortzeko orduan, EITBren eta erakundean lan egiten duten pertsonen arteko harremanak sendotzeko. Sozietate-integrazioa gauzatu ondoren, Giza Baliabideen Sailak -EITB herri-erakundeko enpresa-batzordeekin eta EITB Media osatzen duten hiru negozio-unitateekin batera-sozietateen hitzarmen bateginak prestatu eta balioztatu ditu.

Lehen aipatu den bezala, 2020an hainbat akordio lortu dira egiturazko plantillari, lan-poltsari, ordaindutako lizentziei eta ordutegiei eta lanaldiei dagokienez. Era berean, aurrera egin da herri-erakundearen ordainsari-sistemaren negozioazioan eta EITB Mediako lanpostuen definizioan.

Prestakuntza eta garapen profesionala


EITBren etengabeko prestakuntzaren helburu nagusia erakundearen negozio-unitateak osatzen dituzten profesionalen taldea gaitzea da, edukiak, teknologia eta kudeaketaren ekoizpen-jardueran.

2020an, covid-19aren ondorioz martxotik ekainera bitartean egin behar izan zen konfinamendua dela-eta, Prestakuntza Arloak aukera izan du online ikasketa-metodologiarekin esperimentatzeko, eta oso emaitza onak izan ditu. Ildo horretan, aldi horretan emandako prestakuntzak laneko arriskuen prebentzioan jarri du arreta (kargak manipulatzeko, datuak bistaratzeko pantailak, etab.).

Gainera, Izan Ongi ekimenetik pertsonen lan-ongizatea hobetzeko hainbat prestakuntza-praktika ezartzen jarraitu da, hainbat alderdi azpimarratuz: komunikazio-trebetasunak, arazoaren konponketa, sormena...

2020an, EITBko plantillari emandako prestakuntza-orduak 16.359 izan ziren; hau da, % 65,16 gehiago 2019an (9.905 ordu) baino.

Grafikoan, erantzukizun profesionalaren arabera emandako prestakuntza-orduen kopurua xehatuta agertzen da. Ikusten denez, profesionalena da ordu gehien dituen eta plantillaren gehiena hartzen duen maila.



5. Pertsonen | Prestakuntza eta garapen profesionala

Halaber, beheko grafikoan pertsona bakoitzak emandako prestakuntza-orduen batezbestekoa erakusten da, erantzukizun profesionalaren eta generoaren arabera banakatuta. Ildo horretatik, erantzukizun profesionalaren hiru mailetak bakar batean ere ez dago alde nabarmenik bi generoen artean, baina prestakuntza handiagoa ikusten da emakumeengan kategoria guztietan.

Bestalde, EITBk prestakuntzarako gizarte-onurak eskaintzen dizkie erakundeko langileei, hala nola prestakuntza-programetan izena emateko dirulaguntzak eta seme-alabentzako ikasketa-bekak. Gizarte-onura horietarako 32.810,76 euro eta 17.830,80 euro erabili ziren 2020an, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du % 15,84ko eta % 5,59ko hazkundea izan dela 2019an erabilitako zenbatekoen aldean.


Azkenik, Prestakuntza Arloak eta EITBko Kudeatzailtzak Garapen Profesionalaren Sistema berri bat diseinatu dute, lanpostu bakoitzerako karrera profesionalak garatzeko ibilbideak argi eta garbi egin ahal izateko.

13,46

prestakuntza-ordu
pertsona
bakoitzeko

Emandako prestakuntza-orduen batez bestekoa

■ Emakumeak ■ Gizonak



5. Pertsonen

Aniztasuna eta berdintasuna

EITBk aukera-berdintasunaren aldeko konpromiso sendoa du, eta aniztasuna, inklusioa, gardentasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza... nagusi diren testuinguruak bultzatzen ditu.

2011n, Genero-berdintasunerako lehen Plana martxan jarri zen, eta 2019an [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana](#), erakundeak esparru horretan jarduteko lau urterako dituen lehentasunak biltzen dituenena. Aurreko planak bezala, zeharkakoa da; beraz, identifikatutako helburuek enpresako ia atal guztiei eragiten diete, eta haien arduradunei dagokie plan horiek abian jartzea. EITBko Berdintasun Batzordea da Berdintasun Plana kudeatzeko eta bultzatzeko erantzukizuna duen organoa, eta Zuzendaritzak eta sozietate guztien ordezkaritza sozialak osatzen dute.

EITBren Berdintasun Planek lege-garapenei erantzuten diete. Onetsitako planak euskal sektore publikorako erakunde-gidalerroak garatzen ditu, Emakunderen (Emakumearen Euskal Erakundea) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII.

Planetik datozenak. EITBk urtero ematen dio Emakunderi, beste erakunde batzuekin batera, Planaren barruan egindako jarduketari berri.

EITBren plan bakoitza alde aurreko egoeraren diagnostiko baten ondoren diseinatu da, Emakundek markatutako jarraibideen arabera. Hirugarren planaren diseinuak faktore hauek hartu zituen kontuan:

- Estrategia eta politikak: nola zehazten den EITBren estrategian eta kulturaren erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin duen konpromisoa.
- Pertsonen kudeaketa: emakumeek eta gizonek EITB osoan eta talde profesional bakoitzean duten presentziaren oreka aztertzea; eta langileek aukera-berdintasuna bermatzen duten lan-baldintzak ote dituzten aztertzea.
- Berdintasunari buruzko pertzepzioa: EITBren genero-berdintasunari dagokionez iritziari eta pertzepzioari buruzko azterlana.
- Edukiak: EITBren eduki guztietan genero-ikuspegia zeharka aplikatzera bideratutako ekintzak aztertzea.

Urte hauetan, berdintasunaren arloan ekintzak garatzeko eta ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren oinarriak eta egiturak definitzera eta modelatzera bideratutako jarduketa-ildoak lehenetsi dira. Hirugarren Planak helburuen progresioari eusten dio, aurretik hasitako ekintzak finkatuz; izan ere, aktibatu diren ekintzek epe luzerako helburuak dituzte.

2020an, Berdintasun Planak eta beren erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Ordainsari-berdintasunaren urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua argitaratu zirenetik, EITBk berdintasunaren arloko jardueraren alderdi bat arau-esparru berria betetzeko hartu beharreko neurrien prestakuntza eta azterketan oinarritu da.

5. Pertsonen | Aniztasuna eta berdintasuna

Genero-berdintasunaren adierazleak

Erakundeak berdintasunarekin duen konpromisoaren erakusgarri da, halaber, pertsonen buruzko datu-baseetan genero-aldagaia biltzea. Izan ere, EITBk langileei buruzko adierazleak jaso, aztertu eta jakinarazteko bere sistemak garatzen ditu, genero-ikuspegia aplikatuta.

Hizkera inklusiboaren erabilera

EITB hizkuntza inklusiboa txertatzen ari da berak sortutako erakunde- eta komunikazio-dokumentu ugarietan - barnekoetan nahiz publikoetan-, gizonen eta emakumeen ikusgaitasuna ekartzeko.

2020an, erakundeak hizkuntza zuzentzen jarraitu du negozio-unitate desberdinen hitzarmenetan. Zuzenketa horiek, nagusiki, gaztelaniazko testuetan egin dira, baina euskararen ere eragina izan dute; izan ere, helburua ez da soilik maskulinoa generiko gisa erabiltzea saihestea: familia-eredu berriak sartzen eta gizonen eta emakumeen zaintzan erantzunkidetasuna izaten laguntzen duten termino berriak erabiltzea ere bai.

Sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa

Pertsonen duintasuna errespetatzearren eta pertsonen eskubideak babestearren printzipioa kontuan hartuta, EITBk, prebentzioz, zero tolerantziaren protokoloa du sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko portaeren aurrean, baita zuzeneko diskriminazioaren bat dakarten portaeren aurrean ere.

2018tik 2020ra bitartean, EITBk sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren ekintzak eta jokabideak falta astun edo oso astun gisa sartu ditu negozio-unitate desberdinen hitzarmen kolektiboetan, zehapen-araubidearen barruan (IX. kapitulua).

2020an ez da sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren ondoriozko salaketarik egin, eta, beraz, protokoloa ez da aktibatu behar izan.



5. Pertsonen

Desgaitasuna

EITBren zentro guztiek (Bilbo, Gasteiz, Miramon eta Iruñea) betetzen dute desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasun-araudia.

Desgaitasuna duten pertsonen enplegurako eta irisgarritasun unibertsalerako hartutako neurriei dagokienez, adierazi behar da lan-deialdi publikoetan erreserba-ehuneko bat ezartzen dela. Hala ere, lanpostuak hutsik geratzen badira, lan-zentro bereziekin egindako hitzarmenen bidez beteko dira lanpostu horiek.

Hezkuntza-harremanak

Gazteen prestakuntza akademikoa eta laneratzea errazteko, EITBk hitzarmenak egin ohi ditu unibertsitateekin eta ikastetxeekin. 2020ko ikasturtean, 120 pertsonak parte hartu dute EITBn hezkuntza-lankidetzako beketan, prestakuntza dualeko beketan eta lantokietako prestakuntza-beketan. 120 pertsona horietatik, 98 gradu-profilekoak dira, eta gainerako 22ak lanbide-heziketako profilekoak.

Partaidetza-maila 2019ko ikasturtean izandakoaren antzeko mailan mantendu da. Hala ere, 2020an alarma-egoerak eragina izan du lankidetzak-hitzarmenen egutegian, eta 2020ko martxoaren 12an lankidetzak-hitzarmen guztiak bertan behera utzi ziren. Hitzarmen horiei berriro heldu zitzairen 2020ko uztailaren 1ean, eta, kasu guztietan, EITBk aukera eskaini zien bekadunei 2020ko uztailetik aurrera edo hurrengo ikasturtean praktikei berriz ekiteko.

EITBk euskal ikastetxeekiko aliantzei eusten die, eta partaide gisa sendotzen ari da ezagutza praktikoa eta ikasleak mundu profesionalera gehiago hurbiltzea bultzatzeko helburu bateratuan. Era berean, euskal ikasleen talentuaz elikatzen da, eta gizarteari itzultzen dio pertsona horiek EITBtik igarotzean eskuratzen duten ezagutza praktikoaren potentziala.

2020an, EITBk 25 ikastetxe itunduren lankidetzak izan du EITBekin beka eta prestakuntza-praktikak egiteko: parte-hartzaileen gogobetetzea 8,8 (tutoreak) eta 9,2 (bekadunak) mailetara iritsi zen 1etik 10era bitarteko eskalan.

“Unitalent - EITB” sariak/bekak

2020an Unitalent-EITB sarien bigarren edizioa egin da, EITBren, ikus-entzunezko sektorearen eta unibertsitateen arteko lankidetzak-proiektua, talentua identifikatzera eta erakartzera eta telebistarako proiektuen sorkuntzan eta ekoizpenean garatzea sustatzera bideratuta. Bigarren edizio honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU), Mondragon Unibertsitateko (MU) eta Deustuko Unibertsitateko ikasleek parte hartu dute, eta guztira 79 proiektu aurkeztu dituzte hiru kategoriatan: entretenimendua, fikzioa, “faktuala” / dokumentalak. Aurreko edizioan bezala, saritutako proiektuak bederatzi izan dira, hiru proiektu lehen aipatutako kategoria bakoitzean.

Unitalent-EITB sariak urtero ematen dira. Sektoreko enpresetan praktika ordainduak emateko beka dira, EITBrentzat era desberdinetako programak ekoizten dituztenak, normalean ekoizpen asoziatu gisa. Edizio bakoitzari dagozkion jarduerak bi ikasturtetan egiten dira. 2019-2020ko ikasturtean, proiektuak prestatu, aurkeztu eta hautatu ziren, eta sariak eman ziren. 2020-2021 ikasturtean gozatzen ari dira ikasle saridunak beka horiek. Gainera, 2020ko urtariletik abuztura bitartean, aurreko edizioan saritutako hiru ikasleek praktikak egin zituzten.

2020an, koronabirusaren pandemia agertu ondoren, lan-data eta -metodologia batzuk doitu dira unibertsitateekin koordinatuta; horri esker, proiektua arrakastaz amaitu ahal izan da, eta ikasle guztiek euren praktikak eraman ahal izan dituzte aurrera. Azken balioespena oso gogobetekoa izan da bai EITBrentzat eta bai inplikaturako alderdi guztientzat.

5. Personas | Hezkuntza-harremanak

Applika (US17/40) eta Applika+ (US20/21)

Applika ikerketa-proiektua Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan aurkeztutako proiektua da, Unibertsitatea-Gizartea 2017 (US17/40) programaren barruan; 2017-2020 aldian garatu da. Proiektuaren helburua zen unibertsitateko ikasleen ikus-entzunezko kontsumoa aztertzea, baita ondorengo ikus-entzunezko eduki berrien diseinuan eta sorkuntzan aplikatzea ere.

2019ko udaberrian, Ikusiker ikerketa-panela sortu zen, UPV/EHUko 800 ikasle inguruk osatua, gazteen artean gailentzen den ikus-entzunezko kontsumoa ikertzeko. Ikerketaren emaitzak hainbat txostenetan argitaratu ziren (eta hainbat hizkuntzatan: euskara, gaztelania eta ingelesa) <https://ikusiker.eus/webgunean>, eta hitzaldi, kongresu eta foro akademiko eta profesionaletan zabaltu ziren, Euskadin, Espainiako Estatuan eta nazioartean.

Applika+ Applika proiektuaren jarraipena da, eta, hasierako proiektua bezala, UPV/EHUko Unibertsitatea-Gizartea programaren barruan aurkeztutako ikerketa-ekimena da, kasu honetan 2020ko edizioari dagokiona (US20/21). Proiektua 2020ko azaroan hasi zen, bi urteko iraupena du, eta 2022an amaituko da. Aurrekontua 72.000 eurokoa da guztira. EITBk bai finantzaketan eta bai UPV-EHUko ikerketa-taldean parte hartzen du. Gainera, edizio berri honetan bi eragile laguntzaile gehitu dira: TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa eta Kulturaren Euskal Behatokia (Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila).

“Applika+: Ikus-entzunezko sorkuntza eta erabileraren arteko zubia” proiektuak ikus-entzunezko edukien sorreraren eta erabileraren arteko zubiak sortzea du helburu, titulu generikoak adierazten duen bezala. Horretarako, unibertsitateko gazteen erabilerak eta ohiturak aztertu eta analizatu nahi dira eta halakoak formatu eta eduki berrien sorkuntzan aplikatu. Helburu horrekin eta aurreko proiektuan ezarritako jarraibideei jarraituz, Applika+ proiektuak Ikusiker ikerketa-panela mantentzen du -2020an zehar aktibo egon da-, zortzi inkestarekin eta inkestei dagozkien txostenekin.

Era berean, bi lan-ildo berri gehitu dira: ikus-entzunezko eduki desberdinak probatzeko laborategi bat (Ikustest) eta formatuen eta joeren bilaketa eta jarraipena egiteko kontaktu-sare bat (Ikusarea). 2020ko azarotik aurrera egindako inkestak eta txostenak eta aipatutako lan-/ikerketa-lerro berriein lotutako jarduerak Applika+ proiektu berriaren barruan kokatzen dira jada.

UPV/EHU-EITB Multimedia Komunikazioa Masterra

EITBk eta Euskal Herriko Unibertsitateak urtero antolatzen dute UPV/EHU-EITB Multimedia Komunikazioa Masterra. Oso-osorik euskaraz ematen den mota horretako master bakarra da. Programa zuzenduta dago orain dela gutxi gradu mailako unibertsitate-ikasketak amaitu dituzten eta arlo horretan prestakuntza gehigarria eta espezializatua lortzeko interesa duten pertsonen eta aurreko urteetan unibertsitate-ikasketak amaitu zituzten eta komunikabideetan lan egin duten edo gaur egun egiten duten baina gaiari buruzko ezagutzak eguneratu edo zabaltu nahi dituzten profesionalei.

2020-2021 ikasturtean, UPV/EHU-EITB Multimedia Komunikazioa Masterraren 12. edizioa egin da. Masterrean 21 pertsona matrikulatu dira, eta libre zeuden plaza kopurua bete da. Ikasturte honetako ikasleak unibertsitateko diziplina eta diziplina profesional desberdinetatik datoz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde desberdinetakoak dira.

Masterrek urtebeteko iraupena du. UPV/EHUko irakasleek emandako prestakuntza akademikoa eta hainbat gaitan adituak diren EITBko profesionalek eskaintako prestakuntza konbinatzen ditu. Horrez gain, hainbat enpresarako praktikak ere eskaintzen ditu. Ildo horretatik, EITBk bere jardueraren hainbat sail eta arlotan praktika ordainduak egiteko aukera eskaintzen die programako parte-hartzaileei. Gainera, prestakuntza-saio gehienak Bilboko EITBren egoitzan ematen dira, eta horrek ikasleen eta erakundearen arteko harreman zuzenagoa bultzatzen du.

Era berean, garrantzitsua da adieraztea unibertsitate-master honetako 60 kredituek, behin amaitu ondoren, doktoregoko ikasketak egiteko aukera ematen dutela. Prestakuntza teorikoaren eta praktikoaren konbinazioak eta prestakuntza-prozesuan akademikoek nahiz profesionalek parte-hartzeak erraztu egiten dute parte-hartzaileak eremu profesionalean sartzeko eta espezializatzea.

6. Herritarren

- EITB MARATOIA
- Komunitatearekiko harremana
- Giza Eskubideak



6. Herritarren

Pandemia-testuinguruan, Taldeak harremana duen erakunde asko –Eusko Jaurilaritzarekin lotutako erakunde politikoak, esate baterako– mantendu ahal izan dira, baina kultura-izaerako beste batzuek, berriz, geratu behar izan dute, esaterako, kontzertuek edo Euskadiko orkestra sinfonikoak. Hala ere, EITBk frogatu du malgua izaten eta agertoki berrira egokitzen dakiela: kanpaina korporatiboak egin dira koronabirusari buruzko gomendioekin, adineko pertsonen arreta lehenetsia emateko, osasun-kolektiboari kemena onartzeko eta tokiko merkataritzari eta kulturari laguntzeko.

EITBrentzat, gizartearekiko harremana eta interakzioa baliabide publiko gisa duen sendotasunaren funtsezko alderdiak dira. Covid-19ak eragindako pandemia dela-eta, aurtan EITBk modu desberdinean erlazionatu behar izan du gizarte-eragile desberdinekin, baina aldi berean oso hurbil egon da, eta gizarte aurreratu eta kohesionatu bat sustatzen jarraitu du, aniztasuna bermatuz eta neurketa-atributu hauek kontuan hartuz:

Audientzia. Audientzia neurtzen eta aztertzen da, besteak beste, kontaktu-kuantifikazioaren bidez, telebista- eta irrati-programen eguneroko audientziaren bidez, eta eitb.eus webgunearen eguneroko eta hileko erabiltzaile bakarren kopuruaren eta kontsumoaren bidez, erakunde independenteek ([CIES](#), [Comscore](#), [OJD](#)...) emandako datuetan oinarrituta. 2020an EITB liderra izan da informazioan, eta inoizko kopuruak lortu ditu Interneten. Informazio-lidergoa –kanalaren helburu nagusietako bat– sendotu egin da krisian zehar. Horrek esan nahi du, albistegien multzoari dagokionez, audientzia % 30 baino gehiago igotzea. eitb.eus webguneak bere marka gaitzitu du: martxoan 7,6 milioi erabiltzaile izatera iritsi da.

Zerbitzu Publikoa. EITBk sustatutako irudi- eta marka-azterlanaren bidez, EITBk zerbitzu publiko gisa dituen atributuak aztertzen dira, hala nola irudiaren eta markaren posizioa eta edukiak. Aurtan ekimen bereziak jarri dira martxan hedabide desberdinetan zerbitzu publikoaren bokazio argiarekin, irakaskuntza eta haur-edukien eskaintza indartzeko, Covid-19ari buruzko berri faltsuak detektatzeko, kultura indartzeko, pandemiaren egoerari buruz kontzientziatzeko eitb.eus-en [#EtxeanGeratukoNaiz](#) ekimenarekin eta adinekoen osasun fisikoa eta emozionala sustatzeko.

Zerbitzu Publikoaren misioaren betetze-maila. Alderdi hau funtsezkoa da eta [EITB sortzeko 5/1982 Legeak](#) ezartzen du. Ekitaldi bakoitzean, Programa-kontratuaren Betearazpenari buruzko txosten bat dago, EITBk eta Eusko Jaurilaritzak osatutako Jarraipen Organoak egindako ebaluazioarekin.

6. Herritarren

EITB MARATOIA

2020an EITBk urtero antolatzen duen EITB Maratoiaren hogeita batgarren edizioa izan da. Gaixotasun larrietara bideratutako gizarte-proiektu solidario handiena da, gaixo horiei ikusgarritasuna emateko, gizartea gaixotasun horiei buruz sensibilizatzeko eta elkartasunari dei egiteko.


Jakina, oraingoan EITB Maratoia covid-19aren aurkako borrokan zentratu zen, euskal gizartearen parte-hartze eta inplikazio handia lortuz.

Edizio guztietan bezala, gizarte-ekintza horrek eta EITBk helburu bikoitza du: gaixotasunari buruz kontzientziaztea eta pandemiari aurre egiteko ikerketara bideratutako funtsak biltzea.

Azkenean, urte zaila izan arren, 808.987 euro biltzea lortu zen.

Era berean, beti bezala, kanpainen herritar guztien eta, oro har, gizarte osoaren lankidetzak aktiboa bilatzen da. Kasu honetan, epidemiak sortu dizkigun sentimenduei modu original batean eman zitzaizen ahotsa, orain arte inoiz egin ez den bezala: bertsolaritzaren bidez, Euskadin oso errotutako kultura-formula den aldetik.

Jendearen erantzuna ezohikoa izan da. Ia 1.700 bertso zituen kate bat egitea lortu zen. Horietatik 600 EITBra bidali zituzten [herritarrek grabatutako bideo](#) gisa, eta 1.000 online bertso baino gehiago jaso ziren gaixotasun horren aurkako ikerketaren alde Osakidetzaren BIOEF Osasun Ikerketarako Euskal Institutuaren bidez.



6. Herritarren

Komunitatearekiko harremana

2020ko otsailaren 28an covid-19aren lehen bi kasuak detektatu ondoren, euskal herritarrek EITBren parte hartzen eta elkarrekin jarduten zuten gizarte-jarduera eta -ekitaldi batzuk eten behar izan ziren, osasun publikoa salbu mantentzeko. Ekitaldiei, jaiei eta harreman publikoetako ekimenei lotutako harreman-alderdia eremu digitaleko beste aukera batzuekin ordeztu zen.

EITB Maratoia mantendu ahal izan da, baina ez Gastroshow, BBK Live eta EITB Jaia: ezin izan dira egin urteroko formatu berarekin. Horren orde, streaming bidezko kontzertuak eta formatu eta dimentsio txikiagoko ekitaldiak egin dira. Zuzeneko emankizun-sistemak aukera eman zuen hamabi kontzertu baino gehiago emititzeko Bilboko BBK aretoarekin, Vital Fundazioarekin eta Gaztearekin lankidetzan. Gazteak, bere 30. urteurrena zela-eta, euskal artista eta talde garrantzitsuak hartu zituen: Nogen, Gatibu, Zetak, ETS, Izaro... Era berean, parte-hartze handia izan zuten kultura-jarduera batzuk ere egin ahal izan ziren: Zinemaldia, FesTVal (Gasteizko Telebista Jaialdia)...

Era berean, EITBk Bilboko, Donostiako eta Gasteizko bere instalazioetara antolatu ohi dituen bisitak eta platoko eta programetako parte-hartze guztiak eten behar izan ziren martxoan; beraz, 2020an lortutako parte-hartzearen datuak erabat baldintzatuta egon dira covid-19a dela-eta, eta urtariletik martxora arteko parte-hartzea islatzen dute.

Hala ere, 2020an egin ziren bisiten artean, Miramongo egoitzako publikoko parte-hartzaileek 5etik 4,69 eta 4,94 punturekin balioetsi zituzten EITBren programak.

	2017	2018	2019	2020
Bisita gidatuak	7.741	6.962	7.570	2.913
Programetako gonbidatuak eta artistak	9.729	9.339	9.327	7.220
Programetako publikoa	18.684	14.997	15.680	3.202
Guztira	36.154	31.298	32.577	13.335

Era berean, EITB saiatu da -ahal izan den neurrian- pertsona horiengandik gertuago egoten, informazio-, hezkuntza- eta entretenimendu-estaldura handiaren bidez eta emozioen kudeaketa kolektiboa bultzatzen, ikus-entzunezkoen orotariko programazioa eskainiz.

Azkenik, aipatu behar da pandemiaren testuinguruak komunikazio-ekintza eta izaera emozionaleko kanpaina ugari antolatzea bultzatu zuela EITB, zirrara kolektiboa kudeatzeko -berrogeialdiko hilabeteetan batez ere- eta ekimen publikoei laguntzeko. Ildo horretan, lan garrantzitsua egin zen kontzientziazio-kanpainetan eta osasun-gomendioetan, musukoak erabiltzeari, muturreko larritasun-egoeran dauden adinekoekiko elkartasunari edo tokiko merkataritzari emandako laguntzari buruzko kanpainetan.

6. Herritarren | Komunitatearekiko harremana

2020an egindako kanpainak

Mota	Kanpaina	Merkaturatze-data
Osasun-arlokoa	Prebentziozko aholkuak: musukoa - distantzia	2020/03/12
	Aholku berriak: espazio txikiak aireztatuta mantentzeko beharra.	2020ko abendua
Herritarrei laguntzea	"Guztion artean lortuko dugu" kanpaina, animatzeko eta pandemiaren aurrean irmo jarraitzen laguntzeko	2020/03/24
Tokiko merkataritzari eta kulturari laguntzea	Orain erosi zure auzoko dendetan	2020/04/21
	Kulturarekin bat	2020/05/27
	Hurbileko merkataritzak gure bizitza animatzen du	2020/12/09




Irabazi-asmorik gabeko fundazio eta erakundeentzako ekarpenak

Irabazi-asmorik gabeko fundazio eta erakundeentzako ekarpenak egiteko hainbat formula daude EITBn. Ekarpen horien balioespena, diru-terminoetan eta ezarritako kontratuetan oinarrituta, 774.876 eurokoa izan da 2020an. Hauek izan dira onuradunak: Artium Museoa, San Telmo Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Guggenheim-Bilbao Museoa, Euskadi Kirola Fundazioa, Musika Hamabostaldia, Euskadiko Orkestra, Donostiako Zinemaldia, Euskal Herriko Ikastolak, Kursaal Zentroa eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila..

Elkarte- edo babesletza-ekintzei buruzko informazioa

Komunikazio-enpresa garen aldetik, laguntza ematen diegu gizarte-ospea edo komunikabideetan eragina izatea behar duten elkarte, erakunde eta antolakundeei, euren kabuz ordainpeko publizitate-plangintzarik egin ezin dutenean. Horregatik, truke horiek EITBren Gizarte Erantzukizunaren esparruan kokatzen dira.



6. Herritarren | Komunitatearekiko harremana

Sariak eta aintzatespenak

Radio Euskadiko Eva Caballero kazetariak Fundación Instituto Roche-k emandako Kazetaritza Saria jaso zuen Doitasunezko Medikuntza Pertsonalizatuan, ikus-entzunezkoen kategorian. Zehazki, "La Mecánica del Caracol" programan emititutako "Gastronomía personalizada: de la nutrigenética a la Inteligencia artificial" saioari eman zioten saria. Programak hamargarren urteurrena ospatu du. Sari horiek aitortu dituzte Doitasunezko Medikuntza Pertsonalizatuaren alorrean egindako aurrerapen zientifikoak eta medikoak ezagutarazten lagundu zuten kazetaritza-lanak.

Euskadi Irratiko "Osasun Etxea" programak Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazi zuen. Aurtengo edizioan Euskadi Irratiko "Faktoria" saioa ere sarirako hautagaia zen. Arantxa Arza kazetariak eta Felix Zubia medikuak gidatutako sari-banaketan epaimahaiak nabarmendu zuenez, "Osasun Etxea" programak zerbitzu eredugarria eta kalitatezkoa eskaini zuen pandemian zehar, ez baitzen mugatu informazioa ematera, eta entzuleen zalantzak zehatz-mehatz ebatzi zituen. Saridunek Xabier Laka artistaren eskultura bat eta 9.000 euroko saria jaso zituzten. Arantxa Arzak eta Felix Zubiak EITB Maratoia 2020ri eman zizkioten sariaren 5.000 euro.

Bigarren urtez jarraian, Pilar Ruiz de Larreak gidatutako "Radio Vitoria Gaur" magazinak saria jaso zuen Grünenthal Fundazioarengandik. Fundazioak urtero aitortzen du kazetariak eta komunikabideek mina sentsibilizatzearen arloan egindako lana. "Con el dolor se convive mal todos los días" erreportajeak lehen saria jaso zuen ikus-entzunezkoen kategorian. Programako lantaldeak 2.500 euroko saria EITB Maratoiaren 2020ko kausari ematea erabaki zuen.

eitb.eus-en 40 urte betetzen zituen Eusko Legebiltzarraren infografiak brontzezko domina bat irabazi zuen Society for News Design España (SND-E) eta SND Sudamérica elkarteek ematen dituzten ÑH2O sarietan. Sariak urteko argitalpenik onenei ematen dizkiete. Horrela, Espainiako, Portugalgo eta Latinoamerikako Kazetaritza Diseinuaren ÑH2O sariak EITBk 40. urteurrena zela-eta Eusko Legebiltzarrari buruz egindako webguneko infografia saritu zuten. Infografiak legegintza-ganberaren historia erakusten du, eta modu didaktikoan ematen du ganberaren lanaren eta zereginen berri. Gainera, Legebiltzarraren egituraren eta diseinuaren bitxikeriak modu dinamikoan ezagutzeko aukera ematen du.

Azkenik, Zuhaitz Gurrutxagak eta Mikel Pagadik gidatutako "Herri Txiki, Infernu Handi!" programa eta Radio Euskadiko Dani Álvarez kazetaria saritu zituzten FesTVal-en. Azkenak Constantino Romero saria jaso du.



6. Herritarren | Komunitatearekiko harremana

EITBk emandako sariak

- EITB Saria FesTVal-en: Galder Gaztelu-Urrutia zuzendariak (Bilbo, 1974) EITB Saria jaso zuen Gasteizko FesTVal-en itxiera-ekitaldian. ETBk Bilboko zuzendaria saritu nahi izan zuen, “El Hoyo” bere lehen lanarekin nazioartean aitortutako gizarte-fenomeno bihurtu baita. Sitgesen Jaialdian filmik onenaren saria lortu zuen, eta Torontoko Nazioarteko Zinemaldian Publikoaren Saria. Gainera, Europako Zinemaren sarietarako aurrehautatua dago. Halaber, “El Hoyo” izan zen Netflixen ikusiena Estatu Batuetan eta hamar bat herrialdetan martxoan.
- Gaztea maketa-lehiaketa: Sua taldeak irabazi zuen Gaztea maketa-lehiaketaren XXVIII. edizioa, eta GazteBizHitzak emandako entzuleen saria Trini Fox-entzat izan zen.
- Gaztea Sariak: Gazteak bere klasikoetako bat berreskuratu zuen Gaztea Sarien 30. urteurrenean. Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak aurkeztu zuten ekitaldia. Donostiako Kursaal aretoan egin zen, eta ETB1ek eta eitb.eus-ek eman zuten. ZETA, Izaro, Skakeitan eta Suak eraman zituzten Gaztea sariak. Itziar Ituño eta Berri txarrak ere nabarmendu ziren, eta Iñigo Muguruza omendu zuten.
- Euskadiko Bakarriketen lehiaketa: Pepi Labrador bakarriketaria Radio Euskadiko Bakarriketen Lehiaketaren III. edizioaren irabazlea izan zen, “Algo Pasa con Pepi” bakarriketari esker.



6. Herritarren | Komunitatearekiko harremana

Enpresa-foroak

Euskal enpresa-sarearekin konprometituta dagoen gizarte-eragile indarberritzaile eta garatzaile gisa, EITBk harreman eta konpromiso sendoa izaten jarraitzen du enpresa-elkarteekin eta topaguneekin, kudeaketaren bikaintasuna eta esperientzia-trukea sustatzeko. Era berean, aliantza sendoak ditu berrikuntzaren aldeko apustua egiten duten foroekin -hala nola telebista publiko eta pribatu guztiek parte hartzen duten Irratidifusoreen Foroarekin-, eta partaidetza du Irrati Telebista Autonomikoen Erakundearen Federazioan (FORTA) eta Telebistako Zientzia eta Arteen Akademian.



EUSKALIT, Kalitaterako Euskal Fundazioa, kudeaketan hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko.



Q-EPEA, Euskal Erakunde Publikoen sarea bikaintasunaren bilaketarekin konprometitua enpresa-esperientzien kudeaketan eta trukean.



IZAITE, Jasangarritasunaren, Garapen Jasangarriaren eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren aldeko Euskal Enpresen Elkarte.



Innobasque, irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko elkarte pribatua, Euskadiren eremu guztietan berritzaile den gizarte bateranzko transformazio-prozesua bultzatzeko, dinamizatzeko eta monitorizatzeko sortua.



Eiken, Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra. EITBk aktiboki parte hartzen du bertan ikus-entzunezkoen sektorea eta erakundea bera garatzeko.

6. Herritarren

Giza Eskubideak

EITBk bere Estilo Liburuan jaso du hedabide guztietan onartu, defendatu eta sustatuko direla Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean onartzen diren eskubide guztiak. EITBren Erredakzio Estatutuak aitortzen duenez, zuzenbide-estatu demokratikoaren prozedurekin arautzen da, adierazpen-askatasunerako eta egiazko informazioa jasotzeko eskubideak errespetatuz.

Erredakzio-estatutua garatzeko, EITBk Erredakzio-kontseilu bana du, 17 kazetari ordezkari osatuak, 2020ko irailaren 25eko hauteskundeetan hautatu zirenak. Giza Eskubideen defentsaren testuinguru honetan, EITBk beste urrats bat egin du 2020an, eta ibilbide berri batean hasi da Memoriaren Euskal Institutuarekin, GOGORA institutuarekin. Ibilbidearen lehen emaitzak 2021ean ikusiko dira, datozen 4 urteetan ikus-entzunezko produktu-multzo bat sortuko baita bakea, bizikidetza eta giza eskubideak defendatzeko, Euskadiren duela gutxiko historian sufritu duten pertsona guztiak gogoan.



7. Euskara

- Euskara
- Gazteen aisialdia
- Komunikazio Eskola
- Publizitatea
- Komunitatea
- Euskara lantzen



7. Euskara

EITB da euskarazko ikus-entzunezko komunikazioaren erreferentzia nagusia. Egunero, entretenimendua, informazioa, eztabaida, ikuskizunak eta dibulgazioa eskaintzen dizkie euskaldun guztiei euren hizkuntzan.

Euskara

Euskararen normalizazioaren hiru zutabe nagusiak hezkuntza-sistema, administrazioa eta komunikabideak dira. Hain zuzen ere, EITBren misioaren ardatzetako bat euskara da, EITB sortzeko legeak, erakundearen plan estrategikoei eta Jaurlaritzarekin sinaturiko programa-kontratuei islatzen duten bezala. Eginkizun hori aurrera eramateko, EITBk hizkuntzaren normalizazioan inplikaturik dauden beste eragile eta erakunde batzuekin lankidetzan dihardu.

Euskararen normalizazioari loturiko eginkizuna EITBren kanal guztiei dagokie. Euskarazko kanaletan, bideak irekitzen zaizkie euskarazko debate eta parte-hartze sozialei. Gaztelaniazko kanaletan, zabalkundea ematen zaie euskarari, euskal kulturari eta euskaldunen munduari. Batzuetan nahiz besteetan, EITBk hasieratik hartu du konpromisoa emozio eta balio positiboak lotzeko euskarazko komunikazioarekin.

Aro digitalean, euskal gizarteak komunikazio-modu berriak behar ditu, eta EITBk ardura sendoa hartu du egoera berrira egokitzeko. Hala, irrati eta telebista tradizionalei, webguneari eta nahierako plataformari hainbat aplikazio (app) gehitu zaizkie azken urteotan, ikus-entzunezko produktuak erabiltzaileen eskura jartzeko. Bestalde, EITB Taldeak bere esperientzia eskaintzen die ibilbide profesionala euskaraz egin nahi duten komunikatzaileei. Halaber, euskararen erabilera sustatzen du lehen lekuri ez zuen komunikazio-arloetan eta hizkuntzaren ezagutza-maila desberdinetara egokituta.

7. Euskara

Dimentsioak


EITBk aurrerapausoa egin du, eta, euskararen arloan dagokion misioaz gain, konpromiso gehigarria hartu du bost dimentsio zehatzetan.

Euskara lantzen

Euskara kodetzen eta lantzen laguntzea.

Komunitatea

Euskaraz loturak ezartzeko eta harremanak izateko plataforma eta aukera berriak eskaintzea.



Gazteen aisialdia

Euskara gazteentzako entretenimenduarekin eta aisialdiarekin lotzea.

Komunikazio Eskola

Euskarazko komunikatzaileen hurrengo belaunaldiak prestatzea.

Publizitatea

Euskararen presentzia bultzatzea negozioei eta ekonomiari lotutako esparruetan.

7. Euskara

Gazteen aisialdia

EITB da euskarazko aisialdiaren hornitzaile nagusia, gazteentzako aisialdiko jarduerak sustatzen eta horietan parte hartzen duelako.

Helburu nagusi bat euskara entretenimenduarekin eta denbora librearekin lotzea da, bai eta gazteentzako aisialdiko jardueretan presente egotea ere. Taldeak hainbat proiektu eramaten ditu aurrera gazteak EITBrekin inplikatzeko.

EITBk benetan sinesten du irratia, entzuteaz gain, ikusi eta bizi ere egin behar dela. Premisa horretatik abiatuta, hainbat ekitaldi antolatzen ditu Gaztea markaren pean, hala nola urteroko maketa-lehiaketa eta kontzertuak. 2020an, covid-19aren pandemiak eragozpen asko sortu zituen eta, besteak beste, maketa-lehiaketaren 29. edizioko finala atzeratu egin behar izan zen. Azkenean, ekainaren 25ean egin ahal izan zen, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, eta Raitx taldeak irabazi zuen.

2020ko osasun-larrialdiak kalte eta galera handiak eragin zizkion musikaren munduari eta, horren aurrean, Gazteak bultzada eman nahi izan zion euskal musikari. Horretarako, Gaztea Sariak antolatu zituen, 2009tik egiten ez zen ekitaldia. Ospakizuna azaroaren 26an izan zen, eta Gaztean, ETB1en, webgunean eta sare sozialetan egin zen emanaldia zuzenean, oihartzun eta arrakasta handiarekin. Irabazleak Zetak, Izaro eta Skakeitan izan ziren, eta Iñigo Muguruzari ibilbide osoaren saria eman zitzaion.

"Gaztea errepidean" eta beste ekimen batzuk bertan behera utzi behar izan ziren urtean, dena ez zen hain beltza izan. Gazteak 30 urte bete zituen eta, urteurrena ospatzeko, "Gaztea 30 30 30" kontzertu-bira antolatu zen. Hilabete bakoitzaren 30ean, 30 ikuslerentzako kontzertua egitea zen asmoa, lekua eta musikaria azken-azken unean iragarrita. Urrikkoa eta azarokoa izan ziren lehenak, eta publikorik gabe egin behar izan ziren. Ekimenaren amaiera 2021eko otsailerako jarri zen.



7. Euskara

Komunikazio Eskola

Ekimen honen helburua da euskarazko komunikazioaren hurrengo belaunaldiak osatuko dituzten pertsonak aurkitzea eta trebatzea.


EITBk aukera paregabea eskaintzen die prestatzen ari diren komunikatzaileei irratiko, telebistako edo webeko eguneroko jardueran parte hartzeko, eta ezagutza teorikoak lantzeko eta praktikan jartzeko EITBko albistegiak eta saioak egiten dituzten profesionalen ondoz ondo.

Gurekin trebatutako pertsonak komunikazioaren profesional bihurtuta irteten dira EITBtik, eta hainbat erakunde eta enpresatan lan egiten dute:

- Herri-erakundeetan.
- EITBn bertan, eta Euskal Herriko edo beste lurralde batzuetako komunikabideetan.
- Gure inguruneko enpresetako komunikazio-sailetan.
- Startup eta gizarte-ekimen askotako sare sozialetan.

Covid19-aren pandemiak eragindako egoera berezian, EITBk, beste erakunde batzuek ez bezala, eutsi egin zion era guztietako ikasleentzako praktikak eskaintzeko erantzukizunari, eta hori asko igarri zen hautaprobetara aurkeztu ziren ikasleen kopuruan.

Erredakzioetan, 2020. urtean, 88 pertsona egon ziren praktiketan; horietako 42 kazetaritza, 42 ikus-entzunezko komunikaziotik eta 4 EHU-EITB komunikazio multimediatik masterretik.





7. Euskara

Publizitatea

Euskadi Irratiak, ETB1ek eta ETB3k publizitate-mezu ugari zabaltzen dituzte egunero, eta hizkuntza aldetik beste edozein irrati edo telebista-kanaletakoak bezain eraginkorrak dira. EITBko Zuzendaritza Komertzialak eta Euskara Zerbitzuak hala izan dadin zaintzen dute, bai bezeroaren gogobetetzeari begira, bai hizkuntzaren prestigioari begira.

EITBrentzat oso garrantzitsua da euskarazko publizitatearen pertzepzio positiboa izan dezatela EITBren audientziak, enpresek eta, oro har, euskal gizarte osoak. 2020. urtean, bereziki garrantzitsua izan zen, pandemiarengatik asko jaitsi baitzen publizitatearen merkatu osoa.

EITBk doan eskaintzen dizkie euskarazko iragarkien hizkuntza-kalitatearen kontrola eta bikoizketa iragarle guztiei. Horrela, iragarleak euskal gizarte osora iristeko aukera du Euskadi Irratiaren, ETB1en eta ETB3ren bidez.



7. Euskara

Komunitatea

EITBk hainbat foro eskaintzen dizkie euskaldunei elkartzeko, komunikatzeko eta loturak ezartzeko.

Prestakuntza-proiektuak

Taldeak akordioak lortu ditu Euskal Herri osoko ikastetxe eta unibertsitateekin ikasleek praktikak eta prestakuntza duala egin ahal izan ditzaten.

Kultura- eta hizkuntza-elkarteak

EiTBk lankidetzeta-hitzarmenak sinatu ditu euskararen eta euskal kulturaren arloko elkarteekin: Durangoko Liburu eta Diskoaren Azokarekin, Tokikomekin, Euskaltzaindiarekin...

Teknologia berriak

Vicomtechen bidez, EiTBk bi plataformaren garapenean hartzen du parte, euskarazko produktuak era guztietako audientziei helarazteko asmoz. Lehen plataforma Batua da, euskararako itzultzaile automatiko bat. Bigarrena, Idazle, azpidazketa automatikoa egiteko, bai euskaraz bai gaztelaniaz.

Sare sozialak

EiTB oso aktiboa da sare sozialetan, eta komunitate euskaldunaren dimentsio birtuala indartzen du Twitterren eta Instagramen dituen euskarazko kontuen bidez.

Gunea

EiTBk ikastolen aldeko jai guztietan parte hartzen du: Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa Oinez.

Mugarriak

- 2020an, EITBk kolaborazio-kontratua sinatu zuen Vicomtech zentro teknologikoarekin euskara-ingeles itzultzaile automatikoaren garapenean laguntzeko. Kontratu horren bitartez, EITBk ia 200 filmen, 20 dokumental-sailen, 12 telesailen eta 12 animazio-serieren gidioen euskarazko itzulpenak utzi zituen Vicomtechen esku.
- Euskal Herriko beste herri eta erakunde askok bezala, EITBk bat egin zuen Euskaraldiarekin, eta talde motorra 2020ko martxoan hasi zen ekimenaren zabalkundea eta prestaketa egiten. Ordutik azarora, hainbat saio, deialdi eta ekimen antolatu ziren EITBren barruan langileak aktibatzeko eta motibatzeko. Aldi berean, modu paraleloan, EITBren hedabideek informazio eta jarraipen ahalegin berezia egin zuten urte osoan, herritarrak Euskaraldiaren jakitun ipintzeko.
- 2020. urtean, "EITBrako hizkuntza funtsak" dokumentuaren eguneraketa egin zen. Bertan jasotzen da komunikazio-taldeak nola kudeatu behar dituen hizkuntzak bere hedabideetan, euskarazko eta gaztelaniazko kanalak ekoizten dituela aintzat hartuta. Eguneratze-prozesuko lehen fasean, EITBko profesional-talde batek hartu zuen parte eta, bigarren fasean, EITBren jarduera-esparruko gizarte-eragile garrantzitsuenen iritziak eta ekarpenak entzun ziren.
- Era guztietako ekitaldi publikoak bertan behera geratu ziren urtean, EITBk ikastolen aldeko ahaleginari eutsi zion, eta "Ikastolak herriari" ikuskizuna antolatu zuen Kursaal 2020ko azaroan, Oholtzan saioaren barruan emititu zena.

7. Euskara

Euskara lantzen

EITB oso eragile garrantzitsua da euskararen kodeketan eta lanketa funtzionalean.

EITB Taldeak Euskara Zerbitzua du, erredaktore, gidoilari, aurkezle eta esatari guztiei hizkuntza-gaien gaineko kontsulta-zerbitzua, aholkuak eta jarraibideak eskaintzeko.

Eginkizun horren emaitza gisa, ohar gramatikalak, erabilera-gomendioak eta glosarioak sortzen dira, aipatutako talde profesionalen artean banatzen direnak. EITBko Euskara Zerbitzuak, gainera, material horiek hurrengorako gordetzeaz arduratuta, hainbat hizkuntza-baliabide sortu ditu, besteak beste HIKEA datu-base lexiko-terminologikoa, EITBren intranetean eta webgunean kontsulta daitekeena.

EITBko Euskara Zerbitzuko buruak Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordean hartzen du parte aditu gisa. Bestalde, EITBren eguneroko lanean, euskara batuan idatzitako testu-bolumen handia sortzen da. Testu horiek, Euskaltzaindiarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez, Euskaltzaindiaren Lexikoaren Behatokiaren corpusera gehitzen dira.

Mugarriak

- Durangoko Azokarako, Asier Larrinaga EITBko Euskara Zerbitzuko arduradunak "Euskara kolokialaren eskuliburua" aurkeztu zuen, kaleko eta lagunarteko euskarari buruzko lehen liburua, batik bat sorkuntzaren eta irakaskuntzaren arloetan ari direnentzat erabilgarria izateko helburua duena. Alde batetik, eskuliburuak baliabideak eskaintzen dizkie euskaraz lagunarteko hizketak landu behar dituzten gidoilari, itzultzaile, idazle eta gainerakoei. Beste alde batetik, irakaskuntzan pentsatuta, erreferentzia-materiala eskaintzen die euskaltegi, ikastola zein institutuetan euskara lantzeko ariketak prestatu behar dituzten irakasleei. Irakasleon ardura da, hein handi batean, euskara kolokialaren baliabideak hartzun berrien esku jartzea, eta eskuliburuan helduleku bat aurki dezakete.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Emakundek "Feminismoa eta Berdintasuna" hiztegia argitaratu zuten. Hiztegiak feminismoaren eta berdintasunaren alorreko oinarritzko terminoak eskaintzen ditu, dagozkien kontzeptu eta definizioekin. Indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen kontzeptuak dira, bai eta gizarte-mugimenduetatik sortutakoak eta nazioartean erabilitakoak ere. Euskararen terminologia gaurkotzeko, finkatzeko eta normalizatzeko beharrezkoa den hiztegi honen lanketan Asier Larrinaga EITBko Euskara Zerbitzuko buruak hartu zuen parte, Terminologia Batzordeko kide gisa.



8. Euskadi munduan

- Nazioarteko proiektzioa
- Audientziei buruzko txosten orokorra



8. Euskadi munduan

Nazioarteko proiektzioa

EITBren edukiak mundu osoan kontsumi daitezke EITB Nahieran-en eta bere eitb.eus Interneteko atariaren bidez, erabiltzaileek EITB Mediako eduki guztiak kontsumitzeko aukera baitute nonahi eta noiznahi.

2020an, EITB 230 herrialde baino gehiagotara iritsi zen, eta Mexiko, Kolonbia, Argentina, Estatu Batuak eta Venezuela izan ziren EITB Mediaren eduki gehien kontsumitu ziren herrialdeak. EITBren telebista-kanalak ikusteaz gain, EITB taldeko irrati guztien online emisioak ere entzuten dira: Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea, EITB Musika eta Euskal Kantak; baita noizbehinkako emisioak ere: Euskadi Irratia +, Radio Euskadi + eta Radio Vitoria +.

Era berean, eitb.eus-en bidez, zuzenean ikus daitezke programa bereziak, prentsaurrekoak, hitzaldiak edo kontzertuak eta ETB1, ETB2 eta Canal Vasco-ETB Sat kanalak (azkenaren nazioarteko marka berria 2021ean estreinatuko da EITB Basque izenarekin). Era berean, ETB1 eta ETB2ko programa guztiak mundu osoan eta edozein gailutatik ikus daitezke EITBren konektatutako TBrako APPen bidez, emisio-eskubideek horretarako aukera ematen badute.


8. Euskadi munduan | Nazioarteko proiektzioa

Eduki digitala eta streaminga

2020an, nazioarteko estrategiak -iaz bezala- fabrikatzaile liderren telebista-aplikazioak hartu ditu kontuan, hala nola Samsung, Sony, Philips, LG, Panasonic eta Android TV aplikazioa. Erakusleiko horiek baliatzen ditu Euskal Irrati Telebistak bere edukiak EITBren app-en eta HIRU 3 (3 Kluba) haur-kanalaren bidez eskaintzeko.

Herritarren kontsumo-ohitura berrietara egokituz, EITBk HbbTV bere telebista-kanalen emisioak ditu, baita irrati guztiak ere (Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea, EITB Musika eta Euskal Kantak). "Eguraldia" saiora bidalitako argazkiak erakusten dituzte emisioan zehar.

Mugikorretarako eta tabletetarako lau aplikazioak, iOS nahiz Android-erako: EITB, Go!Azen, HIRU3 (3 Kluba) eta Gaztea; Euskal Irrati Telebistaren edukiak munduko edozein lekutatik zuzenean nahiz geroratuta gozatzeko aukera ere ematen dute, hainbat gailuren bidez.




8. Euskadi munduan | Nazioarteko proiektzioa

Euskal zinema

Euskal zinemarekin duen konpromisoari leial, eta pandemia gorabehera, EITBk ia 7,5 milioi euroko inbertsioa egin du 2020an film luze, film labur, dokumental eta telebistarako fikzioetan (aurreko urtean baino 1,7 milioi gehiago).

16 film luzeetatik 9 fikziozkoak eta 7 dokumentalak izan dira. Lan horien erdia emakumeek zuzendu dituzte. Bestalde, telebistarako sortutako fikziozko filmetatik 3 euskarazko miniserieak izan ziren (Hondar ahoak, Altsasu eta Alardea).

Euskal ikus-entzunezkoen sektorearekin batera egindako koprodukzio kopurua



Aipatu behar da Donostiako Zinemaldiaren azken edizioan EITBren parte-hartzea zuten 12 film eskaini zirela. Izan ere, Akelarre Sail Ofizialean eta Hil Kanpaiak New Directors sailean ikusi ziren. Gainera, euskal film onenaren Irizar saria eta euskal gidoi onenaren saria lortu zituen Ane filmak.

Bestalde, Akelarre hautagaia izan zen 9 sailetan Goya sarietan, eta 6 sailetan Forqué sarietan; Ane, berriz, hautagaia zen Goya sarietako 5 sailetan eta Forqué sarietako 3tan. Era berean, aipatu behar da EITBk Oscar sarietan Espainia ordezkatzeko aurrez hautatutako 3 tituluetan parte hartzen duela: La trinchera infinita (emakumezko aktore onenaren eta soinu grabazio onenaren Goya sariak jaso zituen), El Hoyo (efektu onenaren Goya saria jaso zuena), eta Lo que arde. Azkenean, Jose Maria Goenagak, Jon Garañok eta Aitor Arregik zuzendutako zinta (La trinchera infinita) hautatu dute.

Aipatutako tituluez gain, hauek ere nabarmendu behar dira, besteak beste: Ilargi guztiak, Nora eta Erlauntza (euskaraz filmatuak); 5 lobitos, Alauda Ruiz de Azuarena; eta García y García, Ana Murugarrenen zuzendua.

EITBk apustua egin du emakumeak autoretza nahiz teknika aldetik buru dituzten proiektuei laguntzearen alde. Lara Izagirreraren Nora, Mireia Gabilondoren Erlauntza eta aipatutako 5 lobitos eta García y García, besteak beste.

Era berean, ohikoa den bezala, nabarmentzekoa da balio berrien aldeko apustua, film laburrak kontratatuz. 2020an, gainera, EITB lankidetzan aritu da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin Itxitik proiektua martxan jartzeko: 7 egilek martxoan dekretatutako konfinamenduaren bere ikuspegia emango dute.

8. Euskadi munduan

Audientziei buruzko txosten orokorra

Erabiltzaileak eta bisitak


2020an, eitb.eus-ek gaurkotasunaren aldeko apustua egin du covid-19aren pandemiak komunikabideak guztiz hartu dituen urte batean. Horrela, eitb.eus-ek atal bat eskaini dio gaixotasunari, datu eguneratuekin, herriz herriko egoerarekin, herrietako semaforoarekin eta grafiko oso bisualekin, besteak beste.

Eskaintza zabal batekin, eitb.eus-ek 2020an berriz ere audientzia igotzea lortu du. Igoera oso nabarmena izan da, batez ere pandemiaren lehen hilabeteetan, biztanleria konfinatuta zegoenean.

Eguneko batezbestekoaren hazkunde horrek egonkortze handiagoa ekarri du batez beste, eta eguneko 200.000 erabiltzaile bakarrak gainditu dira (konfinamendu-hilabeteetan 300.000 erabiltzaileak ere bai).

Hileko datuei dagokienez, eitb.eus-ek, batez beste, 5 milioi erabiltzaile bakar lortu ditu 2020an, eta 7,5 milioi erabiltzaile bakar baino gehiagoko marka historikoa lortu du martxoan.

Aipatzekoa da, gainera, eitb.eus-ek bere urteko inkesta propioa egiten duela erabiltzaileen artean; berriro ere, erabiltzaileek "oso ongi" batekin puntuatu dute dute webgunea (10etik 7,8).



Iturria: OJDk ikuskatutako Google Analytics-en datuak.

8. Euskadi munduan | Audientziei buruzko txosten orokorra


2018az geroztik, eitb.eus-ek Comscore bidez ere neurtzen du bere audientzia. Ataria entretenimenduaren kategorian sartzen da. Katetoria horretan estatuko 1.000 webgune inguru sartzen dira (RTVE, A3Media, Mediaset, FORTAko kanal autonomikoak, YouTube, Netflix, Spotify...); hilean bi milioi erabiltzaile bakar lortu zituen batez beste.

Aurreko urteetan bezala, internautek albisteak ikusi dituzte gehienbat 2020an, eta ondoren ETBren telebista-programetako eta kiroletako webguneak eta informazioak. EITB Mediaren irratien atariak eta Gaztearen webguneak ere bisita ugari izan dituzte.


Sare sozialak

Sare sozialetan, 2019rako eta 2020rako Social Media Planean markatutako estrategia jarraitu da, eta Telegrameko kanalak estreinatu dira: EITB Albisteak (euskaraz) eta EITB Noticias (gaztelaniaz).


eitb.eus-eko erabiltzaileak gailuaren arabera (hileko batez bestekoa)



eitb.eus-era egindako bisitak sare sozial nagusietatik (hileko batez bestekoa)



eitb.eus-eko urteko batez besteko trafikoa sare sozial nagusietatik



8. Euskadi munduan | Audientziei buruzko txosten orokorra

Etorkizuneko estrategia eta helburuak

Helburu estrategikoekin bat etorritik, taldeak lau helburu nagusi definitzen ditu 2021erako nazioarteko proiektuorako.

1. iOS eta Android-erako bi app berri merkaturatzea

Euskal Irrati Telebistak bi aplikazio mugikor izango ditu 2021etik aurrera: EITB Albisteak albisteetarako eta EITB Nahieran nahierako edukietarako; aurreko aplikazioa ordezkatzeko dute (EITB). Horrela, EITB Mediak iOS eta Android gailuetan duen presentzia berri eta indartuko du, bai smartphoneetarako bai tabletetarako.

EITB Albisteak aplikazioak informazio-azala eta atalkako sailkapena eskainiko du testuekin, audioekin, bideoekin eta argazkiekin, “Kirolak”, “Eguraldia” eta informazio korporatiboa barne. Era berean, aukera emango du emandako azken albistegia (“Gaur Egun” edo “Teleberri”) eta gaurkotasanari buruzko zuzeneko saioak ikusteko.

EITB Nahieran aplikazioan, berriz, komunikazioko euskal talde publikoaren irrati- eta telebista-programa guztiak ikusi eta entzun ahal izango dira. Era berean, “Nire zerrenda” konfiguratu ahal izango da: norberaren irrati- eta telebista-programa gogokoenen aukera pertsonalizatua.

Bi aplikazioetan, Taldearen 6 irrati zuzeneko seinalea jarraitu ahal izango da munduko edozein lekutatik: Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea, EITB Musika eta Euskal Kantak, ETB1 eta ETB2 kanalen eta EITB Basque nazioarteko kanalaren emisioarekin batera.

2. EITB Podcast-en estreinaldia

Euskarazko eta gaztelaniazko podcast-plataforma indartsua da. Taldearen irrati edukiez hornituko da, eta proiektu berrirako berariaz sortutako edukiak ere baliatuko ditu. Musikak garrantzi handia izango du EITB Podcast-en, baina aldi berean apustua egingo da fikziozko edukien alde eta entretenimendu- eta dibulgazio-gai ugariren alde, hala nola kirola, zientzia, ekonomia edo ongizatea. Gainera, Euskadiko komunikazioaren eta kulturaren sinadura ezagunak izango ditu plataformak.

3. nireitb komunitatea eta erabiltzaileen erregistroa abian jartzea

EITBk bere komunitate propioa sortzeko lehen urratsak egingo ditu nireitb proiektuaren bidez. Erabiltzaileak erregistratu ahal izango dira nireitb plataforman, eta euren argazkiak edo bideoak erregistratu eta partekatu ahal izango dituzte. Hasiera batean, proiektua EITBren Eguraldia atalari lotuta egongo da; ehunka internautak bidaltzen dituzte bertara euren argazkiak. Gaur egun, webgunean argitaratzen dira, Hbbtv plataforman, EITB Taldearen irrati emankizunetan zehar, eta telebistan ere hautaketa bat erakusten da meteorologiari eskainitako saioan.

4. Nahieran eitb.eus-en integratzea

Nahieran nahierako ataria eitb.eus-en integratuko da. Gaur egun, atari hau independentea da, eta bere estetika eta nabigazio-modua ez dira eitb.eus webgunearen berdinak. Hala ere, 2021ean zehar, oinarriak jarriko dira etorkizun hurbilean webgunean integratutako sekzio bat izan dadin eta nahierako piezetara erraz sar ahal izan dadin eitb.eus-en edozein edukitatik.

9. Ingurumena

- Ingurumena hobetzeko plana
- Energia
- Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa
- Beste alderdi batzuk
- Ingurumena: Edukiak eta eragina



9. Ingurumena



Ingurumenaren kudeaketa arduratsuaren esparruan, EITBk bere gain hartu du bere jarduera modu jasangarrian egiteko eta bere ingurumen-inpaktua murrizteko konpromisoa. Era berean, komunikazio-agente gisa duen eraginaz jabetuta, funtsezko zeregina garatzen du ingurumen-edukiak sortzeko eta zabaltzeko.

Duela urte batzuk EITBk ingurumena hobetzeko etengabeko ahalegina egin du, ekintza eta helburu jakin batzuen bidez.

2019an, EITB Taldeak bat egin zuen Hedabideek klima aldaketaren aurrean egindako adierazpenarekin; horrek erronka berri bat planteatu zuen Taldearentzat eta sektore osoarentzat.

Gaur egun, sortutako inpaktuak minimizatzeko eta ingurumen-kudeaketa jasangarri batetik eratorritako aukerak maximizatzeko EITBren helburua 2019-2022 aldirako EITB Taldearen Ingurumena Hobetzeko Planean gauzatzen da. Ildo horretatik, EITBk ISO 14001:2015 nazioarteko arauaren arabera kudeaketa-sistema ziurtatua dauka Bilboko lantokirako.

9. Ingurumena

Ingurumena Hobetzeko Planak ekintza zehatzak jasotzen ditu, eta kontu-errendapenerako mekanismoak zehazten ditu. Halaber, EITBren ingurumen-politikak kudeaketa-ikuspegia definitzen duten bost konpromiso ezartzen ditu:

EITB+	Legeria	Eredua	Koherentzia	Eragina
Ingurumenaren dimentsioa garatzea Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren esparruan, EITBren estrategiarekin bat etorritik. ISO14001:2005 araua hartu da arau-erreferentzia gisa.	Aplikatzekoa den ingurumen-legeria betetzeko konpromisoa.	Ingurumen-kudeaketa garatzea, helburuak EITBren kudeaketa-sistemaren esparruan txertatuz eta etengabeko hobekuntzako ereduak eta ingurumen-inpaktua murrizteko orientazioa bereziki balioetsiz.	Eguneroko jardueran barne-jokabide arduratsua lortzea.	Ingurumenaz kontzientziatzeko eta hari buruzko informazioa zabaltzeko ekimenak garatzea, komunikabide gisa gizartean eta interes-taldeetan eragiteko gaitasuna erabiliz.

Ingurumen-hobekuntzarako Taldean ezartzen dira helburu zehatzak, honako hauek biltzen dituen prozesu baten bidez diseinatuak: testuinguruaren eta alderdi interesdunen ebaluazioa, indarreko legeria eta hartutako beste konpromiso batzuen betetze-mailaren balioespena, erakundearen aurreko ekitaldiko ingurumenarekiko portaeraren emaitzen egiaztapena (adierazleak, helburuak eta auditoretzak) eta egon litezkeen gorabeheren eta kexen kudeaketa, ingurumen-hobekuntzako sistemari eragin dion gainerakoaz gain.

Informazioaren hedapena eta ingurumen-hobekuntza prozesuetan zeharka integratzen dela bermatzeko, diziplina anitzeko hobekuntza-talde bat da ingurumen-helburuak lortzeko ekintzak lehenesten dituen. Arloko arduradun bakoitza arduratuko da ingurumen-helburu bakoitzaz, behar diren aurrekontu-horniduraz eta baliabideez, inplikaturako arloekiko koordinazioaz eta emaitzak EITBko ingurumen-kudeatzaileari jakinarazteaz.

Urteko ekintza-planak, aginte-taulak eta helburuak lortzeko identifikatutako arrisku nagusiek osatzen dute dokumentu hau, eta taldekide guztiek partekatzen dute hari buruzko erantzukizuna.

Illo horietatik eratortzen dira sistema kudeatzeko eta arriskuak eta aukerak aztertze prozedurak, bai eta ingurumen-kudeaketa efizientea lortzeko beharrezkoak diren aurrekontuak ere.

9. Ingurumena

Zehazki, 2020 honetan, konpromiso horien ondoriozko erronkei aurre egiteaz gain, covid-19aren pandemiak zuzenean eragin dio Taldearen ingurumen-kudeaketari.

Ezohiko egoera horri aurre egiteko, covid-19ak zein ingurumen-alderditan eragin duen identifikatu da, eta, horrenbestez, ikuspegi hori adierazleetan eta neurketan txertatu da.

Ezohiko egoera dela-eta, aurten ingurumen-hobekuntzako helburuak definitu ziren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin aurreko hobekuntza-taldeko arduradun bakoitzak egindako ekarpenekin.

Gainera, EITBk lehen hasita dauden hiru ingurumen-kudeaketako alderdi lantzen jarraitu du:

- NBEren 2030 Agendaren komunikazioa.
- Auto elektrikoen flota batera trantsizio progresiboa EITBko profesionalen joan-etorrietarako.
- EITBren ingurumen-kudeaketako urte anitzeko plan berriaren garapena, ISO 14001 erreferentzia-arauaren arabera.

Gastuak eta inbertsioak

Gastu eta inbertsioen zati nagusia hondakinak tratatzearekin eta kentzearekin lotuta dago. Hondakinak kudeatzaile baimenduen bidez kudeatzen dira, bereziki Eusko Jaurlaritzaren IKS sistemaren bidez, tratamendu egokia bermatzeko.

Ingurumen-gastuen eta inbertsioen banakatzea [€]⁸

	2016	2017	2018	2019	2020
Hondakinak tratatzeko eta ezabatzeko gastua	60.741	50.550	19.162	36.182	19.092
Kudeaketa-sistemen kanpo-ziurtagirien gastua	9.120	9.484	3.836	1.162	1.162
Ingurumenari buruzko hezkuntzaren eta trebakuntzaren gastua	495	1.670	2.130	0	0
Lotutako langileen gastuak	21.622	20.499	23.707	24.474	26.138

8. Ez da beharrezkoa ingurumen-izaerako hornidurak edo bermeak eratzeko, jardueraren ingurumen-arrisku potentzialen eragin txikia dela-eta.

9. Ingurumena

Ingurumena hobetzeko plana

Politiken ondorioz, 2019-22 aldirako Ingurumena Hobetzeko Planaren eta materialtasunari buruzko azterketan antzemandako alderdi nagusien emaitza gisa, Ingurumenaren ardatzak atal honetan aurkeztutako energia-kudeaketari, klima-krisira egokitzeari eta materialei eta ekonomia zirkularrari buruzko alderdiak jasotzen ditu.



Klima-krisira egokitzea

Berotegi-efektuko gasen (BEG) isurien neurrak eta hartutako neurriak.

EiTBren jarduerak sortutako isuriak kontrolatu, kudeatu eta murriztea.



Energia

Kontsumo elektrikoa kontrolatzea, kudeatzea eta murriztea.

Barneko eta kanpoko energia-kontsumoa eta erabilera efizienterako ekimenak.



Materialak eta Ekonomia Zirkularra

Materialen kontsumoa, hondakinen sorrera eta ekonomia zirkularreranzko trantsizioa.

- Bizi-zikloaren ikuspegia sartzea hala dagokien ingurumen-alderdien kudeaketan.
- Kontsumo jasangarriko politika garatzea, jarduerarako beharrezkoak diren ondasunen erosketan ingurumen-ikuspegia txertatzeko.
- EiTBren jarduerak sortutako hondakinak kontrolatzea, kudeatzea eta murriztea.



9. Ingurumena

Energia

EITBren energia-kontsumoaren % 90 sare elektrikitik datorren energia da. 2019ko abenduaz geroztik, EITB Taldea energia modu zentralizatuan erosteko kontratu bati atxikita dago, eta horrek energia-hornidura % 100 berriztagarria izatea eskatzen du⁹. Kontratu horren bidez, EITBk ziurtatzen du kanpoko hornidura elektriko guztia energia-iturri berriztagarrietatik datorrela, eta, beraz, berotegi-efektuko gasen isuri-faktorea zerotzat jo daitekeela¹⁰.

Baliabideen murrizketa eta efizientzia

Sorkuntza-iturriak alde batera utzita, Taldearen energia-estrategiak energia-baliabideen erabilera murrizteko eta efiziente bihurtzeko ekintzak ere barne hartzen ditu Ingurumena Hobetzeko Planean.


Jarduketa-ildo horiek barne hartzen dituzte, besteak beste: argiteria hobetzea eta kontsumo txikiko argiak pixkanaka jartzea egoitza guztietan; energia-efizientziaren auditoretza egitea eta eraikinetako emaitzak Etiketa Energetikoarekin identifikatzea; egoitzen klimatizazioa hobetzea; etenik gabeko elikadura-sistemaren errendimendua hobetzea eta autokontsumo fotovoltaikoaren proiektu pilotua kudeatzea; eta energia partzializatua neurtzeko sistema bat ezartzea.

Kontsumoa

EITBren energia-kontsumoa -lehen adierazi den bezala- sareko elektrizitateari dagokio gehienbat (% 90); ondoren, talde elektrogenoetarako eta ibilgailuetarako gas naturalaren eta erregaien kontsumoa dator. 2020an zehar, EITBk aurrezki-politikak sustatzeko eta kontsumoak murrizteko helburuekin jarraitu zuen. Kontsumo horiek beheko diagrametan azaltzen dira.

Elektrizitate- eta gas-kontsumoak

Lehen grafikoan, elektrizitatearen eta gas naturalaren kontsumoak ikusten ditugu. 2019-22 aldirako Ingurumena Hobetzeko Planean planteatutako helburuen arabera, kontsumo elektrikorako 9,6 GWh ezarri dira gehienez, eta gas-kontsumorako, berriz, 0,95 GWh gehienez, grafikoaren lerro etenetan ikus daitekeenez.




9. % 100ean energia-iturri berriztagarrietatik sortutako energia elektrikoaren horniduraren erosketaren zentralizatua: https://www.euskadi.eus/web01-tramite/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso23910/eu_doc/eu_arch_expjaso23910.html.

10. Hala ere, ez da zero hertsiki, lehen mailako energia bigarren mailako erabilerara garraiatzeko prozesuan isuriak daudelako.

9. Ingurumena | Energia


Ibilgailu propioen erregai-kontsumoa

Ibilgailu propioen erregai-kontsumoaren helburua 68.100 litro gasolio da (gasolinazko ibilgailuak badaude ere, neurketa batera egiten da, eta gasolio-isuriaren parametroak hartzen dira). 2020an zehar, covid-19aren pandemia dela-eta, ondoren ikus daitekeen bezala, ibilgailuen erregai-kontsumoa % 20 jaitsi zen.



Talde elektrogenoetako gasolio-kontsumoa

Azkenik, ikus daitekeen bezala, talde elektrogenoetako gasolio-kontsumoa marjinala da, aztertutako gainerako energia-iturriekin alderatuz gero.



9. Ingurumena | Energia


Isuriak¹¹

EITBren Ingurumena Hobetzeko Planaren jarduketa-ildoetako bat bere jarduerak sortutako isuriak kontrolatzea eta murriztea da. 2020an ildo horretan egindako ekintza nagusiak hauek izan dira: ibilgailu-plana garatzea ibilgailu ekologikoagoak parke mugikorrean sartzeko; sortutako isuriak monitorizatzea legeak ezartzen dituen parametroak betetzeko; eta covid-19ak EITBren ingurumen-portaeran duen inpaktua aztertzea.

Beheko grafikoan, 1. irismenaren barruan erakundeak zuzenean kontrolatzen dituen jarduerak sortutako isuriak daude. Kalkulurako kontuan hartu dira gas naturalaren eta erregaien (gasolioa) kontsumoak sortutako isuriak, bai ibilgailuetan bai energia elektrikoaren sorkuntzan.

Era berean, lehenago aipatu den bezala, Taldearen jarduerak kontsumitutako elektrizitate guztia iturri berriztagarrietatik dator. Horrenbestez, 2. irismenari (elektrizitate-kontsumoa) zor zaizkion CO2 isuriak zerora murrizten dira.

3. irismenari¹² dagokionez, 2020tik aurrera EITBk berotegi-efektuko gasen isuriaren txostenean sartu du kalkulu hori. Kalkulu horretan sartzen dira aire bidezko laneko bidaien isuriak. Era berean, 2020az geroztik datu horrek, CO2-az gain, berotegi-efektuko beste gas batzuk ere hartzen ditu kontuan (CH4 eta N2O, esate baterako).



11. Isuriak kalkulatzeko, Ihoberen Erakundearen Karbono-aztarnaren Klima 2050 tresna erabiltzen da.
12. Ez dago daturik 2019rako

9. Ingurumena

Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa

Kontsumo jasangarriko politika garatzea, erosketei aplikatutakoa.

"Erosketa berdea" garatzen jarraitzea, materialen erosketan ingurumen-irizpideak txertatuz. Paperaren kontsumoa murrizteko eta kontzientziarazio-maila handitzeko inprimaketa-politika sakontzea.

Bizi-zikloaren ikuspegia sartzea hala dagokien ingurumen-alderdien kudeaketan

Material guztiak identifikatzea: non sortzen diren, nor den arduraduna, erosketa, biltegiatzea eta hondakinen kudeaketa. Ekimenak zeharkako alderdiak kontrolatzea eta murriztea aurreikusten du, eta erosketen aplikazioan ingurumen-inpaktua identifikatzeko aukera sartzea.

Hondakinak kontrolatzea, kudeatzea eta murriztea.

Hondakin arriskutsuen zaintza eta kudeaketa, prebisioa kasu berezietan (obrak, materialak berritzea, etab.). Plastikozko ontzien kontsumoa murriztea.



Hondakinak kudeatzeko, "Mapa berdea" proiektua egoitza guztietan garatzea, hondakinak gaika biltzeko.

Jarduerak sortutako hondakinak biltegiatzeko eta biltzeko eremuak identifikatzea. EITBko pertsona guztiei jakinaraztea hondakinak biltzeko zer eremu dauden egoitza bakoitzean.

Lortutako helburuak eta aurrerapenak bai barnean eta bai kanpoan gure alderdi interesdunekin partekatzea.

Informazio ez-finantzarioaren legeak eskatzen duen informazioa mantentzea, ebaluatzea eta ematea. Helburuak eta emaitzak argitaratzea. Instalazioetan Etiketa energetikoa jartzea. Kanpoko enpresei ingurumen-politikaren eta portaera-eskakizunen berri ematea. Kexa eta iradokizunen postontzia kudeatzea, bai EITBn lan egiten duten pertsonentzat, bai herritarrentzat.

9. Ingurumena | Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa

Materialen erabilera

Beheko taulan ikus daitezke kudeatutako materialak eta dagozkien neurketa-unitateak. Ingurumen-politikak, alderdien kudeaketa integratuak eta aplikatutako aurrezki-sistemek eragina izan dute adierazle gehienetan. Horren lagungarri, grafiko batzuk gehitu dira, balio maximoak (gorriz) azken bost urteetan erregistratutako kontsumoekin lotuta bistaratzeko.

Adierazle batzuk -egurra, plastikoa, pintura...- programa berrien jarduerarekin (dekoratuak) lotuta daude. Halaber, Blauer Engel-ek ziurtatutako papera erabili da; horrek % 100 birziklatutako produktua dela bermatzen du, Europako Ekoetiketaz (Ecolabel) eta Green Range-z gain.

kg-tan neurtutako paper-kontsumoaren datua (egunkariak) gutxi gorabeherakoa da; egunkari bakoitzak batez beste 250 g-ko pisua duela kalkulatu da.

Erabilitako materialetatik soilik fotokopiagailurako papera da material balorizatua; 2018tik aurrera % 100 birziklatua da.

Covid-19ak izandako inpaktua ikus daiteke Taldearen materialen erabileran ekitaldi honetan. Zehazki, paperaren kontsumoa % 19 jaitsi da; baina plastiko asko erosi da lanpostuetako banaketa-paneletarako. Erosketa horrek 2.800 kg esan nahi du gutxi gorabehera.

Materiala	2016	2017	2018	2019	2020	Grafikoak				
Paper-kontsumoa (folioak) kg	16.737	16.447	16.525	16.619	13.395					
Paper-kontsumoa (inprimaketa) kg	0,14	7,25	0,09	-	4,68					
Paper-kontsumoa (egunkariak) kg	19.292	19.225	19.609	19.738	19.530					
Toner-kontsumoa (unitateak)	63	76	60	s/d	s/d					
Pintura-kontsumoa (litroak)	404	785	948	908	708					
Egur-kontsumoa (ML)	-	1.493	3.325	2.955	1.350					
Egur-kontsumoa (M2)	570	543	3.324	546	934					
Egur-kontsumoa (M3)	0,15	-	0,25	-	-					
Pila-kontsumoa (milaka unitate)	15,62	14,74	15,27	14,35	13,34					
DVD-kontsumoa (kg)	28,56	19,04	15,96	12,18	7,35					
CD-kontsumoa (kg)	5,06	4,55	6,41	1,96	7,35					
Fluoreszente-kontsumoa (unitateak)	735	1.136	301	405	307					
Plastiko-kontsumoa (metakrilatoa) kg		2.614	896	1.255	6.330					
Plastiko-kontsumoa (PVC) kg	469	563	271	200	404					
Plastiko-kontsumoa (polikarbonato zelularra) kg	91,17	98,74	569,18	485,33	6					
Plastiko-kontsumoa (isplu-poliestirenoa) kg	84,00	49,77	41,36	-	0,24					

9. Ingurumena | Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa

Hondakinak

EITBren Ingurumena Hobetzeko Planaren jarduketa-ildoetako bat hondakinak kontrolatzea, kudeatzea eta murriztea da.

Urteko datu aldakorrek –produkzio-orduek, langileek...– eragina dute hondakinen sorreran. Kontsumoa murrizteko politiketan etengabeko hobekuntzak ezartzeak eta jatorriko birziklatzeak lotura zuzena dute hondakinen sorrerarekin; zenbat eta gehiago bereizi, orduan eta hondakin-bolumen handiagoa. Horrek azaltzen du gehienetan bolumenek gora egiten jarraitzea, baina horrek ez dakar benetako hazkundea, baizik eta neurketa eta kudeaketa hobe.

Lehen aipatu den bezala, 2020ko ekitaldian, pandemia dela-eta, covid-19ak EITBren ingurumen-portaeran izandako inpaktua aztertu da. Horrenbestez, murrizketak ikusi dira paper-, plastiko- eta pila-hondakinetan.

Taula honetan, kudeatutako hondakinak¹³ agertzen dira: baimendutako enpresa kudeatzaileei bidaltzen zaizkie, behar bezala tratatzeko eta balorizatze (berrerabiliak edo birziklatuak). Serie bakoitzeko gehieneko balioak gorriaz identifikatu dira.

Efluenteak eta hondakinak	2016	2017	2018	2019	2020	Grafikoak				
Hondakin ez-arriskutsuak										
Paper-hondakinak (kg)	18.690	18.460	18.320	22.650	17.710					
Egur-hondakinak (kg) *	16.760	16.120	21.810	25.400	10.900					
Toner-hondakinak (kartutxoak)	63	76	60	s/d	s/d					
Plastiko-hondakinak (kg)	2.020	2.660	2.320	3.490	2.070					
Pneumatiko-hondakinak (kg)	546	61	107	330	590					
CD eta DVD hondakinak (kg)	-	-	-	-	0					
Egurrezko paleten hondakinak (kg)	1.100	-	430	1.460	1.280					
Hiri-hondakinen parekoak (kg)	45.022	48.119	49.056	43.370	39.875					
Hondakin arriskutsuak										
Ekipamendu elektronikoen hondakinak (kg)	370	1.363	5.682	4.390	2.540					
Pila-hondakinak (kg)	249	235	169	313	249					
Fluoreszente-hondakinak (kg)	380	124	55	128	44					
Pintura ez-plastikoen hondakinak (kg)	-	-	-	-	-					
Hondakin sanitarioak (kg)	4,20	3,40	1,80	5,65	6,9					
Ibilgailuen baterien hondakinak (kg) **	3	-	-	103	168					
Autoetan erabiltako oliaren hondakinak (l) ***	199	219	182	225	446					
Aerosol-hondakinak (kg)	-	62,00	-	53,00	0					
Metaletako ontzien hondakinak (kg)	-	65,00	-	89,00	0					
Plastikozko ontzien hondakinak (kg)	-	23,00	-	36,00	0					
Trapuen eta besteak material inpregnatuen hondakinak (kg)	-	627	-	1.069	0					
Pintura-olioen hondakinak (kg)	15	s/d	60	44	46					

*Hondakina kudeatzeko kostuen arabera kalkulaturako datua. ** 2016ko datuak unitatetan. *** 2020tik aurrera, datua kg-tan adierazten da.


13. Paperezko eta plastikozko hondakinen datua Bilboko egoitzari dagokio, han kudeatzen baita hondakin gehien; Miramongo eta Gasteizko datuak estimatuak dira, eta, beraz, ez dira oraindik neurketetan sartu.

9. Ingurumena | Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa

Beste alderdi batzuk

Ura

Beheko diagraman ur-bolumena ikus daiteke; ez da materiala EITBren lehentasunen azterketan oinarrituta. Hala ere, sartu egin da 11/2018 Legea betetzeko. Era berean, pandemiaren inpaktua ur-bolumenaren % 11ko murrizketan islatu da.



Biodibertsitatea


EITBren jarduera naturaguneei eragiten ez dieten hiriguneetan garatzen da, eta, beraz, ez du inpakturik sortzen biodibertsitatean.

Zigorrak

EITBk ez du zehapenik edo isunik jaso ingurumenari buruzko legeria eta araudia ez betetzeagatik. Halaber, ez du inolako ingurumen-erreklamaziorik jaso.

Enpresa hornitzaileak

EITBk enpresa hornitzaileen % 100i eskatzen die ingurumen-irizpideak bete ditzatela aplikatzekoak direnean. 2020an, ingurumen-irizpideak sartu ziren 12 kontratazioko baldintza-agiritan, eta 2021erako espero da ingurumen-irizpideak sartzea baldintza-agirien % 12an.



9. Ingurumena

Ingurumena: edukiak eta eragina

Barneko ingurumen-kudeaketaz gain, erakundeak komunikabide publiko gisa dituen erantzukizun garrantzitsuenetako bat da herritarrak ingurumenaren babeserako eta kontserbaziorako erantzunkidetasunari buruz kontzientziatzeko duen gaitasuna eta inpaktua. Horrela, EITB Taldeak konpromisoa hartu du gaiaren ikusgarritasuna hobetzeko eta handitzeko, bere plataformen edukiaren bidez.

2020an EITBko eguneroko albistegiek 692 albiste eman zituzten ingurumenari buruz. Onartutako helburua 180tik 240ra bitartekoa da.


Plan hori gauzatzeko, EITB Taldeak bi jarduketa-lerro definitu zituen edukiaren ikuspegitik:

- Hedabideek klima aldaketaren aurrean egindako adierazpenean hartutako konpromisoak garatzea. Hartutako beste neurri batzuen artean, Taldeak ingurumen-informazioa eta klima-larrialdiarekin zerikusia duena zabaltzeko jarrerari eusten dio.
- Programa-kontratuan hartutako erantzukizunari eustea, hau da, ingurumen-azterketa zientifikoari, horren aurkako egoerak salatzeari eta gizarte- eta politika-proposamenei erantzuteko eta arduraz jokatzeko jarraibideak sustatzeari buruzko lerro editoriala.

Ingurumenari buruzko elkarrizketak

62 urte
TB

91 urte
Irratian




60 - 70
Xede-
elkarrizketak
TBn

75 - 110
Xede-
elkarrizketak
Irratian

Joan aurkibidera

10. Memoriaren arauzko alderdiak

- Memoria egiteko oinarriak
- Kanpoko egiaztapena
- 11/2018 Legearen edukien
- GRI edukien indizea



10. Memoriaren arauzko alderdiak

Memoria egiteko oinarriak

Txosten hau GRI Estandarren Funtsezkoa aukeraren arabera egin da. Jasotako edukiak lantzeko, kontuan hartu dira, alde batetik, egindako materialtasun-azterketa, eta, bestetik, abenduaren 28ko 11/2018 Legearen betekizunak; lege horren bidez aldatzen dira Merkataritzako Kodea, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina —uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— eta Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea, informazio ez-finantzarioari eta aniztasunari buruzko informazioari dagokienez.

Ez da informazio-berradierazpenik egin aurretiazko memoriei dagokienez. Gai materialen aldaketak materialtasunari buruzko azterketaren deskribapenean sartu dira.

Memoria honek 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean EITBk jasangarritasunaren eta informazio ez-finantzarioaren arloan egindako jarduketa biltzen du. EITBk egindako azken Jasangarritasun Memoria 2019 urteari dagokio. 2018an, informazio ez-finantzarioaren lehen egoera argitaratu zuen. 2016ra arte, EITBren memoriak aurkezteko zikloa bi urtean behingoa zen; 2018tik aurrera, ordea, urteroko aurkezpen-zikloa ezarri da.

Memoria honen barruan daude Euskal Irrati Telebista (EITB) herri-erakundea eta EITB Media, S.A.U., bere mendeko sozietate bakarra.

Kanpoko egiaztapena

EITBk AENOR kontratatu du memoria hau kanpoan egiaztatzeko. Egiaztapen-txostena memoria honi erantsi zaio, eta ISAE3000 arauaren arabera egin da: Auditoretzaz edo Finantza Informazio Historikoaren Berrikuspenaz bestelako Aseguramendu-enkarguak, Aseguramendu-enkarguen Nazioarteko Esparrua eta Aseguramendu-enkarguen Nazioarteko beste Arau batzuen bat-etortze Aldaketak-NIEA.

Enkarguaren azpiko gaia lehen aipatutako 11/2018 Legeak eskatutako edukiak dira.

Memoria interes-taldeek ordezkariei banatuko zaie, EITBren hedabideetan argitaratuko da, eta www.eitb.eus webgunean (gardentasun-ataria) egongo da eskuragarri.

GEKari buruzko edozein kontsulta orokor nahiz espezifiko egiteko, edo Memorian emandako informazioarekin lotutako edozein kontsulta izanez gero, bi bide hauek daude jendearen eskura:

- Bezeroen arretarako telefonoa: (+34) 94 656 3122
- Helbide elektronikoa: info@eitb.eus

10. Memoriaren arauzko alderdiak

11/2018 Legearen edukien eta GRI Estandarren aurkibidea

Oinarrizko edukiak	Orrialdea / Erreferentzia
Negoio-ereduaren deskribapena	5-7
Erabilitako esparruak	107
EIN Fen auziekin lotutako arriskuak	10, 46
Ingurumenarekin lotutako gaiak	Orrialdea / Erreferentzia
Informazio xehatua	94-97
Kutsadura*	97
Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa**	101, 103
Baliabideen erabilera jasagarria: Ura	104
Baliabideen erabilera jasagarria: Materialak	102
Baliabideen erabilera jasagarria: Energia	98-99
Baliabideen erabilera jasagarria: Energia-efizientzia	97-99
Klima-aldaketa: BEG isuriak	100
Klima-aldaketa: Egokitzapena	100, 105
Klima-aldaketa: BEG isurien jomugak	100
Biodibertsitatearen zaintza: Neurriak	104
Biodibertsitatearen zaintza: Inpaktuak	104

(*) EITBren jarduera dela eta, zarataren eta argi-kutsaduraren alderdiak ez dira garrantzitsuak ingurumen-kutsadurako modu gisa.

(**) EITBren jarduera dela eta, elikagaiak alferrik galtzearekin lotutako alderdiak ez dira garrantzitsuak hondakinen prebentzioaren eta ekonomia zirkularraren arloan.

Gizarte-gaiak eta langileei dagozkienak	Orrialdea / Erreferentzia
Enplegua: Enplegatuen kopurua	5, 50-52
Enplegua: Lan-kontratuen modalitateak	52
Enplegua: Kaleratzeen kopurua	2020an ez da kaleratzerik erregistratu EITBko plantillan.
Enplegua: Ordainsariak	53-54
Enplegua: Soldata-arrakala	55
Enplegua: Kontseilarien eta zuzendaritza-kideen ordainsariak	54, 55
Enplegua: Lan-deskonexioa	2019an, EITBk ez zuen barne-politikarik lan-deskonexioaren arloari dagokionez.
Enplegua: Desgaitasuna	67
Lanaren antolamendua	57-58
Lanaren antolamendua: Absentismoa	60
Lanaren antolamendua: Kontziliazioa	59
Osasuna eta segurtasuna: Baldintzak	60-62
Osasuna eta segurtasuna: Istripuak eta gaixotasunak	60
Enpresaren eta plantillaren arteko harremanak	63 2020an, EITBko enplegatuen % 100 hitzarmen kolektiboek estalita daude.
Prestakuntza	63-64
Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsala	67
Berdintasuna	29-31, 65-66

10. Memoriaren arauzko alderdiak | 11/2018 Legearen edukien eta GRI Estandarren aurkibidea

Sozietateari buruzko informazioa	Orrialdea / Erreferentzia
Garapen jasangarriarekiko konpromisoak	10-12, 70-71, 73
Azpikontratazioa eta enpresa hornitzaileak	36, 104
Kontsumitzaileak: Osasuna eta segurtasuna	31-33
Kontsumitzaileak: Erreklamazioak	31-33
Kontsumitzaileak: Zerga-informazioa	34-35 Informazio ekonomikoak ekitaldiko galerak azaltzen ditu. Ez da erregistratu Sozietateen gaineko Zergaren ordainketarik.
Giza Eskubideekiko errespetua	Orrialdea / Erreferentzia
Giza Eskubideen <i>Due diligence</i>	27-28, 77
Arriskuak eta neurriak	44-45
Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa	62, 63
Laneko diskriminazioa	28-31, 65-66, 77
Behartutako lana eta haur-lana	Ez da arriskurik identifikatu eduki hauei dagokienez.
Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka	Orrialdea / Erreferentzia
Ustelkeriaren eta eroskeriaren prebentzioa	44-46
Kapital-zuritzearen prebentzioa	Kapital-zuritzea Arrisku Penalen Prebentzio Planaren esparruan egindako arriskuen azterketatik kanpo dagoen delitu gisa agertzen da, EITBren eragiketen esparruan gertatzen ez diren egitatezko kasuak kontuan hartzen dituzten jokabideak edo jarduketak direlako.
Irabazi-asmorik gabeko fundazio eta erakundeentzako ekarpenak	73

10. Memoriaren arauzko alderdiak

GRI edukien indizea

GRI kodea	Zenbakia	Edukia	Orrialdea
GRI 102	102-1	Erakundearen izena	5-6
GRI 102	102-2	Jarduerak, markak, produktuak eta zerbitzuak	6
GRI 102	102-3	Egoitzaren kokalekua	Basurtuko Kaputxinoak 2 48013 Bilbo
GRI 102	102-4	Eragiketen kokalekua	6
GRI 102	102-5	Jabetza eta forma juridikoa	6
GRI 102	102-6	Zerbitzatutako merkatuak	6
GRI 102	102-7	Erakundearen tamaina	5, 34-35
GRI 102	102-8	Plantillari eta beste langile batzuei buruzko informazioa	50-52
GRI 102	102-9	Hornidura-katea	35-36
GRI 102	102-10	Erakundearen eta haren hornidura-katearen aldaketa nabarmenak	6
GRI 102	102-11	Zuhurtasun-printzipioa edo -ikuspegia	94
GRI 102	102-12	Kanpoko ekimenak	43
GRI 102	102-13	Elkarteetako afiliazioak	76
GRI 102	102-14	Erabakiak hartzeko ardura duten goi-karguen adierazpena	2
GRI 102	102-15	Inpaktu, arrisku eta aukera nagusiak	44-45
GRI 102	102-16	Balioak, printzipioak, estandarrak eta portaera-arauak	18-19

GRI kodea	Zenbakia	Edukia	Orrialdea
GRI 102	102-18	Gobernantza-egitura	38-39
GRI 102	102-40	Interes-taldeek zerrrenda	114
GRI 102	102-41	Negoiazio kolektiboko akordioak	62-63
GRI 102	102-42	Interes-taldeek identifikazioa eta hautaketa	13-14
GRI 102	102-43	Interes-taldeek parte hartzeko ikuspegia	13-14
GRI 102	102-44	Aipatutako funtsezko gaiak eta kezak	15
GRI 102	102-45	Kontsolidatutako finantza-egoeretan sartutako erakundeak	6
GRI 102	102-46	Txostenetako edukien eta gaiaren estalduren definizioa	10-15
GRI 102	102-47	Gai materialen zerrrenda	14-15
GRI 102	102-48	Informazioaren berradierazpena	107
GRI 102	102-49	Txostenen lanketako aldaketak	Ez da aldaketarik egon.
GRI 102	102-50	Txostenaren xede-aldia	107
GRI 102	102-51	Azken txostenaren data	107
GRI 102	102-52	Txostenen lanketa-zikloa	107
GRI 102	102-53	Txostenari buruzko galderak egiteko harreman-puntua	107
GRI 102	102-54	Txostena GRI estandarrekin bat etorritik egin izanaren adierazpena	107
GRI 102	102-55	GRI edukien indizea	110-113
GRI 102	102-56	Kanpoko egiaztapena	107

10. Memoriaren arauzko alderdiak | GRI edukien indizea

GRI kodea	Zenbakia	Edukia	Orrialdea
Alderdi materiala: Ekonomia-jarduera			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	34-35
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	34-35
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	34-35
GRI 201	201-1	Sortutako eta banatutako zuzeneko balio ekonomikoa	34
GRI 201	201-4	Gobernuak emandako dirulaguntzak	35
Alderdi materiala: Zeharkako eragin ekonomikoak			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	20-26, 35-36
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	20-26, 35-36
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	20-26, 35-36
GRI 203	203-2	Zeharkako eragin ekonomiko nagusiak	20-26, 35-36
Alderdi materiala: Erosteko praktikak			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	36
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	36
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	36
GRI 204	204-1	Gastuaren proportzioa tokiko enpresa hornitzaileetan	36

GRI kodea	Zenbakia	Edukia	Orrialdea
Alderdi materiala: Ustelkeriaren aurkako borroka			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	44-46
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	44-46
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	44-46
GRI 205	205-3	Egiaztatutako ustelkeria-gorabeherak eta hartutako neurriak	44-46
Alderdi materiala: Energia			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	98-99
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	98-99
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	98-99
GRI 302	302-2	Kanpoko energia-kontsumoa	99
GRI 302	302-4	Energia-kontsumoaren murrizketa	98
Alderdi materiala: Ura			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	97, 104
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	104
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	104
GRI 303	303-1	Iturriko ura ateratzea	104

10. Memoriaren arauzko alderdiak | GRI edukien indizea

GRI kodea	Zenbakia	Edukia	Orrialdea
Alderdi materiala: Isuriak			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	97, 100
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	97, 100
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	97, 100
GRI 305	305-1	BEGen zuzeneko isuriak (1. irismena)	100
GRI 305	305-2	BEGen zeharkako isuriak energia sortzean (2. irismena)	100
GRI 305	305-5	BEGen isuriak murriztea	100
Alderdi materiala: Efluateak eta hondakinak			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	97, 101
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	97, 101
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	97, 101
GRI 306	306-2	Hondakinak, motaren eta tratamendu-metodoaren arabera	103
Alderdi materiala: Enplegua			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	48-49
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	48-49
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	48-49
GRI 401	401-1	Plantillaren kontratazio berriak eta langileen txandakatzea	50-52
GRI 401	401-3	Jaiotzagatiko baimena	59
Alderdi materiala: Enpresaren eta langilearen arteko harremanak			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	62-63
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	62-63
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	62-63
GRI 402	402-1	Eragiketa-aldaketei buruzko gutxieneko abisu-epeak	62-63

GRI kodea	Zenbakia	Orrialdea	GRI kodea
Alderdi materiala: Laneko osasuna eta segurtasuna			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	60-62
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	60-62
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	60-62
GRI 403	403-1	Langileen ordezkartza plantillaren eta osasun eta segurtasuneko enpresaren arteko batzorde formalean	62
GRI 403	403-3	Istripu-motak eta istripuen maiztasun-tasak, laneko gaixotasunak, galdutako egunak, absentismoa eta lan-istripuek edo laneko gaixotasunek eragindako heriotza-kopurua	60
GRI 403	403-6	Beren jarduerarekin lotutako gaixotasunak izateko arrisku handia edo eragin handia duten langileak	60
Alderdi materiala: Prestakuntza eta garapena			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	63-64
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	63-64
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	63-64
GRI 404	404-1	Enplegatu bakoitzeko prestakuntza-orduen batezbestekoa	64

10. Memoriaren arauzko alderdiak | GRI edukien indizea

GRI kodea	Zenbakia	Orrialdea	GRI kodea
Alderdi materiala: Aniztasuna eta aukera berdintasuna			
GRI 103	103-1	Gaiaren materialaren azalpena eta haren estaldura	29-31, 65-66
GRI 103	103-2	Kudeaketa ikuspegia eta osagaiak	65-66
GRI 103	103-3	Kudeaketa ikuspegiaren ebaluazioa	65-66
GRI 405	405-1	Gobernu organoen eta langileen aniztasuna	38-39, 65-66
GRI 405	405-2	Oinarrizko soldataren eta emakumeen eta gizonen ordainsarien arteko harremana	55, 65-66
Alderdi materiala: diskriminaziorik eza			
GRI 103	103-1	Gaiaren materialaren azalpena eta haren estaldura	27, 65-66, 77
GRI 103	103-2	Kudeaketa ikuspegia eta osagaiak	27, 65-66, 77
GRI 103	103-3	Kudeaketa ikuspegiaren ebaluazioa	27, 65-66, 77
GRI 406	406-1	Diskriminazio-gertakariak eta egindako neurri zuzentzaileak	46, 66
Aspecto material: Libertad de asociación y negociación colectiva			
GRI 103	103-1	Gaiaren materialaren azalpena eta haren estaldura	62-63
GRI 103	103-2	Kudeaketa ikuspegia eta osagaiak	62-63
GRI 103	103-3	Kudeaketa ikuspegiaren ebaluazioa	62-63
Alderdi materiala: Giza eskubideen ebaluazioa			
GRI 103	103-1	Gaiaren materialaren azalpena eta haren estaldura	77
GRI 103	103-2	Kudeaketa ikuspegia eta osagaiak	77
GRI 103	103-3	Kudeaketa ikuspegiaren ebaluazioa	77
GRI 412	412-1	Giza eskubideen gaineko berrikuspenen edo eraginaren ebaluazioen menpe dauden eragiketak	77

GRI kodea	Zenbakia	Orrialdea	GRI kodea
Alderdi materiala: Tokiko komunitateak			
GRI 103	103-1	Alderdi materiala: Tokiko komunitateak	70-73
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	70-73
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	70-73
GRI 413	413-1	Tokiko komunitatearen parte-hartzea duten eragiketak, inaktuaren ebaluazioak eta garapen-programak	70-73
Alderdi materiala: Marketina eta etiketatzea			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	46
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	46
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	46
GRI 413	417-1	Produktuak eta zerbitzuak informatzeko eta etiketatzeko eskakizunak	46
Alderdi materiala: Betetze sozioekonomikoa			
GRI 103	103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	43-46
GRI 103	103-2	Kudeaketaren ikuspegia eta osagaiak	43-46
GRI 103	103-3	Kudeaketaren ikuspegiaren ebaluazioa	43-46
GRI 419	419-1	Legeak eta araudiak betetzea gizarte-arloan eta ekonomia-arloan	43-46
Sektore-gehigarria: Komunikabideak			
Giza eskubideak		Giza eskubideak Adierazpen askatasuna	46, 77
		Kultura-eskubideak	79-85
Produktuaren erantzukizuna		Edukien sorrera	27-28, 46
Edukia ezagutzera ematea		Edukien dibulgazioa	27-28, 46

Eranskina: GRI informazio osagarria

EITBren interes-taldeen zerrenda

Komunitatea		
Herritarrak	-Gaixoen elkarteak -Osakidetza (Ikerketa) -Otik 11ra urte bitarteko haurrak eta euren familiak -Prestakuntza-zentroak -Kirolaren + Kulturaren + Ekonomiaren + Musikaren eremuak -Unibertsitarioak -Unibertsitatea -Euskadiko gizarte-komunikaziorako taldeak	-EITB patronatuan duten museoak -BAT -Eusko Legebiltzarra -Bakea eta Bizikidetzazuzendaritza -Biktimen elkarteak (terrorismoa/indarkeria) -Administrazioa -Entzumen-desgaitasuna duten pertsonen elkarteak
Euskadi munduan	-Euskal diaspora eta Euskal Etxeak -Euskal profesionalak atzerrian	-Iparraldeko eta Nafarroako erakundeak -Nazioarteko ezarpena duten euskal enpresak
Euskara	-Euskararekiko interesa duten herritarrak -Haurrak eta euren familiak -Kultura-erakundeak -Komunikazio-ikasleak -Euskara ikasten duten helduak	-EITBren materiala duten euskaltegiak -Euskarazko komunikazioaren profesionalak -Euskaltzaindia -Eusko Ikaskuntza -Unibertsitateak
Enpresa-jasang.	-Babestutako erakundeak eta proiektuak -Euskal gizartea -Sindikatuak	-Enpresa-elkarteak -Enpresa-foroak eta fundazioak: (Innobasque, Izaite, Euskalit, Q-EPEA)
Ingurumen-jasang.	-Euskal gizartea	
Gizarte-jasang.	-Komunikabideekiko interesa duten ikasleak -Unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak	-EITBko plantillaren familiak

Bezeroak	
Herritarrak	-EITBko hedabideen audientzia
Euskadi munduan	-Estatuko eta nazioarteko publikoa
Euskara	-Enpresa iragarleak
Enpresa-jasang.	-Bezero komertzialak
Ingurumen-jasang.	-EITBko hedabideen audientzia
	-Bezero komertzialak
Hornitzaileak	
Enpresa-jasang.	-Ikus-entzunezkoen Euskal Klusterra (EIKEN) -Telebista-ekoiztetxeak -Ondasunen eta zerbitzuen enpresa hornitzaileak -Langileen outsourcinga
Ingurumen-jasang.	-Enpresa hornitzaileak (erosketa berdea)
Txantiloia	
Herritarrak	-EITBko plantillako langileak eta kolaboratzaileak
Euskara	-EITBko plantillako langileak eta kolaboratzaileak
Ingurumen-jasang.	-EITBko plantillako langileak eta kolaboratzaileak
Gizarte-jasang.	-EITBko plantilla
Akzioduna	
Herritarrak	-Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika + Ogasuna eta Finantzak Sailak
Enpresa-jasang.	-Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika + Ogasuna eta Finantzak Sailak
Administrazioa	
Herritarrak	-Administrazioa -Eusko Legebiltzarra
Euskadi munduan	-Administrazioa
Euskara	-Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ordezkariak -HABE -Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza
Enpresa-jasang.	-EITBekin lotutako Eusko Jaurlaritzaren Sailak: Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika + Ogasuna eta Finantzak + Lehendakaritza
Ingurumen-jasang.	-Ingurumenarekin lotutako erakunde ofizialak
Gizarte-jasang.	-Genero-berdintasunarekin lotutako erakunde ofizialak



Memoria integratua 2020

Descubre más en la web www.eitb.eus